



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

Numéro spécial 2 | 2015
Othoi çato etchera

Le Dauphin : euskarazko gutunak (1757)

Manuel Padilla-Moyano et Charles Videgain



Édition électronique

URL : <https://journals.openedition.org/lapurdum/2561>

DOI : 10.4000/lapurdum.2561

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 octobre 2015

Pagination : 95-160

ISBN : 978-2-9553413-1-5

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Manuel Padilla-Moyano eta Charles Videgain, «*Le Dauphin* : euskarazko gutunak (1757)», *Lapurdum* [Linean], Numéro spécial 2 | 2015, Sarean emana---an 01 septembre 2016, kontsultatu 02 avril 2023.

URL: <http://journals.openedition.org/lapurdum/2561> ; DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2561>



Creative Commons - Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International - CC BY-NC-ND 4.0
<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

Le Dauphin: euskarazko gutunak (1757)

Manuel PADILLA MOYANO¹ & Xarles VIDEGAIN²

1

Data: 1757/2/2

Non idatzia: Urruña

Igorlea: Martin de Arrunde

Hartzailea: Martin de Arrunde

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<01.1r> 114

Lapresente letre / rendu martin / arrunde
aLouisbourge / ALouis Bourge

<01.1v> Urrugne le 2 fevrier 1756

/ Martin [de] arrunde escribacen darosquicut
/ Bileru ossasuna dugu jeancoari Esquer /
Eta dessiracen ginducque Curia hala balix
/ ^β Eta Cerbeit egin duculaaditudugu Eta
/ unqigobernacaite Eta erecibitunuben /
Caspi libera martinen ganic deussic ecin
/ jrrisca desaqueguque unciguciacarcen /
tuste Eregeren cerbicutic Ethorinincen /¹⁰ Eta
Coursurat noa hogoieta sei pecetaquo / fragata
Berribatian Eta helduden / urtian Cato Echerat
eta Cerequin Ecdiru / Gucciac jrisca Eta halic
obeciiena Eginen / Ducu eta Cerbicarry martin
de arrunde

1v:1 1756 urteaz tronpatu da: 1757 irakurri
behar da.

B bertsioa

<01.1r> 114

La presente letre rendu Martin Arrunde a
Louisbourge. A Louisbourge.

<01.1v> Urrugne, le 2 fevrier 1757.

Martin de Arrunde, eskribatzen darozkitzut
bi lerro. Osasuna dugu Jenkoari esker, eta
desiratzen ginduce zuria hala balitz. Eta zerbeit
egin duzula aditu dugu, eta unki goberna zaite;
eta errezibitu nuben zazpi libera Martinenganik.
Deusik ezin irriska dezakeguke: unzi guzjajak
artzen tuzte. Erregeren zerbitzutik ethorri
nintzen eta korsurat noa hogoi eta sei pezetako
fragata berri batian eta heldu den urtian zato
etxerat eta zerekin; ez diru guzjajak irriska, eta
halik obekijena eginen duzu. Eta zerbitzari
Martin de Arrunde.

1. UPV/EHU, IKER UMR5478

2. UPPA, IKER UMR5478

2

Data: 1757/2/4

Non idatzia: Hendaia

Igorlea: Marie d'Etcheverry [Don Qoche idazlariak egina]

Hartzailea: Pierre Daguerre

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<02.1r> 65

A Monsieur / Monsieur Pierre Daguerre / A
Louisburque.

<02.2r> Ahenday 4e de fevrier 1757

/ Ene seme maitija

/ Escrivacendisut Bilerro hauq
surymarquaceratemateco / Estatu miserable Baitan
qaucicenais Erresivitudut sure /¹ Lettra Ere han
iqussydut sure Berrijaq Baignan / Esnaibessala
martinek eta huncija galdudute Berris Ere / horraçu
Desiradu arrequinservait icendusu mariqatan_a /
assareda sure contra Estyossula Lettrabat Eguinlau
/ hurtehuntan alababat badusu iduridubena
perfeq /¹⁰ Etorryqoda horat Baquija Eguitendenian
Jduriquicen / Du Emendiq harat orroitu saren
Baigno obequy / orroituçu sarella guissona hor laster
aberestenomendira / Suceresa?adusugaihona (†)
horsure Lettra Ematen / Dossuna arren conseluvaq
hunguy artasu sure annaya /¹⁵ Bessela Esagusasu
deusit Egorceco dusunian horren / ganat adresasu
adisquide handibatdugu Etacontu / horre hunguy
Eguignedu ganes pellobaitaco ganda / Corsurat sure
gorrancijaq Emandijosagu banuque / sury servait
gastijaceco icenda Berceoquasionebat /²⁰ ganesen
Berririq Estugu deusit jaquiten Badusu / gastijasasu
apachappanaq gorrancy harengalsardy / gorrijaq
nontusu ganachume assareda surecontra / Merrisidu
sureganiq gusama Ere Bai

/²⁴ Marie d Eceverry

[marjinean idatzia] / haucuquouaq gorrancy
Donqocheq Eguigndu Lettrahau

2r:4 *Baitan* : batian irakurri behar. 7 *icendusu* : izanen duzu ulertzen dugu; cf. *icenda Berceoquasionebat* (19. lerro). 14 *artasu* : (h)artzazu ulertu behar da.

B bertsioa

<02.1r> 65

A Monsieur Monsieur Pierre Daguerre. A
Louisburque.

<02.2r> A Henday, 4e de fevrier, 1757.

Ene seme maitija,

Eskribatzen dizut bi lerro hauk zuri markatzerat
emateko estatu miserable batian kausitzen naiz.
Errezibitu dut zure letra ere; han ikusi dut zure
berrijaq, baiñan ez nai bezala. Martinek eta
hunzija galdu dute berriz ere, horra zu, desira
du arekin zerbait izanen duzu. Marikatania
asarre da zure kontra, eztiozula letra bat egin lau
hurte huntan. Alaba bat baduzu iduri dubena
perfek; etorriko da horrat bakija egiten denian,
idurikitzen du. Emendik harat oroituzaren
baiño obeki oroituz zure zarea gizona. Hor laster
aberesten omen dira; zuk ere sa?a duzu gai hona
(†). Hor zure letra ematen dozunaren konselubak
hungi artazazu, zure anaia bezela ezaguzazu;
deusit egortzeko duzunian horrenganat adrezazu,
adiskide handi bat dugu eta kontu horre hungi
eguiñe du. Ganes Pellobaitako gan da korsurat;
zure gorantzijak eman dijotzagu. Banuke zuri
zerbait gaztijatzeko; izanen da bertze okasione
bat. Ganesen berririk eztugu, deusit jakiten
baduzu gaztijazazu. Apa Xapanak goranzi, haren
galzardi gorrijaq non tuzu? Gana Xume asarre da
zure kontra, merisi du zureganik; gusama ere bai.

Marie d'Etcheverry.

Hauzukuak gorantzi. Don Qocheq egiñ du letra
hau

3

Data: 1757/2/12
 Non idatzia: Hendaia
 Igorlea: Gacina de Biscarrondo
 Hartzailea: Patchiqu de Biscarrondo
 Lotura: anai-arrebak
 Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<03.1r> 71

A Monsieur / Monsieur / patchiqu de bis- / carondo / A Lisbourc

<03.1r.bis>

A Monsieur / Monsieur / patchiqu de bis- / carondo / A Lisbourc

<03.2r> endan eguina oxalen amabijan

/ Ene anayamaitja esribatcen dosquicut belero / familia gucien partes vngui gare jainqoary / esquer amaso dugu etxituba eta cure emaste- /⁸ a ere esxituba espacatuda bainan orai vn- / guida aura ere vnguida cuben beri hainits / estucube gastigatcen nolacaiten eta es / deus hainits egortcen letrabat solamen- / te estucu eguiten esguri eta es emas- /¹⁰ teari penatuba gare hainits beriric / gabes otoisten cait cuhurjcatias etacu- / re beriac gastiactias miguel etche- / veriari goraintci aitag eta familia / guciac eta osabas beri onac ditugu eta /¹⁵ cubec ere aitudugu cerbait baducula / hobe atxeguindut otoisten caitut ¹⁴tra hu- / nen barnian egortcendut anajary eta / nola es homen ba'tcaite erealequin eren- / datuqo diocu otoisten caitut errepusta egui- /²⁰ tias lehen bicico comoitatian

[marjinean idatzia] / guelditcen nais cure cerbit cary gacina de / biscarondo

B bertsioa

<03.1r> 71

A Monsieur Monsieur Patchiqu de Biscarrondo. A Lisbourc.

<03.1r.bis>

A Monsieur Monsieur Patchiqu de Biscarrondo. A Lisbourc.

<03.2r> Endan egina, otsalen amabijan.

Ene anaia maitia, eskribatzen dozkitut be lerro familia guzien partez. Ungi gare Jainkoari esker. Amaso dugu etsituba eta zure emaztea ere etsituba espakatu da, bainan orai ungi da. Aurra ere ungi da. Zuben berri hainitz eztuzube gaztigatzen, nola zaiten, eta ez deus hainitz egortzen; letra bat solamente eztuzu egiten, ez guri eta ez emazteari. Penatubak gare hainitz berririk gabez. Otoitzen zaitut zuhur izatiaz eta zure berriak gaztiatiaz. Miguel Etcheverriari goraintzi. Aitak eta familia guziak eta osabaz berri onak ditugu, eta zubek ere. Aitu dugu zerbait baduzula; hobe, atsegin dut. Otoitzen zaitut: letra hunen barnian egortzen dut anaia eta, nola ez homen baitzaite, Errealekin errendatuko diozu. Otoitzen zaitut errepusta egitiaz lehenbiziko komoitatian.

Gelditzen naiz zure zerbitzari, Gacina de Biscarrondo.

2r:10 *penatuba* : *penatubac* irakurri behar da. Menturaz ondoko belarrak eragotzi du *k*-ren agerpena: *penatuba(c) gare*. 11 *cait* : uste dugu *çaitut* irakurri behar dela; gero bi aldiz ageriko da *çaitut*.

4

Data: 1757/2/12

Non idatzia: Hendaia

Igorlea: Gacina de Biscarrondo

Hartzailea: Martin Josepe de Biscarrondo

Lotura: anai-arrebak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<04.1r> [71bis]

A Monsieur / Monsieur / Martin josepe de /
biscarondo / A Lisbourg

<04.2r> endajan eguina oxalaren amabican

/ eneanaja maitia escribatcen darasquitcut /
bilero auc curi gureberies satisfacione em- /
ateqo ossasuna g̃dugu bainan amaso /^f
etxituba dugu aitudugu cerbait baducube- /
la atxeguindugu saraqo guicon gastebat
/ anguelec arturic gure etchia jodu cure /
conpaniatic cuhurqui gobernacaite eta /
ossabas ere berri onac ditugu amaso bear-
/¹⁰ retand cerbait fagore eguiocu aurten /
etorcaite niolere posible bada goraintcy /
aispac ere otoisten caitut erepusta / eguitias
lehen_{nen} bicico comoitatan / guelditcen nais
cure cerbitcary /¹⁵ erespetuhandibatequ'n
gaci- / na biscarondo

B bertsioa

<04.1r> [71bis]

A Monsieur Monsieur Martin Josepe de
Biscarrondo. A Lisbourg.

<04.2r> Endaian egina, otsalaren amabican.

Ene anaia maitia, eskribatzen darazkitzut bi
lerro auk zuri gure berriez satisfacione emateko.
Ossasuna dugu, bainan amaso etsituba dugu.
Aitu dugu zerbait baduzubela; atsegin dugu.
Sarako gizon gazte bat angelek arturik gure
etxia jo du, zure konpaniatik. Zuhurki goberna
zaite. Eta osabaz ere berri onak ditugu. Amaso
bearretan da, zerbait fagore egiozu. Aurten
etor zaite, niolere posible bada. Goraintzi
aizpak ere. Otoizten zaitut erreputa egitiaz
lehenbiziko komoitatian. Gelditzen naiz zure
zerbitzari, errespetu handi batekin,
Gacina Biscarrondo.

2r:10 *bearretand* : *bearretanda*. 13 *lehen_{nen} bicico* : duda izan du *lehen* ala *lenen* eman behar zuen; *lehenbicico*
irakur bedi.

5

Data: 1757/2/14

Non idatzia: Sara

Igorlea: Catalin Lalanne

Hartzailea: Esteben Gourdo

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<05.1r> 120

La presente soit / rendue a Esteben / Gourdo.
marinier / A Lotiùsbourq

<05.2r> Ene espos maitea

/ Letra hau esquiribatcen darotçut / çuri
erraiteco errecebitu nuela / çure letra 120
liberaco /⁵ letra sanjarequin cenitaz / pagatua
içan bainaiz. / bercealde erranaracituz / çuc
marcatcen cinarozquidan / meçac.

/¹⁰ eztut berceari çuri marcatceco, / choilquy
ossassuna dudala / Desiratcendut nere bihotz
/ guciatz çuc ere hala Bacinu. / çure semea
unguida bere /¹⁵ errespetuez seguracen çaitu
/ ortholopitzco andrea jincoac / deithu du
beregana hilhunen / hirurean sanblaz egunean
<05.2v> andre gaztea.

/ harburuco familiaq mila / gorainci darotçu
bai eta ere / çure arrebek eta coinatex /⁵ guciec
ossassuna dute / finean guerla hunen beldurrez
/ deussen çuri igorcera ecin / ausartatu naiz.
/ guelditcen naiz ene espos /¹⁰ maitea çure
ikhusteco / esperançarequin çure cerbitçary /
humila eta obedienta

/ Catalin Lalanne

/ saran oxailaren /¹⁵ 14an 1757 harburun /
egoiten naiz bethi

2r:5 cenitaz : ceintaz irakur.

B bertsioa

<05.1r> 120

La presente soit rendue a Esteben Gourdo,
marinier a Lotiùsbourq.

<05.2r> Ene espos maitea,

Letra hau eskiribatzen darotzut zuri erraiteko
errezebitu nuela zure letra 120 liberako letra
sanjarekin, zeintaz pagatua izan bainaiz. Bertze
alde, erranarazi tut zuk markatzen zinarozkidan
mezak.

Eztut bertzerik zuri markatzeko, xoilki osasuna
dudala; desiratzen dut nere bihotz guziaz zuk
ere hala bazinu. Zure semea ungi da; bere
errespetuez seguracen zaitu. Ortholopitzko
andrea Jinkoak deithu du bereganat hil hunen
hirurean, San Blaz egunean; <05.2v> andre
gaztea.

Harburuko familiak mila goraintzi darotzu,
bai eta ere zure arrebek eta koinatek; guziek
osasuna dute. Finean, gerla hunen beldurrez
deusen zuri igortzera ezin ausartatu naiz.
Gelditzen naiz, ene espos maitea, zure ikhusteko
esperantzarekin. Zure zerbitzari humila eta
obedienta,

Catalin Lalanne.

Saran, otsailaren 14an, 1757. Harburun egoiten
naiz bethi.

6

Data: 1757/2/20

Non idatzia: ?

Igorlea: Maria de Molleres [Etchegarayco Haurra Maria idazlari]

Hartzailea: Bitor & Bernat de Farandiret

Lotura: adiskideak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<06.1r> 69

presenteco le'tra hau errendatuco / caio laures
tirun mariacoeneco / semeari chanpartierari
chebecat / eta harc errendatuco du bitor /^β de
Farandiret edo bernat de / Farandiret anaia bata
edo / bercea ganat

<06.2r> Bitor de Farandiret eta Beinat de
Farandiret / eneadisquide maite maitiac
harcen dut libertate / cui bi lerroren
eschribaceco jaquin deçaçuen / amoreac
gatic cuen aita eta amaren b eta /^β arebaren
ahaide eta adisquide gucien berriac / gorainçi
darotcue gastigacen ossasuna on bat / dutela
desiraçen luquetela cuec hala bacind / ute
errecibitu dute cuec eguin letra ungui /
placer hartu baitute cuen berrien adicias /¹⁰
aita eta ama hamar urtes gastatu dire cuen /
berrien adicias orai desiraçen tute luquete /
ceboc cuen berriequin icustias marchoareen /
lehenbico jgandian eguin behartu bors urte
/ hemendic partitu cinetela gerostic esquara
/¹⁵ hala satifatu nola aurten jaincoac gracia /
handiac eguiten darosquicue eta estarotcue /
batere gutiago eguinen baldin ematen badi /
ocue satifacionea cuen aitari eta amari cueⁿ /
jcustecoa ecen hurren dire hagarandu cuec
/²⁰ beguis jcusi nahis munduco ontasun
guciac / baino nahiago luquete cuec beguis
jcusi guer^o / hilen badire ere hain ungui
cuen arebac / cuen jcusteco desira baluque
non uste balu / munduco trespic handienac
guciac uts bai /²⁵ lecaque cuen jcusteco non
bordele becain / hurbil balis esbailuque
batere herabe urr / axa cuen jcusteco hambat
demoras jbiri / dire cuen berriac jaquin
nahis hirur urtes / eguin tuste bors letra eta
behin ere cuenic /³⁰ ecin jcan bainan aurten
compreñitu dut^e / eguin tucuela cuec ere
letrac arebac

B bertsioa

<06.1r> 69

Presenteko letra hau errendatuko zaio Laures Tirun
Mariakoeneke semeari, xanpartierari xebekat (†),
eta hark errendatuko du Bitor de Farandiret edo
Bernat de Farandiret, anaia bata edo bertzeaganat.

<06.2r> Bitor de Farandiret eta Beinat de
Farandiret, ene adiskide maite-maitiak,
hartzten dut libertate zuei bi lerroren
eskribatzeko, jakin dezazuen amoreak gatic
zuen aita eta amaren, bai eta arrebaren,
ahaide eta adiskide guzien berriak.
Goraintzi darotzue, gaztigatzen osasuna on
bat dutela, desiratzen luketela zuek hala
bazindute. Errezibitu dute zuek egin letra,
ungi plazer hartu baitute zuen berrien
aditziac. Aita eta ama hamar urtez gastatu
dire zuen berrien aditziac; orai desiratzen
lukete zebok zuen berriequin ikustiac.
Martxoaren lehenbiziko igandian egin behar
tu borts urte hemendic partitu zinetela.
Geroztik ezkara hala satifatu, nola aurten
Jainkoak grazia handiac egiten darozkitzue,
eta eztarotzue batere gutiago eginen baldin
ematen badiozue satifacionea zuen aitari
eta amari zuen ikustekoa, ezen hurren
dire hagarandu zuek begiz ikusi nahiz:
munduco ontasun guziak baino nahiago
lukete zuek begiz ikusi, gero hilen badire
ere. Hain ungi zuen arrebak zuen ikusteko
desira baluke, non uste balu munduco
tresorik handienak, guziak utz bailezake
zuen ikusteko, non Bordele bezain hurbil
balitz ez bailuke batere herabe urratsa zuen
ikusteko. Hanbat denboraz ibiri dire zuen
berriak jakin nahiz; hirur urtez egin tuzte
borts letra, eta behin ere zuenik ezin izan,
bainan aurten konpreñitu dute egin tuzuela
zuek ere letrak. Arrebak

<06.3r> goraiaci osaba eta jceba guciec gorainci
 cusina / guciec gorainci etchegaraico familia
 guciac / gorainci erotaco falia guciac gorainci
 ague / reco familia guciac gorainci camietaco
 /^f familia guciac gorainci andregaiia escondu
 / da hausteico cadetequin seme handi bate
 / quin daude cuen arebac eguin du hequien
 / esconca cuenac ere eguina dago baldin
 dispo / sacen bacarete bitor ene anaia maitia
 compre /¹⁰ niaraci jcatu daut marinel batec
 hor ha / bitacen carela bainan guciarequin ere
 / behinere estut sinesi cergatic espaicaosca^t /
 capace cu guri damu horren eguiteco / beinat
 ene bihos maitia dio cure arrebac /¹⁵ baduela
 hirur urte cure emaste gaia / bilatua duela
 bethi dagoela hagarandua cu / jcusi nahis bethi
 galdeguiten dioscala cu^e / berriac eta bethi
 aguincen caituela baldin / fraide eguin gogo
 espaducu esconca trataça /²⁰ le handi bat da
 hura bainan berreric estu / eguiten hargatic
 cuec eguiteco dauca hura / apa landaburucoac
 mariac machume estebe / necoc gachina
 chume castienecoc gaachic / guci guciec
 gorainci /²⁵ bitor eta beinat ene / adisqueide
 eta hauco maite maitiac gororaici / darotcuat
 particularsqui nic letraren / eguilic guciac
 gainetic maria de molleses / etchegaraico
 hauramariac eguina /³⁰ oxailaren 20 an eguina
 1757 / lapiceco andregaiac gorainci mila mila

<06.3v> orai compreni cacue guc cuec cein
 maite / caitustegun candela bat ere erre guin
 / duen hunen eguitian berciac / liberticionian
 eta gu hunen / eguiten

<06.3r> goraintzi, osaba eta izeba guziek
 goraintzi, kusina guziek goraintzi, Etxegaraiko
 familia guziak goraintzi, Errotako familia
 guziak goraintzi, Agerreko familia guziak
 goraintzi, Kamietako familia guziak goraintzi;
 andregaiia ezkondu da Hausteiko Kadetekin,
 seme handi batekin daude. Zuen arrebak egin
 du hekien ezkontza; zuenac ere egina dago,
 baldin disposatzen bazarete. Bitor, ene anaia
 maitia, konpreniarazi izatu daut marinel batek
 hor habitatzen zarela, bainan guziarekin ere
 behin ere ez tut sinetsi, zergatik ezpaitzaozkat
 kapable zu guri damu horren egiteko. Beinat,
 ene bihotz maitia, dio zure arrebak baduela
 hirur urte zure emaztegaia bilatua duela, bethi
 dagoela hagarandua zu ikusi nahiz, bethi
 galdegiten diozkala zure berriak eta bethi
 agintzen zaituela, baldin fraide egin gogo
 ezpaduzu. Ezkontza tratatale handi bat da
 hura, bainan berrerik ez tu egiten, hargatik
 zuek egiteko dauka hura. Apa Landaburucoak,
 Mariak, Maxume Estebenekok, Gaxina Xume
 Kastienekok, Gaaxik... Guzi-guziek gorainzi.
 Bitor eta Beinat, ene adiskide eta hauzo maite-
 maitiak, goraintzi darotzuet partikularzki
 nik, letraren egiliak, guzien gainetik, Maria
 de Molleses. Etxegaraiko Haurra Mariak
 egina. Otsailaren 20an egina, 1757. Lapitzeko
 andregaiak goraintzi mila-mila.

<06.3v> Orai konpreni zazue guk zuek
 zein maite zaituztegun: kandela bat ere erre
 ginduen hunen egitian, bertziak liberticionian
 eta gu hunen egiten.

3r:3 *falia* : familia irakurri behar da. 26 *gororaici* : *gorain(t)ci*.

7

Data: 1757/2/26

Non idatzia: Sara

Igorlea: Miguel Harismendy

Hartzailea: Bernard Harismendy

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<07.1r> 59a

La Presente Lettre / soit rendüe a Bernard / harismendy habitant de / Louïsbourg. / A Loüisbourg.

<07.2r> Saran eguina oxailaren 26^{an} 1757

/ Ene seme maitea
/ Badaquiçu bi urthe huntan ezdarotaçula
ez bici çaren ez / eta ere çure berriric batere eman; apparancias ahanxi /⁵ çaitçu aita nauçula; aditu dut fortuna handi bat / eguin duçula hor esconças, jainco jaunac lagun eta / guida çaitçala, eta eguin deçaçula gratia cure baithan / ongui ongy sarthuric cure faltac ongui essaguturic / niri eta çure ama gachoari eta familia guciari eman /¹⁰ darocussun nahigabe handia erreparatçeco, nic dessiratçen / darosquiçudan gaixac aise jassanen tutçu. Errecibitu / nituen çuc egorri cinerosquidan 250^{ac} eta alchatcera / eman niotçan M. Haranchipiry, eta guero ondoan nere / behar handian erretiratu nituen handic eta emplegatu /¹⁵ nere denboran uste dut aita qualitatean cenbait axeguin / chumes lagundu eta favoratu caitudala; bisquitartean / egorri tutçun sossen galdea eguin dioçu eguin behar / etçinionari erran nahi dut M. Haranchipiry, niri egorri / çinerosquidan eta niri galdegin behar cinerosquidan /²⁰ eta ez hari, eznuen pretenitçen sos hequin galdea / eguin behar çinerotala, hor eguin duçun saltsa, hor

<07.2v> çuçhen saçu, nitas nitas beçanbatean estut pagatuco / çure anaya primoa escondu ha goanareneco alabarequin, / berce familia guciac ere ossassuna du. dessiratçen / darotçut ossassuna perfet bat eta guelditçen nais çuc /⁵ ni ahanxi arren cure aita ona

B bertsioa

<07.1r> 59a

La presente lettre soit rendüe a Bernard Harismendy, habitant de Louïsbourg. A Loüisbourg.

<07.2r> Saran egina, otsailaren 26an, 1757.

Ene seme maitea,
Badakizu bi urthe huntan ez darotazula ez bizi zaren ez eta ere zure berririk batere eman; aphaarantziac ahanzi zaitzu aita nauzula. Aditu dut fortuna handi bat egin duzula hor ezkontzeas. Jainco jaunak lagun eta gida zaitzala, eta egin dezazula grazia, zure baithan ongi-ongi sarthurik, zure faltak ongi ezaguturik, niri eta zure ama gaxoari eta familia guziari eman darokuzun nahigabe handia erreparatzeko. Nik desiratzen darozkitzudan gaitzak aise jasanen tutzu. Errezibitu nituen zuk egorri zinerozkidan 250ak, eta altxatzera eman niotzan M. Haranchipiry, eta gero ondoan nere behar handian erretiratu nituen handik, eta emplegatu nere denboran. Uste dut aita kalitatean zenbait atsegin xumez lagundu eta laboratu zaitudala. Bizkitartean, egorri tutzun sosen galdea egin diozu egin behar etzinionari, erran nahi dut M. Haranchipiry. Niri egorri zinerozkidan eta niri galdegin behar zinerozkidan eta ez hari, ez nuen pretenitzen sos hekin galdea egin behar zinerotala. Hor egin duzun saltsa hor

<07.2v> xuxen zazu, nitaz bezanbatean ez tut pagatuko. Zure anaia primoa ezkondu da Goanareneco alabarekin; bertze familia guziak ere osasuna du. Desiratzen darotzut osasuna perfet bat, eta gelditzen nais, zuk ni ahanzi arren, zure aita ona.

/ Miguel Harismendy

/ marcatu baitçinarotan collacareneco semeari
prestatu ciniotçala / hemecorcy libera, eta
galde netçola, eta erretira netçola / hartu dut
particularrean guiçon gaste hura, eta dio /¹⁰
egundaino ezdioçula deussic eman; bioc hori
elquarganatçen / çaretenean churituco duçue;

/ Monsieur haranchipic milla gorainci
darotçula / jaincoari othoix eguinen diola
çutas eta orhoit / çaitecila heriotçeas eta çure
arimaren salbamenduas

2v:2 *escondu ha* : *escondu da* irakur bedi.

Miguel Harismendy.

Markatu baitzinarotan Kolakareneco semeari
prestatu ziniotzala hemezortzi libera, eta
galde netzola, eta erretira netzola. Hartu
dut partikularrean gizon gazte hura, eta dio
egundaino ez diozula deusik eman; biok hori
elkarganatzen zaretenean xurituko duzue.

Monsieur Haranchipik mila goraintzi
darotzula, Jainkoari othoitz eginen diola
zutaz, eta orhoit zaitezila heriotzeaz eta zure
arimaren salbamenduaz.

8

Data: 1757/2/26

Non idatzia: Azkaine

Igorlea: Maria de Bortairay

Hartzailea: Joannis Hiribarren

Lotura: kusiak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<08.1r> 119

La Presante / soit rendu á / joannis hiribarren
aprens / A Louisbourg

<08.2r> Ene adisquide maitea

/ Escriptatcen dausquitçut bi lerro hauc çury
/ aditcerat emateco ene eta cure ezposaren
ossasunaren / berry ceifetan ossasuna baitugu
çure haurrequin /⁸ batean dessiratcen nuque
edo guinduque çurea hala / icatea, badaquiçu
lau atorra nolla eman / nausquitçun eta sembat
hetaz progoitchatu çaren / uste nuen oray baiño
lehen satisfactua içanen / nintcella ceifetan
hamar escutu montatcen /¹⁰ baitute, nere
nessesitateac huntarat obligatcen / nau, beras
othoisten caitut lehenbico c[omoditatean] /
egotzaz egortceaz erran den hamar liuera ^{escutuac}
hec, eta othoisten / caitut çure fammillarat
erretira caitecin ecen çure emaste / gaichoa
çure arribada noiz içañen duen gdago cerbait-
/¹⁵ equin, salutatcen caitu cure andreak haide
eta aquide / guiciec eta ni guelditcen naiz çure
cussina maria de / bortairay servitçary ascain^{en}
oxaillaren 26an 1757an

B bertsioa

<08.1r> 119

La presante soit rendu á Joannis Hiribarren, a
presens a Louisbourg.

<08.2r> Ene adiskide maitea,

Eskribatzen dauzkitzut bi lerro hauc zuri
aditzerat emateko ene eta zure esposaren
osasunaren berri, zeifetan osasuna baitugu
zure haurrekin batean. Desiratzen nuke,
edo ginduke, zurea hala izatea. Badakizu lau
atorra nola eman nauzkitzun, eta zenbat hetaz
progoitxatu zaren. Uste nuen orai baiño lehen
satisfactua izanen nintzela, zeifetan hamar
ezkutu montatzen baitute. Nere nezesitateak
huntarat obligatzen nau; beraz, othoizten zaitut
lehenbiziko komoditatean egortzeaz erran
den hamar ezkutuak, eta othoizten zaitut zure
famillarat erretira zaitezin, ezen zure emaste
gaixoa zure arribada noiz içañen duen dago
zerbaitekin. Salutatzen zaitu zure andreak, haide
eta adiskide giziek, eta ni gelditcen naiz zure
kusina, Maria de Bortairay, zerbitzari. Azkainen,
otsaillaren 26an, 1757an.

2r:12 *liuera* ^{escutuac} *hec* : lehenbiziko idatzaldian *hamar liuera hec*, baina gainidatziarekin *hamar escutuac*
irakurri behar da. 15 *aquide* : *adisquide* irakur bedi. 16 *guiciec* : *guciec* irakur.

9

Data: 1757/2/28

Non idatzia: Hendaia

Igorlea: Gaçina Diyarz

Hartzailea: Joannes Hiraburu

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<09.1r> 43

Monsieur / Monsieur Joannes hirabouru /
 charpantie marein / a Louis bourc
 / fait a hendaye

<09.2r> Hendayan Eguigna otxaillaren
 28–1757

/ Ene Senar maitea

/ Causitçen gare ossassuna parfait Batian /
 familia guçija non Desiratçen nuque /^ß Çuria
 Ere hala jçaiteta Eta Contignuatxia / halaber nere
 Bihotz gouçijaz / jçatudut Çuc Egorri dautaçun
 Létra / chanjia non marquatçen baititu Berogoy
 / Louis Çeignetan adreçatuba Baita M' /¹⁰
 Manesco miarritz çouaren ganat Beras / jçatu
 nais jaun haren Baitan nola / Egorri dautaçun
 Eta Errepusta Emandarot / nola Estuben Chanje
 Egoraçaille horren / ganic deus fusic Erreçibitu
 vntxijac /¹⁵ galdu direla Batçubec Eta Bertçiac
 / Es aguery non diren Esdarot sinatu / ortaric
 hartuco ditutçu Çure præcossijon[eac] / Ene
 Espos maitea Eguignen duçu haha[lic]

<09.2v> hobequijena Eçen jduritçen Çait
 pagatçeco / Borondateric jçatu Balu sinatuco
 çubela / afin salutaçen çaituste çure Burassuec
 / Eta anaya arrebac Eta coignatec Eta Bertçe
 /^ß ahaide Eta adisquide guçijec halaber /
 milla goraintcy ossassuna on bat dessiratçen /
 dautçutela Ene Espos maitea
 / guelditçen nais Çure / cerbitçary Çure /¹⁰
 jçousteco dessira handy / Batequin

/ Gaçina Diyarz

B bertsioa

<09.1r> 43

Monsieur Monsieur Joannes Hiraburu,
 charpantie marein a Louisbourg.

Fait a Hendaye.

<09.2r> Hendaian egiña, otsaillaren 28–1757.

Ene senar maitea,

Kausitzen gare osasuna parfait batian familia
 guzija, non desiratzen nuke zuria ere hala
 izaitea, eta kontiñuatzia, halaber, nere bihotz
 guzijaz. Izatu dut zuk egorri dautazun letra
 xanjia, non markatzen baititu berrogoi
 luis, zeinietan adrezatuba baita M' Manesco
 Miarritzkuarenganat. Beraz, izatu naiz jaun haren
 baitan, nola egorri dautazun, eta errepusta eman
 darot nola eztuben xanje egortzaille horrenganik
 deus funtsik erreçibitu, untzijak galdu direla,
 batzubek eta bertziak ez ageri non diren. Ez
 darot sinatu, ortarik hartuko ditutzu zure
 prekozijoneak. Ene espos maitea, egiñen duzu
 hahalik

<09.2v> hobekijena, ezen iduritzen zait
 pagatzeko borondaterik izatu balu sinatuko
 zubela. Afin, salutaten zaituzte zure burasuek
 eta anaia arrebak eta koiñatek, eta bertze ahaide
 eta adiskide guzijek, halaber milla goraintzi,
 osasuna on bat desiratzen dautzutela. Ene espos
 maitea, gelditzen naiz zure zerbitzari, zure
 ikusteko desira handi batekin.

/ Gaçina Diyarz.

10

Data: 1757/3/1

Non idatzia: Sara

Igorlea: Martin Borda

Hartzailea: Andreco Borda

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Labrador

A bertsioa

<10.1r> 67

A Monsieur / Monsieur andreco de Borda /
Marini^{er} demeurant a Larbador. / a terneuve
Maitre de Grave / Larbador

<10.1v> Saran eguina mar[choar]en lehenean
1757^{an}

/ Ene seme maitea hartzen dut libertate Çuri Bi
/ lerroren escribatceco etaÇuri gure familiaco
Berri / onen gastigatceco ossasuna dugu
jaincoari Esquer /^s eta desiratcen guinouque
denbora Berean Çuc / Ere hala Bacindu Çuc
jgorri letra chanya / Bat Baicen estugu erreçivitu
esdusquigou lannesec / sinatu nahi nola
Bouryessari jgorriada arretcholara / hadicaaco
gastigouarenBeha gaude esdaquigou Cer /¹⁰
gastigou çanendugun eta horco letra çhanyas
balia / Çaite possible Bada jgortcen darotçugou
Betri maingouarequin / athorraBat Bertceric ecin
aussarta gaitesque jgortcerat hunat / passatcera
eguicu ahal Badaguiçu anaya guanes Cortsuan
dabila / hirugarren Campainan guanada eta
aita Bera ere Bigarreanean /¹⁵ doha Cortsurat
joite handiBaten Beldurrean Berrogoi / untçi
donibanetic eta Bayonnatic badoha Corsurat /
orai artainocoan urus dabilla hemengo yendea
untçi Bat / Baicen estu hartu angeuessac hartu
Corsulariric eta / hartan Baciren Saratic Çortci
guicon Çure adisquide /²⁰ guciec guaraintci
etaparticlarqui amasso çaharrac
/ Cure Cerbitçari Martin /²² Borda

B bertsioa

<10.1r> 67

A Monsieur Monsieur Andreco de Borda
Marinier demeurant a Larbador, a Terneuve,
maitre de Grave. Larbador.

<10.1v> Saran egina, martxoaren lehenean,
1757an.

Ene seme maitea, hartzen dut libertate zuri bi
lerroren eskribatzeko eta zuri gure familiako
berri onen gaztigatzeko. Osasuna dugu Jainkoari
esker, eta desiratzen ginuke denbora berean
zuk ere hala bazindu. Zuk igorri letra xanja bat
baizen eztugu errezibitu; ez dauzkigu Lannesek
sinatu nahi. Nola burjesari igorria da Arretxolara,
handikako gaztiguaren beha gaude. Ez dakigu
zer gaztigu izanen dugun, eta horko letra xanjaz
balia zaitte, posible bada. Igortzen darotzugu
Betri Maingurarekin athorra bat, bertzerik ezin
ausarta gaitetzke igortzerat; hunat pasatzera egizu
ahal badagizu. Anaia Guanes kortsuan dabila,
hirugarren kanpainan guana da; eta aita bera ere
bigarreanean doha kortsurat, joite handi baten
beldurrean. Berrogoi untzi Donibanetik eta
Baionatik badoha kortsurat. Orai artainokoan
urus dabila hemengo jendea, untzi bat baizen
eztu angelesak hartu kortsularirik, eta hartan
baziren Saratik zortzi gizon. Zure adiskide guziek
goraintzi, eta partikulariki amaso zaharrak.

Zure zerbitzari, Martin Borda.

1v:9 *hadicaaco* : *handicaco* (aierua). 18 aditz nagusia bi aldiz da emana. Bata zein bestea dira posible, baina ez biak aldi berean. Bigarrena proposatzen dugu: *untçi bat baicen estu angeuessac hartu corsulariric*. 20 *guaraintci*: *goraintzi* irakur. <gu> g balio duen digrafoa lekukotzen ahal da tradizioan, eta gutuneria honetan ere.

11

Data: 1757/3/1

Non idatzia: Sempere

Igorlea: Maria Dihitx

Hartzailea: Haurra Maria Hiriart

Lotura: ama-alabak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<11.1r> 19

A Mademoiselle / Mademoiselle hiriart /
Basquesse / A Louis Bourg

<11.2r> A S'pée le premier mars 1757

/ Ene alaba maitea

/ jçatu dugu ohore iquesteco çuq monsieur / Diharci
Vicarioari jsquiribatu jçatu dioçun /¹⁹ Letra ceinetan
marquatcen baitcinioen / seigarren aldia cindubela
eta datatuba baitcen / goanden abendoaren
hamaseian, bai eta guerorrec / ere erreçibitu dugu
cure letra hainits placer / hartu dugu çure ossasunas
eta cure berri onen /¹⁰ jaquiteas guç ere bada
presentean ossasuna / dugu familia guciac jaincoari
esquerrac / gure orhoitçapençat jgorcen darotçut
çapata / parebat martin pillisen semearequin eta /
Desiratcen nuque hemedic joan cinen sentimendu
/¹⁵ beretan causitcen bacine othoisten çaitut çure
/ fideltasuna guardatceas eta hortic nihorat ere /
esairatceas ecen bertcetan ere bada cerbait escasia

<11.2v> eta badaçisu cembat samur tasun duben
/ amabatec bere umen aldera desiratcen nuque /
hainits cure jçustea baldin jaincac eguiten badu /
gracia baquearen eguiteco eta badaçiçu orobat
/¹⁹ ume batec badubela obligacionea buraso baten
/ obeditecco, beras hortaracots othoits eguiten /
darotçut neure ahal gucias guerla hunec / dirabeino
hor egoteas eta guero baquea eguiten den / pontutic
etçherat erretiratceas horra cer othoits /¹⁰ Dudan çuri
eguiteco eta desiratcen nuque / entçuna banins ene
othoisean / guelditcen naicelaric cure ama maitea /
eta fidella bihots samurres / bethea

/¹⁵ Maria Dihitx

2r:14 *hemedic* : *hemendic* irakur bedi. 2v:3 *jaincac* : kopia hutsa den 12. gutunean ere horrela datza.
Jaincoac proposatzen dugu.

B bertsioa

<11.1r> 19

A Mademoiselle Mademoiselle Hiriart,
basquesse. A Louisbourg.

<11.2r> A St. Pée, le premier mars 1757.

Ene alaba maitea,

Izatu dugu ohore ikusteko zuk Monsieur Diharci,
bikarioari, iskiribatu izatu diozun letra, zeinetan
markatzen baitzinioen seigarren aldia zindubela eta
datatuba baitzen goan den abendoaren hamaseian,
bai eta gerorrek ere erreçibitu dugu zure letra.
Hainitz plazer hartu dugu zure osasunaz eta zure
berri onen jakiteaz. Guk ere, bada, presentean
osasuna dugu familia guziak Jainkoari eskerrak.
Gure orhoitzapentzat igortzen darotzut zapata
pare bat Martin Pillisen semearekin, eta desiratzen
nuke hemendik joan zinen sentimendu beretan
kausitzen bazine. Othoizten zaitut zure fideltasuna
guardatzeaz eta hortik nihorat ere ez airatzeaz, ezen
bertzetan ere bada zerbat eskasia.

<11.2v> Eta badakizu zenbat samurtasun duben
ama batek bere umen aldera: desiratzen nuke
hainitz zure ikustea, baldin Jainkoak egiten badu
grazia bakearen egiteko. Eta badakizu, orobat,
ume batek badubela obligacionea buraso baten
obeditzeko. Beraz, hortarakotz othoitz egiten
darotzut, neure ahal guziatz, gerla hunek dirabeino
hor egoteaz, eta gero, bakea egiten den pontutik
etxerat erretiratzeaz. Horra zer othoitz dudan zuri
egiteko, eta desiratzen nuke entzuna banintz ene
othoitzean, gelditzen naizelarik zure ama maitea eta
fidela, bihotz samurrez bethea.

Maria Dihitx.

12 [11.aren kopia]

Data: 1757/3/1

Non idatzia: Sempere

Igorlea: Maria Dihitx

Hartzailea: Haurra Maria Hiriart

Lotura: ama-alabak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<12.1r> 75

La presente soit / Rendüe a haurramaria /
hiriart Basquesse / demurant presentement /
Louis Bourg / A Louis bourg

<12.2r> à St Pée le 1^{re} mars 1757

/ Ene alaba maitea

/ jçatu dugu ohore jqusteco çuq monsieur
/ diharci vicarioari jsquiribatujçatu dioçun
/ Letrea ceinetan marquatcen baitcinioen
/ seigarren aldia cindubela eta datatuba /
baitcen goanden abendoaren hamaseian /
bai eta guerorrec ere errecibitu dugu cure /
letra hainits plazer hartu dugu çure ossasun
/¹⁰ ossasunas eta cure berri onen jaquiteas
guq / ere bada presentean ossasuna dugu
familia gucia / jaincoari esquerrac gure
orhoitçapençat jgorcen / darotçut çapata
parebat martin pillisen / semearequin eta
desiratcen nuque hemed /¹⁵ hemendic
joan cinen sentimendu beretan / causitcen
bacine othoisten caitut cure / fideltrasuna
guardatceas etahortic nihorater / es airatceas
ecen bertcetan ere bada cerbait / escasia

<12.2v> eta badaquisu Cembat Samurtasun
duben / amabatec bere umen aldera
desiratcen nuqu / nuque hainits cure
jqustea baldin jaincac / eguitenbadu gracia
baquearen eguiteco /⁵ eta badaquiçu orobat
ume batec badubel / obligacionea buraso
baten obeditecco, beras / hortaracots othoits
eguiten darotçut neure / ahal gucias guerla
hunec dirabeino / horegoteas eta guero
baquea eguiten den /¹⁰ pontutic etçherat
erretiratceas / horra cer othois dudan çuri
eguiteco eta / desiratcen nuque entçuna
banins ene / othoiscean guelditcen naicelarie

B bertsioa

<12.1r> 75

La presente soit rendüe a Haurra Maria
Hiriart, basquesse, demurant presentement
Louisbourg. A Louisbourg.

<12.2r> À St. Pée, le 1^{re} mars 1757.

Ene alaba maitea,

Izatu dugu ohore ikusteko zuk Monsieur
Diharci, bikarioari, iskiribatu izatu diozun
letra, zeinetan markatzen baitzinioen
seigarren aldia zindubela eta datatuba
baitzen goan den abendoaren hamaseian, bai
eta gerorrek ere errezibitu dugu zure letra.
Hainitz plazer hartu dugu zure osasunaz
eta zure berri onen jakiteaz. Guk ere, bada,
presentean osasuna dugu familia guziak
Jainkoari eskerrak. Gure orhoitzapentzat
igortzen darotzut zapata pare bat Martin
Pillisen semearekin. Eta desiratzen nuke
hemendik joan zinen sentimendu beretan
kausitzen bazine. Othoizten zaitut zure
fideltrasuna guardatzeaz eta hortik nihorat
ez airatzeaz, ezen bertzetan ere bada zerbait
eskasia.

<12.2v> Eta badakizu zenbat samurtasun
duben ama batek bere umen aldera:
desiratzen nuke hainitz zure ikustea, baldin
Jainkoak egiten badu grazia bakearen
egiteko. Eta badakizu orobat ume batek
badubela obligacionea buraso baten
obeditzezo. Beraz, hortarakotz othoitz egiten
darotzut, neure ahal guziaz, gerla hunek
dirabeino hor egoteaz, eta gero, bakea egiten
den pontutik, etxerat erretiratzeaz. Horra zer
othoitz dudan zuri egiteko, eta desiratzen
nuke entzuna banintz ene othoitzean,
gelditzen naizelarik zure ama maitea eta

cure / ama maitea / eta fidella bihots samurres
/15 bethea
/ maria d'ihitx

fidela, bihotz samurrez bethea.
Maria d'Ihitz.

2v:3 *jaincac* : *jaincoac* irakurri behar da. Cf. *jaincac* 11, 2v:3.

13

Data: 1757/3/2

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Joanna de Salla

Hartzailea: Jean Caztillou

Lotura: auzoak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<13.1r> 84

A Monsieur / Monsieur Jean Caztilou / m^e de
grabe pour monsieur Laborde / a Luisbourg

<13.2r> A Guettary le 2 mars 1757

/ Ene hauco majtea / Prezentequo coury adicera
emaitequo Neure ossasunaren / Beria eta
denbora verean coure
famillarená ossasuná /^β Dougou jaincoary
esquer deciracen guindouque coubena / ala
jcaitea Neure semea joannis gomendacen
daucout / otoy coure qonpania oná Eguiteás
hauco onen / adisquidetacona hunetaquo
hourtetan da senalle / coure Esparancan
gueldicen Naiz Esparanca dout /¹⁰ coure
parteti q esdiocula faltatuquo halaber ene /
semea piarressy goraincy milla coure famillaq /
saloutacen saitou eta piarres hacharrenequoq /
Beré Biox gucias eta Naiz cure servicary joanná
/ Desallá

B bertsioa

<13.1r> 84

A Monsieur Monsieur Jean Caztilou, maitre de
grabe pour Monsieur Laborde. A Luisbourg.

<13.2r> A Guettary le 2 mars 1757.

Ene hauzo maitea, Presenteko zuri aditzera
emaiteko neure osasunaren berria, eta denbora
berean zure famillarena. Osasuna dugu
Jainkoari esker; desiratzen ginduke zubena
ala izaitea. Neure semea Joanis gomendatzen
dautzut otoi zure konpania ona egiteaz. Hauzo
onen adiskidetasuna hunetako hurtetan da
senalle; zure esparantzan gelditzen naiz.
Esparantza dut zure partetik ez diozula
faltatuko halaber ene semea Piarresi. Goraintzi
milla. Zure famillak salutatzan zaitu, eta Piarres
Hacharrenekok bere biotz guziaz. Eta naiz zure
zerbitzari, Joanna de Salla.

14

Data: 1757/3/2

Non idatzia: Sara

Igorlea: Martin Durruitz

Hartzailea: Domingo Durruitz

Lotura: aita-emeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<14.1r> 88

A Monsieur / Monsieur domingo / Durruitts
sarafais / dolhabide
/ A Luisbrorc

<14.2r> Eskribatua marçhoaren 2 saran 1757

/ Ene seme maitea / Eskribatçen darozquiçut
bilero Çuri / nere berien marçatçeco osasunadut
/¹ neure-famillia-guçiarequin jaincoari /
Esquer-Eta-denbora berean desiratçen /
nuque Çurea hala balitz Eta Çuc / Egoriac
Ereçibitutuçu hirur letra / Eta Çuc Egoriac
berçe gauçac ere Ere-¹⁰ çibitugu Eta Çure
Erecuntra / gaiçhtoez damuhandibathartu
/ dugu eta badaquigu damu hartu / Çarela
guc Çuri Letraric Ez Eguiteaz / bainan
Ezpaiquinaquien Loisborçquen ¹⁵ ala
Chebequen Çinen Eta Letra ezquina-/ quijen
norat jgor Eta piales Eregu-/ eren Çerbitçuanda
urthe bat bada / goana dela Eta martin gazte
cor-/ xurata goan Eta presan heldudela ²⁰
anguellesec harturic plemuanda <14.2v> hemen
udaldia pasatuduberedirua / Emanguidion
Eta halere bere ofiçioan / hasigabe corxurat
goançen eta çiquia / ere corxurat goancen
duela hogoi ¹ Egun Baijonatic Etçen beriric
agueri / oraino Eta jçeba jxaso garatecoa / hilçen
badu urthebat abançu / Eta jgorçen darozquiçut
urda / azpibat Eta luchainca-cenbeit ¹⁰ eta
andoilla bat biranda-Etçheberi-/ co betirequin
Çure çerbitçari / gueldiçennais cure aita / maitea
martin Durruittz

B bertsioa

<14.1r> 88

A Monsieur Monsieur Domingo Durruitz, Sara,
fais d'Olhabide.
A Luisbrorc.

<14.2r> Eskribatua martxoaren 2, Saran, 1757.

Ene seme maitea, Eskribatzen darozkituz bi
lerro zuri nere berrien markatzeko. Osasuna
dut neure famillia guziarekin Jainkoari esker,
eta denbora berean desiratzen nuke zurea
hala balitz. Eta zuk egorriak errezibitu tugu
hirur letra, eta zuk egorriak bertze gauzak ere
errezibitugu. Eta zure errekuntra gaixtoez damu
handi bat hartu dugu. Eta badakigu damu
hartua zarela guk zuri letrarik ez egiteaz, bainan
ezpaiquinakien Loisborçquen ala Quebec-en zinen
eta letra ezkinakijen norat igor...
Eta Piarres Erregeren zerbitzuan da, urthe bat
bada goana dela. Eta Martin gazte kortsutara
goan eta presan heldu dela, angelesekin harturik
Plemuan da. <14.2v> Hemen udaldia pasatu
du. Bere dirua eman gindion eta halere bere
ofizioan hasi gabe kortsurat goan zen. Eta
xikia ere kortsurat goan zen duela hogoi egun.
Baijonatik etzen berririk ageri oraino. Eta izeba
Itsasogaretekoa hil zen badu urthe bat abantzuz.
Eta igortzen darozkituz urdaiazpi bat eta
lukhainca zenbeit, eta andoilla bat, biranda,
Etçheberriko Betirekin.
Zure zerbitzari gelditzen naiz. Zure aita maitea,
Martin Durruitz.

1r *sarafais* : gaude *Sara*, *fil*s irakurri behar ote den. 2r:19 *corxurata* : posiblea da *cortsutara* zein *cortsurat* interpretatzea; lehena hautatzen dugu. 2v:2 *Emanguidion* : *eman guindion* irakur bedi.

15

Data: 1757/3/3

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Joanna de Castillou

Hartzailea: Jean Castillou

Lotura: aita-alabak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<15.1r> 61

Monsieur / Monsieur / Jean qastillou / Metre de Grabe / pour monsieur Laborde / a Louisbourg

<15.2r> Getharian egina marchoare 3 1757

/ Ene / aita maitia hartcendut libertade
Curi bi leroren / Esqribatceqo Eta denbora
berian Curi Ene osasunaren /^β beria aditcerat
Emateqo Cinetan ona baita Etadesiratcen /
bainuque Curia hala jcaitia cure qonpania
guciereqin batian / sallutatcen caitust Ene
bihotc gucias eta halaber / sallutatcen caituste
aispa nanaq Ceinetan miariscenbaita /
nesqato Eta domincheq eta qailantaq eta
goanahauraq /¹⁰ Eta dominiq mila gorainci
Eta areba chabadineq / Eta hiribarongo
ania arebeq eta baroineneqo familiaq /
mila gorainci hachareneqo familiaq mila
gorainci / goanapitioa chabadineneqoq
Eta bere alabaq mila / gorainci Eta othoi
gomendatcen darotcula haren /¹⁵ semia joanis
cure prudencias Esenpluonbatenemantias
/ bere burasoaren aldera miseria gucien
erdian horeq / sofritcen ditubeneq
Ematen dautedatela Enepenagucia / mila
gorainciamaq Eta arebaq Eta gaineraqo
cure / hauc ahaide adisqide gucieq mila
gorainci /²⁰ Ene aita maitia bihotces Curi
Erateqo hemengo dolore / Eta miseria
gucieqbaino gehiago afligitcenaute / Cuhor
gerlatriste huneqin jcanaq EtaCu jqusinahia_q
/ Cureberiq Escinjaqines hiltcerat goasguciaq

<15.2v> Ene aita maitia Egicu bethi quraie
Ceruqo aitaq bethi / jcaren du gure artha Eta
Cure doloreguciaq ofregi / diotcotcu jnqoari
ahaliq hobeqiena Cure horqo / dolorieq

B bertsioa

<15.1r> 61

Monsieur Monsieur Jean Qastillou, metre de grabe pour Monsieur Laborde. A Louisbourg.

<15.2r> Getharian egina, martxoaren 3, 1757.

Ene aita maitia, hartzen dut libertade zuri
bi lerroren eskribatzeko eta denbora berian
zuri ene osasunaren berria aditzerat emateko,
zinetan ona baita, eta desiratzen bainuke
zuria hala izaitia, zure konpania guziarekin
batian. Salutatzen zaitut ene bihotz guziaz,
eta halaber salutatzen zaituzte aizpa Nanak,
zeinetan Miarritzen baita neskato. Eta
Dominxek eta Kailantak eta Goana Haurrak
eta Dominikak mila goraintzi. Eta arreba
Xabadinek eta Hiribarongo ania-arrebek
eta Baroineneko familak mila goraintzi.
Haxarreneko familak mila goraintzi; Goana
Tipitoa Xabadinenekoak eta bere alabak mila
goraintzi, eta othoi gomendatzen darotzula
haren semia Joanis zure prudentziaz esenplu
on baten ematiaz. Bere burasoaren aldera,
miseria guzien erdian, horrek sofritzen
ditubenek ematen dautedatela ene pena
guzia. Mila goraintzi amak eta arrebak, eta
gainerako zure auzo, ahaide, adiskide guziek
mila goraintzi. Ene aita maitia, bihotzez zuri
errateko hemengo dolore eta miseria guziek
baino gehiago aflijitzen naute zuhor gerla
triste huneekin izanak eta zu ikusi nahiak;
zure berriak ezin jakinez hiltzerat goaz
guziak.

<15.2v> Ene aita maitia, egizu bethi kuraie;
zeruko Aitak bethi izaren du gure artha;
eta zure dolore guziak ofregi diotzotzu
Jinkoari ahalik hobekiena. Zure horko

Ematen dute Ene bihotcian penariqhandiena
 /⁵ agerida ginqoaq horla plazer dubela
 qonplibedi / bada bethi jaunaren borondatia
 goanden urthian / Egori darosquitcut
 corciletra Eta Estaqit jcatu / othe ducun
 batere hiriartenas landan gastiatu / narotcun
 supreni escintescen nola mahitcheneqo /¹⁰
 semia Esposatuden butuneneqo alabarequin
 dioelariq / Escarotcula Eman hitciq Eta trufatu
 cindubela / Eta senqriqeneqo premuba
 Ere esposatuda / danielen arebareqin hauq
 marqatcen darosqitcut / Es nahis curi hutsiq
 Eta damuriq Egin batere /¹⁵ horietas Esdolora
 batere Ceren jnqoaq premetitcen / baiqitu
 horiec gucia qomeni estiren gaucetan / Estut
 presentian deus berceciq Curi cer gastia /
 baiciq Ere naisela gelditcen Cure Cerbitcari /
 Cure ume naisen becalaqo miserabilia orai Eta
 /²⁰ bethi bihos Eta borondate ones Eta Escin
 pagatube_s / bethia joanna de qastillou

doloriek ematen dute ene bihotzian penarik
 handiena. Ageri da Jinkoak horla plazer
 dubela; konpli bedi, bada, bethi Jaunaren
 borondatia. Goan den urthian egorri
 darozkitzut zortzi letra, eta eztakit izatu
 othe duzun batere. Hiriartenaz landan,
 gaztiatu narotzun supreni etzintezzen
 nola Mahixeneko semia esposatu den
 Butuneneko alabarekin, dioelarik eztarotzula
 eman hitzik, eta trufatu zindubela. Eta
 Senkrikeneko premuba ere esposatu da
 Danielen arrebarekin. Hauk markatzen
 darozkitzut, ez nahiz zuri hutsik eta
 damurik egin batere. Horietaz ez dolora
 batere, zeren Jinkoak premetitzen baikitu
 horiek guziak komeni eztiren gauzetan.
 Eztut presentian deus bertzerik zuri zer
 gaztia, baizik ere naizela gelditzen zure
 zerbitzari. Zure ume naizen bezalako
 miserabilia, orai eta bethi, bihotz eta
 borondate onez eta ezin pagatubez bethia,
 Joanna de Qastillou.

2v:11 *Escarotcula* : irakur bedi *estaratcula*. Herskarien arteko batetortzea gertatu da hemen, nahiz fenomenoaren testuingurua hitz bukaera den; cf. *baiqitu* 'baititu' ondoko oharrean. 16. *baiqitu* : uler bedi *baititu*. *gucia* : *guciac* irakur; menturaz herskaria ez da grafiatu ondoko hitzaren hastapeneko *qo*-ren eraginaz.

16

Data: 1757/3/7

Non idatzia: Senpere

Igorlea: Joanes de Matet

Hartzailea: Joannes de Matet

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<16.1r> 107

Lapresente soit / rendüe a joannes / dematet / A
Louis Bourg

<16.2r> A St pée le 7 mars 1757

/ Ene semea

/ Ohore dugu curi presenteco letra hunen /
jgorceco eta dembora berean gure berrien
marcatce^o /^f osasuna dugu familia guciac
jainkoari esker eta / Desiratcen daroçugu curi
ere osasun bera guc dugun / beçala baldin
jainkoari conbeni baçαιο eta / desiratcen
guinduce cure jqustea cure anaiac / othoisten
çaitu çuben arteco duçubenjrabacia /¹⁰ edo
ontasuna lechu on eta escu segur batetan / hor
usteas badaquiçula cer jrrisqulitequen orai /
eta den angelesarençat eta cerorri nihola ere /
posible bada jrrisca çaitçiilla alderdi huntarat
/ pasatcerat aguian jaincoac eguinen darotçulla
/¹⁵ pasatceco gracia salboric eta bera corsuban
/ dabila baionnatic adiu ene semea / cure
serbitçari guelditcen gare gure bihots gucias / ni
aita eta ama eta bai haurride guciac eta ^ahaide /
eta adisquide guciac

/²⁰ joannes de matet

B bertsioa

<16.1r> 107

La presente soit rendüe a Joannes de Matet. A
Louisbourg.

<16.2r> A St. Pée, le 7 mars 1757.

Ene semea,

Ohore dugu zuri presenteko letra hunen
igortzeko eta denbora berean gure berrien
markatzeko. Osasuna dugu familia guziak
Jainkoari esker, eta desiratzen darotzugu zuri
ere osasun bera guc dugun bezala, baldin
Jainkoari konbeni bazaio, eta desiratzen
ginduke zure ikustea. Zure anaiak othoizten
zaitu zuben arteko duzuben irabazia edo
ontasuna lekhu on eta esku segur batetan hor
uzteaz, badakizula zer irrisku liteken orai, eta
den, angelesarentzat; eta zerorri, nihola ere
posible bada, irriska zaitezila alderdi huntarat
pasatzerat, agian Jainkoak eginen darotzula
pasatzeko grazia salborik; eta bera korsuban
dabila Baionatik. Adiu ene semea, zure
zerbitzari gelditzen gare gure bihotz guziaz, ni
aita, eta ama, eta bai haurride guziak eta ahaide
eta adiskide guziak.

Joannes de Matet.

17

Data: 1757/3/9

Non idatzia: ?

Igorlea: ?

Hartzailea: Bernat Aroqi

Lotura: auzoak?

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<17.1r> 94

persenteqo letra hau Eren / Datuco caigo
bernat aro / qiry a lurjs burcq / Lurjsburcq

<17.1v> Marsoaen 9 egina 1757

/ Bernat dearoqi harcendut libertate hemen
cerba_{pa} / sacen den cury adiaracteqo hortiq
ethoricaiqunber- / j tiristia gucq guti
ustecaberi ethory ciçaiqun cure /¹⁸ jceba goan
martin coennecqoc gastigacendauc / Estaqigu
cehetassunnjc gehigago baldin cuq hunat /
deusjq escirbattu edo gastigatu badauqucuere
estugudeusic / aditu allabainan cucen eta justu
den becala curebaita[n] / dugu Esparanca ene
seme defuntu cena cure compaini /¹⁹ gan eedo
cure sumicjgonnecogo cenacs gerosticq otoict- /
Encaitut cure cussina goanes defuntucenaen
jcate / Edo mojjana horgelditudenas contu edo
arta jduqicia_s / Etahortic ahalic lasterena hunat
hedaceas

/Esteben Ecgoraincj /¹⁵ halalaber berna gaucabera
gactigacendauc curjbelx / cenaen Emastiac otoi
curebaitan dubere Esparanca Eta / Eta orobat
cusina goanes defuntu cenaencat becalaharen
/ callupamasturbaencatere horduben mojjan
edoontasunas / contu Eta arta bera jçatias eta
Lehen ba Lehen hunat /²⁰ hedaceas cure crbicary

B bertsioa

<17.1r> 94

Persenteko letra hau errendatuko zaijo Bernat
Aroqiri, a Lurisburcq. Lurisburcq.

<17.1v> Marsoaen 9 egina, 1757.

Bernat de Aroqi, hartzen dut libertate hemen
zer pasatzen den zuri adiarazteko. Hortik
ethorri zitzaikun berri tiristia guk guti
ustekaberik ethorri zitzaikun. Zure izeba Goan
Martinkoenekok gaztigatzen dauku. Eztakigu
zehetasunik gehijago, baldin zuk hunat deusik
eskirbatu edo gaztigatu badaukuzu ere eztagu
deusik aditu. Alabainan, zuzen eta justu
den bezala, zure baitan dugu esparantza ene
seme defuntu zena zure konpainijan edo zure
sumizijonekogo zenaz geroztik. Otoizten zaitut
zure kusina Goanes defuntu zenaen izate edo
mojjana hor gelditu denaz kontu edo arta
idukitziat, eta hortik ahalik lasterrena hunat
hedatzeaz.

Estebenek goraintzi. Halaber, Bernat, gauza bera
gazitgatzen dautzu Zuribeltz zenaen emaztiak,
otoi zure baitan du bere esparantza, eta orobat
kusina Goanes defuntu zenaentzat bezala haren
kalupa masturbaentzat ere hor duben mojjan
edo ontasunaz kontu eta arta bera izatiaz, eta
lehenbalehen hunat hedatzeaz. Zure zerbitzari.

1r *caigo* : egile honek <g> grafemaz zerbitzaten da /j/ irristariaren balioa adierazteko. Gutunean zehar
zaigo, *moigan*, *konpainigan*, *gehigago*, *sumizigoneko*.

Gainerateko testuetan halako epentesiak maizenik <j>, <i> grafiekin adierazten dira. 1v:10 *eedo* : horrela.
15 *halalaber* : horrela. 18 *callupamasturbaencatere* : 'kalupa masturbaentzat ere'.

18

Data: 1757/3/10

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Maria de Lamarq

Hartzailea: Bernat de Lupoy

Lotura: ama-emeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsoia

<18.1r> 124

Lapresente lettre soite / reandeue a Bernat
/ de Lupoy çhentiqa / a Louisbourg de
Louis[bourg]

<18.2r> fait aguethary, cé 10 Marz 1757

/ Enne seme maitea gastiaxen dauxut / milla
gorainxy Estut Erreçibitu çure / ganiq aurten
Es Letrariq Es çolament /^s gorainxibat jçatu
ditut 2tt ahex / Bordaganiq chanpeletaço
Eta Egorxen / dausquixut çhanpelaq
çançingorrieneqo / jaunarequin

/ gueldixen nais cure ama allargun /¹⁰ gaçhoa
çure çerbitçary mariade / Lamarq

B bertsoia

<18.1r> 124

La presente lettre soite reandeue a Bernat de
Lupoy Chentiqa, a Louisbourg. De Louisbourg.

<18.2r> Fait a Guethary, cé 10 Marz 1757.

Ene seme maitea, gaztiatzen dautzut milla
goraintzi. Eztut erreçibitu zureganik aurten ez
letrarik ez solament goraintzi bat. Izatu ditut
2 libera Ahetz Bordaganik xanpeletako, eta
egortzen dauzkitzut xanpelak Zanzingorrieneko
jaunarekin.

Gelditzen naiz zure ama alargun gaxoa, zure
zerbitzari, Maria de Lamarq.

19

Data: 1757/3/12

Non idatzia: Sara

Igorlea: Joannes d'Etcheverry

Hartzailea: Joannes d'Etcheverry

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<19.1r> 24

Monsieur / Monsieur Joannes D Etcheverry /
Marinier demeurant a Louisbourg / pour Mieux
dire fils de la maison / de Maiteguenia de Sare a
present / a Louisbourg / Louisbourg

<19.2r> Sare le 12^m Mars 1757

/ Eneseme Maitea Errecibitudut çure letra
abenduaren / hogoi eta borcian Eguina ceinac
Marcatu baitarotçu / çure ossassuna ona,
guissaberian ossassuna onbatean /⁵ caussitcen
baicare gubere Jaincoaresquer, Errecibitu dugu
/ çure letra chanja 919^m liberaco bat ceina
placer han / dia hartu baitut arribatu denean
hainberce arriscuren / ondoan, baldin harcen
baduçu deliberacioneriq etcherat / Ethorceco
francian barna harçaçu mando gaztebat /¹⁰ lau
urtetaco çure eta çure bagaijen echarceco eta
ustedut / despendioac atheraco tutçun, amac
milla goraincy eta / cure haurridec eta çure
ahaidec eta adisquidec eta / hauço guciec,
finean guelditcen naiz çure aita eguiaczua / eta
fidella bicinaiceino

/¹⁵ Joannes d'Etcheverry

B bertsioa

<19.1r> 24

Monsieur Monsieur Joannes d'Etcheverry,
marinier demeurant a Louisbourg, pour mieux
dire fils de la maison de Maiteguenia de Sare, a
present a Louisbourg. Louisbourg.

<19.2r> Sare, le 12^{eme} mars 1757.

Ene seme maitea, errezibitu dut zure letra
abenduaren hogoi eta bortzian egina, zeinak
markatu baitarotzu zure osasuna ona. Gisa
berian, osasuna on batean kausitzen baikare
gu bere Jainkoar'esker. Errezibitu dugu zure
letra xanja, 919 liberako bat zeina plazer
handia hartu baitut arribatu denean, hainbertze
arriskuren ondoan. Baldin hartzen baduzu
deliberazionerik etxerat ethortzeko, Frantzian
barna hartzazu mando gazte bat lau urtetako,
zure eta zure bagaijen ekhartzeko, eta uste
dut despendioak atherako tutzun. Amak milla
goraintzi, eta zure haurridek eta zure ahaidek
eta adiskidek eta hauzo guziek. Finean,
gelditzen naiz zure aita egiazkua eta fidela bizi
naizeino.

Joannes d'Etcheverry.

20

Data: 1757/3/13

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Mari Darburu

Hartzailea: Marie Harboure

Lotura: ama-alabak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<20.1r> 27

A Mademoyselle / Mademoyselle Marie
harboure ^{duhalde} / demeurent ches Monsieur de
Laborde / Trezorier Du roy / Louizbourq

<20.2r> Donibanen eguina marxoanen 13

/ Ene haur maitea estinat faltatu nahi hiri /
ene berijac marcatu gabe cenac eraten baitun
/ estunala aspaldijon gure beriric jcatu hanbat
/ ^ggastoago gurexat nic eguin dausquinat beti
/ unsi gusietan letrac eta hic es jsatu estun /
beras ene faltaric egori dinat bat lanxecanetu^m
/ bersea hire cusina defuntubarequin cenac
etori / baixen miselequin bajonarar gasoa
eta egori /¹⁰ naunan harequin berajnquin
mantalina angelet / acoa ungi fina bere eribana
eta siricubarequin / cenac hire matantac
churunecoac cuxan sartu / omen baixuben
eta berce bi letra patineneco / siburucu
premubarequin cenac egun angeletaran /¹⁵
baita gasoa Ene haur maitea badin hilhunen
/ hogoy eta sejean exetit partitu hinxela
egundano / hirur urte egundano estinat jsatu
oren laurden / baten erepausuric basaquinat
gusijac ene / faltat direla cenac ene becatubac
handijac /²⁰ baitire banan esparanxa dinat
jeancoac / misericordia jsanen dubela nitaz
cergatit / ene uste gusijan ungi harcen tinat
eta / adixen tugunaren arabera estela posible
/ salbaxea hemen non estugun becatuba /²⁵
purgaxen beras esparanxan nijagon / jencoac
estausquidala bi pena emanen / ene haur
maitea dominica comentuban / esquibas
cuxaturic exerat etori sijaetanen / ganxen
hirur jlabeteren buruco marascas /³⁰ eta ni
gaixarequin eta gabearquin anaja / bisentec
jusiric ene sangrin handija / hamabors libera
eman sitinan bere / bartetit saflentxat eta
orano hanix / behar aita laurenxec aituric ene

B bertsioa

<20.1r> 27

A Mademoyselle Mademoyselle Marie
Harboure, demeurent ches Monsieur de
Laborde, trezorier du Roy. Louizbourq.

<20.2r> Donibanen egina, martxoanen 13

Ene haur maitea, ezinat faltatu nahi hiri
ene berrijak markatu gabe, zenak erraten
baitun eztunala aspaldijon gure beriric
izatu; hanbat gastoago gureztat. Nik egin
dauzkinat beti unti guzietan letrak, eta hik
ez izatu. Eztun, beraz, ene faltarik. Egorri
dinat bat Lantzekaneturekin, bertzea hire
kusina defuntubarekin, zenak etorri baitzen
Miselekin Baionarat, gasoa, eta egorri naunan
harekin berainkin mantalina Angeletakoa
ungi fina, bere erribana eta zirikubarekin,
zenak hire matantak Xuruneakoak kutxan
sartu omen baitzuben; eta bertze bi letra
Patineneko Ziburuko premubarekin, zenak
egun Angeletarran baita, gasoa. Ene haur
maitea, badin hil hunen hogoi eta seiean etxetit
partitu hintzela egundano hirur urte. Egundano
ezinat izatu oren laurden baten errepausuric.
Bazakinat guzijak ene faltat direla, zenak ene
bekatubak handijak baitire, banan esparantza
dinat Jenkoak miserikordia izanen dubela nitaz,
zergatit ene uste guzijan ungi hartzen tinat,
eta aditzen tugunaren arabera ezela posible
salbatzea hemen, non ez tugun bekatuba
purgatzen. Beraz, esparantzan nijagon Jenkoak
eztauzkidala bi pena emanen. Ene haur maitea,
Dominika komentuban ezkibaz kutsaturik
etxerat etorri zijaetanen. Gan tzen hirur
ilabeteren buruko marraskaz, eta ni gaitzarekin
eta gabearrekin. Anaia Bisentek ikusirik ene
sangrin handija hamabortz libera eman zitinan
bere bartetit saflentzat, eta orano hanitz behar.
Aita Laurentzek aiturik ene

<20.2v> dolore handijac exerat etori sixaitanen / bera bere pesunan gaisoa esqueletaric / hela ganincenenean hura nonxare ene / afijutu gasoa harxasu curaje jsanen dut /^f nic çure habraren sendaxecoa beharden / gusija emansinan asquenean paruca eta / sapela eta galderdi pare berijac eta begui / suri baitacoec neroni ganic sapata pareberijac / eta bi atora olal pesatit hec pagaxe cotan /¹⁰ aita laurenxec gastijaxen daun gorainxi / eta jeancoari gomendaxen habela eta / letra bat egin diosanalá falta gabe / anaja bisentet ere bai gorainxi mila mila / eta otoisten haute nitas oroit hadiela /¹⁵ jencoac benedicatuco habela ene haur ma^{ica} / ene haur maitea badaqu ganis exerat / nola etoricien sarpan borsoseqin eta esquijes / esquebias betea bisajarano presune exiru ^{ann} (†) / besala exaquinat bisiric nola egotu /²⁰ ninxen hura jcusi nubenean gasoa / eta neronj jop besala asdiapat gabe / egundano besala aita laurenxec / aituric hurere sendarasi sinan beharden / gusija emanic cenac bijac gusta baitire /²⁵ larogoy libera pasaturic eta nirijsere / socolotat eta masapanac eta biscoxac / gaisoac egorcen sijauquidan denboratit denborara / secular estinan pagatuco haren borondatea / bisi naisseno banan sendubec asco hortaco eguit- /³⁰ en diten diten salbaxeco eta hura halacoa dun / ene haur maitea ganisona ganxunan / corxura eta angeleseç harturic exatu sistenen / espanijarat lisibona eratendioten portu / batera senac gasoa etori baixen ones /³⁵ berehun lecoatan bere lagunequin / pilala trjste batean exunan hura jcusteá <20.3r> baicis berxe miraculuric bulus gorija huren / egundano besala candeguietaco jaunarequin / egin sunan gasoa eraten sautalaric jea / hemen cer eguinen ene sangrinaxen miserija /⁵ huntan eta beti sor egujten ene haur maitea / conxarat ateratu bela eguiteco eta adi ene / haur maitea costara santabarraco aroca ganer⁶ / gusijec exitu gerostit jeancoac espacatu / etea bergina ama maiteac aiseago condaxen /¹⁰ daunat pasatududan bano ene trublea / ene haur maitea orai beris gan sijaitan / bajonatit badin partitu dela hogoy eta / sorsiegun estinat deusere beriric hemexce / nijagon jeancoaren esparanxan harc plaser /¹⁵ duben gusiaren erebixeco ene haur maitea / dominjca abijatu sijaitan harcere gan behar / dubela corsura aita grafleti eraten sijon / duacola maseterearj minxaxera hardesala / corxura minxatu dubenean bajex gogotit /²⁰ ere beras harequin sioan gasoa orai laster / ene ama maitea gurexat estuxu asqui arebac / egorxen

<20.2v> dolore handijac etxerat etorri zitzaitanen bera bere pesunan, gaisoa esqueletaric, eta gan nintzenean, hura: “Non tzare, ene afijutu gasoa? Hartzazu kuraie, izanen dut nik zure habraren sendatzekoa behar den guzija”. Eman zinan azkenean parruca eta sapela eta galderdi pare berrijac; eta Begizuribaitakoek neroni ganik zapata pare berrijac eta bi atorra, oihal pezatit hek pagatzekotan. Aita Laurentzek gaztijatzen daun goraintzi, eta Jenkoari gomendatzen habela, eta letra bat egin dioanalá falta gabe. Anaia Bisentet ere bai goraintzi mila-mila, eta otoizten haute nitaz oroit hadiela, Jenkoak benedikatuko habela, ene haur maitea. Ene haur maitea, badakin Ganis etxerat nola etorri zen sarpan bortz sosekin eta ezkebias betea bisajarano, presune etzirunan (†) bezala; etzakinat bizirik nola egotu nintzen hura ikusi nubenean, gasoa! Eta neroni, Jop bezala, asdiapat gabe... Egundano bezala, aita Laurentzek aituric hur'ere sendarazi zinan behar den guzija emanik, zenak bijac gusta baitire larogoi libera pasaturic. Eta nirijsere sokolotat eta mazapanak eta biskotxak gaisoak egorzten zijaukidan denboratit denborara; sekulan ezinan pagatuko haren borondatea bizi naizeno. Banan sendubek asko hortako egiten diten salbatzeko, eta hura halacoa dun. Ene haur maitea, Ganis ona gan tzunan kortsura, eta angeleseç harturic etxatu ziztenen Espanijarat, Lisibona erraten dioten portu batera, zenak gasoa etorri baitzen onez berrehun lekoatan bere lagunekin pilala triste batean. Etzunan hura ikusteá <20.3r> baizik bertze mirakuluric, buluzgorrija hurren! Egundano bezala, Kandegiletako jaunarekin egin zunan gasoa, erraten zautalaric jea hemen zer eginen ene sangrinatzen miserija huntan, eta beti zor egiten. Ene haur maitea, Kontxarat ateratu bela egiteko eta adi, ene haur maitea, kostara Santabarraco arroka ganera guzijek etsitu geroztit Jenkoak espacatu, eta Berjina ama maiteak aiseago kondatzen daunat pasatu dudán bano ene trublea. Ene haur maitea, orai berriz gan zijaitan Baionatit; badin partitu dela hogoi eta zortzi egun. Eztinat deusere berririk; hementxe nijagon, Jenkoaren esparantzan, hark plazer duben guziaren errezebitzeko, ene haur maitea. Dominika abijatu zijaitan hark ere gan behar dubela kortsura. Aita Grafleti erraten zijon duakola masetereari mintzatera, har dezala kortsura. Mintzatu dubenean baietz gogotit ere, beraz harekin zioan gasoa:

tuben diru gusijac eta cerori miserija / hortan
asajatu behar dut nic ere çure lagunx^{era} /
ene haur maitea jsatu tinat behin hirur /²⁵
hogoy libera eta berxe behin larogoy libera
/ estauquinat gastijaxen ene sangrin gusijac
/ cergatit hi urrun baitaut eta badinat hire
/ behara jeancoac usten nabeno ene haur
/ maitea begui suri baitaco marilantat /³⁰
perxecutatuba nijalabin jcaten dudala /
diruba franco hire ganic eta paga desadala /
edo hi gastija haren pagaxeco hic egorxeas /
badacinala dirubac eman sauquinala gurexat
/ fantesijan sastuba dun letra eguin dautela
/³⁵ eta hic es erepustaric eguin nic pacaxen /
tinat gusijac jencoac nahi baitu horla

<20.3v> estebenic gorainxi mila eta egorxen
dau / bileta bat letra hunen barnean lahitunen
/ semijarenxat eran dionasala pagamendu /
hori eguin disosala sor justuba duben besala
/⁵ ene haur maitea ganisec eta ganabrac / jcatu
diten disputa ganabrac aitu dubela / esconxen
haisela toqui gusijetan eta / ganisec esex eta
nic eman dinat bacea / jeaincoas landan ni
ama naisela eta /¹⁰ nic jeacin behar dudala
lehenic eta / orduban jacinen dutela jea hala
den / es ala bai jeancoac eracuxico daun cer
eguin / eta bergina maiteac aguijan ene otojxa
/ aditucodin ene har maitea hiri cer jspira /¹⁵
gorainxi osaba sastiluri mila damu dudala /
haren afesioneas gusijac jeancoac uquitu /
nahi gaitubela haren familac osasuna / dubela
ene haur maiteac gorainxi granganec / eta
ganisec eran sijautanen hire gorainxijac /²⁰
emateco falta gabe dominjnicac ere gorainxi
/ mila mila eta jeancoari gomenda disinala /
ganabrac ere mila mila gorainxi eta / generaco
ahaideta adisquide gusijec / ene haur maite
maitea geldixen naun /²⁵ hire ama mait maitea
tombarano / mari darburu / ene haur maitea
enaquinan nola eman / mila saspì ehunac

“Orai laster, ene ama maitea, guretzat ez tuztu
aski. Arrebak egortzen tuben diru guzijak eta
zerori miserija hortan, asaiatu behar dut nik
ere zure laguntzera”. Ene haur maitea, izatu
tinat behin hirur hogoi libera, eta bertze behin
larogoi libera. Eztauzkinat gatzijetzen ene sangrin
guzijak, zergatit hi urrun baitaut eta badinat
hire beharra Jenkoak uzten nabeno. Ene haur
maitea, Begizuribaitako Marilantat pertsekutatuba
nijalabin, izaten dudala diruba franco hireganik,
eta paga dezadala edo hi gatzija haren pagatzeko
hik egortzeaz, badakinala dirubak eman
zaukinala guretzat. Fantesijan sastuba dun letra
egin dautela, eta hik ez errepustarik egin nik
pakatzen tinat guzijak, Jenkoak nahi baitu horla.

<20.3v> Estebenic goraintzi mila, eta egortzen
dau bileta bat letra hunen barnean, Lahitunen
semijarentzat, erran dionazala pagamendu
hori egin dizozala, zor justuba duben bezala.
Ene haur maitea, Ganisec eta Ganabrac izatu
diten disputa, Ganabrac aitu dubela ezkontzen
haizela toki guzijetan, eta Ganisec ezetz, eta
nik eman dinat bakea, Jainkoaz landan ni ama
naizela, eta nik jakin behar dudala lehenik, eta
orduban jakinen dutela jea hala den. Ez ala bai,
Jenkoak erakutsiko daun zer egin, eta Berjina
maiteak agijan ene otoitza adituko din, ene
haur maitea, hiri zer ispiri. Goraintzi osaba
Sastiluri, mila damu dudala, haren afezioneaz
guzijak Jenkoak ukitu nahi gaitubela; haren
familak osasuna dubela. Ene haur maiteak,
goraintzi Granganec eta Ganisec, erran
zijautanen hire goraintzijak emateko falta gabe.
Dominikac ere goraintzi mila-mila, eta Jenkoari
gomenda dizinala. Ganabrac ere mila-mila
goraintzi, eta generaco ahaide eta adiskide
guzijek. Ene haur maite-maitea, gelditzen naun
hire ama mait-maitea tonbarano. Mari Darburu.
Ene haur maitea, enakinan nola eman mila
zazpi ehunac.

Ir *duhalde* : beste esku batek idatzia. 2r:7 *lanxecanetu*^m : irakur bedi *Lanxecaneturequin* (antroponimo bat). 2v:3 *ganincenenean* : irakur *gan nintzenean*. *hela* : irakur *eta*. 2v:4 *afijutu* : *aflijitu* espero genuke. 2v:9 *olal* : irakur *oihal*. 2v:16 *badaqun* : *badaquin*. 2v:21 *asdiabat* : uler bedi *ardit* bat; *ardit* ‘balio txikiko sos bat’. Cf. *sastuba* ‘sartua’ (3r: 34). 2v:30 *diten ditin* : duplografia. 3r:9 *etea* : irakur *eta*. 3r :15 *erebixeco* : irakur *errezibitzeko*. 3v:1 *dau* ‘daun’. 3v:14 *har* : irakur *haur*. 3v :20 *dominjnicac* : duplografia; irakur *Dominicac*.

21

Data: 1757/3/14

Non idatzia: Ziburu

Igorlea: Jean Lafitte *Bourguignon*

Hartzailea: Joanis Lafitte *Bourguignon*

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Niganiche

A bertsioa

<21.1r> 39

La presente sera Rendue / a Joanix Laffitte, dit / Bourguignon, Marinier / a present al'isle Royale / a Niganiche

<21.2r> Asibourelle 14^e Mars 1757.

/ Enese maitea presenteco Comoditateas baliatcen / nais letra haur çuri escribatceco, Eta curi errateco / nahi nausquitçula cembait tresna egorri, baiñan /⁵ guciec guibelatu naute erraten Dutela Beharbada / Eta segurqui, hortik partitua çarela, mentura hortan / esdausquitçut egorri

/ Çuc egorri cignautan letradechangeas, es nais / pagatuba issatu cergatic hura pagatu behar çubenac /¹⁰ baitio Es çubela haren Eguilliaren funcic, / Famillia Guaciec ossasuna dugu Jainkoari Esquer / aguian Çuc ere haladuçu, Guaciec milla goransi / dautçute, Mandataria pressatua da, hargatic es dautçut / Chehetassun guehiago eguiten, nais Eta aita erebay /¹⁵ cure aita eta ama samurrac

/

Jean Lafitte eta Jeanneton

/ Micho bourguignon

B bertsioa

<21.1r> 39

La presente sera rendue a Joanix Laffitte, dit Bourguignon, Marinier a present a l'Isle Royale. A Niganiche.

<21.2r> A Ciboure, le 14^e mars 1757.

Ene seme maitea, presenteko komoditateaz baliatzen naiz letra haur zuri eskribatzeko, eta zuri errateko nahi nauzkitzula zenbait tresna egorri, baiñan guziek gibelatu naute, erraten dutela beharbada, eta segurki, hortik partitua zarela; mentura hortan ez dauzkitzut egorri.

Zuk egorri ziñautan *lettra de change*-az, ez naiz pagatuba izatu, zergatik hura pagatu behar zubenak baitio ez zubela haren egilliaren funtsik. Famillia Guziek osasuna dugu Jainkoari esker, agian zuk ere hala duzu. Guziek milla gorantzi dautzute. Mandataria presatua da, hargatik ez dautzut xehetasun gehiago egiten, naiz eta aita ere bai.

Zure aita eta ama samurrak,

Jean Lafitte eta Jeanneton Micho Bourguignon.

22

Data: 1757/3/14

Non idatzia: Sara

Igorlea: Joanna de Bidart

Hartzailea: Joannes d'Etcheto

Lotura: ama- semeak

Helmuga: Innaniz (= Niganiche)

A bertsioa

<22.1r> 172

presenteco leta hau / errendatuco caijo joannes
/ detcheto sara olhaco / errotaco semmeari / a
jnnaniz jnnaniz

<22.2r> Eskribatua marzoaren 14 saran 1757

/ Enne semme maitea harçendut libertate / Curi
bilerroren marcaçeco osassunadut jain / coari
Escer nere fammilla guziarecin Ceineta[n] /^β
dessiraçen bainuque Curea halla baliz denbora
/ berean gorainçi Cure arrebec eta Coinnatac
eta / amaçhic eta jcebec eta Cussinec eta ahaide
adi[s] / cide guçiec dolloratuac gara hagiz
jçatudu / gun berritristeaz har^{en} gauçac ahalic un
/¹⁰ gui alchaturic hunat pasaçerat Eguïçu lehen /
biçico Comoitatean Ceren nihor gabe Causicen
baica / ra Catalin eta bibioc gara eta maria eta
arran / goiçen guelditudire hunat passaçerat
Eguïçu Ceren / helduden neguco Ezbaçaïçaigu
ethorcen uz aha /¹⁵ l baitecaquegu errota

<22.2v> letrahau hirur garrena Egorçen
dugu xxx / jgorcen darosquiçug beti bianda
Echeberricoarrequin / Luqainca pusca baçuec
Ez dugu passajaric jean / deussen Egorçeco eta
mari maite argainenecoc /^β gorainçi finnean
gueldicennaiz eta Cure ama / fidela Cure
Ceriçari joanna xx debidart

1r *leta* : horrela. 2r:9 *haren* : posible da *haren* posesiboa zein *harren* 'otoi' interpretatzea. Dudazko hautu bat egiten dugu bigarrenaren alde. 2v:2 *darosquiçug* : horrela.

B bertsioa

<22.1r> 172

Presenteko letra hau errendatuko zaijo Joannes
d'Etcheto, Sara, Olhako errotako semeari, a
Innaniz. Innaniz.

<22.2r> Eskribatua martxoaren 14, Saran,
1757.

Ene seme maitea, hartzen dut libertate zuri bi
lerroren markatzeko. Osasuna dut Jainkoari
esker nere familla guziarekin, zeinetan
desiratzen bainuke zurea hala balitz denbora
berean. Goraintzi zure arrebek eta koinatak
eta amatxik eta izebek eta kusinek eta ahaide-
adiskide guziek. Doloratuak gara hagiz izatu
dugun berri tristeaz. Harren, gauzak ahalik ungi
altxaturik, hunat pasatzerat egizu lehenbiziko
komoitatean, zeren nihor gabe kausitzen
baikara. Katalin eta bi-biok gara, eta Maria eta
Arrangoitzen gelditu dire. Hunat pasatzerat
egizu, zeren heldu den neguko ez bazaitzaigu
ethortzen utz ahal baitezakegu errota.

<22.2v> Letra hau hirurgarrena egortzen
dugu. Igortzen darozkizugu beti bianda
Echeberrikoarekin, lukhainka puska batzuek.
Ez dugu pasaiarik izan deusen egortzeko. Eta
Mari Maite Argainenekok goraintzi. Finean,
gelditzen naiz eta zure ama fidela. Zure
zerbitzari, Joanna de Bidart.

23

Data: 1757/3/15

Non idatzia: Sara

Igorlea: Piarres d'Etcheverry *Mothela*

Hartzailea: Joannes d'Etcheverry

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<23.1r> 118

La Presente / Lettre soit rendüe à / joannes
D'Etcheverry fils / du nommé mothela / a
Louisbourg

<23.2r> Saran Eguina marchoareen 15. 1757.

/ Ene seme maitea

/ Escribatçen darotçut lettra hau pressenteco
commoditate / huntas baliatcea gatic, çuey nere
amaren eta anayaren /⁵ ossasunaren berri onac
emaitea gatic; desiratçen guinduque / çuec ere
hor ossassuna perfet bat bacindute. goanden /
urthean çuec egorriak errecibitu guinituen; Bai
eta / [...] [bi] urthe ere maitearequin hirur sey
liberaco / bisquitartean maitea etçen [segur] ea
hirur ala l[aur] /¹⁰ eman çiniotçan; hurrenecoan
lettran ongui mar[c]a / çaçu. aurthen guerla
dela caussa ezdarotçuegou / deus ere egorçen
nihorc ere ez darocu deus ere hartu / nahi;
amac milla gorainci ossaba gorrari, eta çuequin
/ batean hunat lehen bai lehen passa dadila;
cattalin /¹⁵ bere emasteac ere othoix hori bera
eguiten dio; agoretara / chanjatu gara; çure
ahaide eta adisquide guciec / milla gorainci; eta
particularqui monsieur haranchipy / a[ppeçac?]
ossabari eta çuey, eta ni guelditcen nais [ç]uen /
aita ona. Piarres D'Etcheverry.

B bertsioa

<23.1r> 118

La presente lettre soit rendue à Joannes
d'Etcheverry, fils du nommé Mothela. A
Louisbourg.

<23.2r> Saran egina, martxoaren 15, 1757.

Ene seme maitea,

Eskribatzen darotzut letra hau presenteko
komoditate huntaz baliatzeagatik, zuei nere
amaren eta anaiaren osasunaren berri onak
emaiteagatik. Desiratzen ginduke zuek ere hor
osasuna perfet bat bazindute. Goan den urthean
zuek egorriak errezibitu ginituen, bai eta [...]]
bi urthe ere Maitearekin hirur sei liberako.
Bizkitartean Maitea etzen segur ea hirur ala laur
eman ziniotzan; hurrenecoan letran ongi marka
zazu. Aurthen, gerla dela kausa, ez darotçuegu
deus ere egortzen; nihork ere ez daroku deus
ere hartu nahi. Amak milla goraintzi osaba
gorrari, eta zuekin batean hunat lehenbailehen
pasa dadila. Kattalin bere emasteak ere othoitz
hori bera egiten dio. Agoretara xanjatu gara.
Zure ahaide eta adiskide guziek milla goraintzi;
eta partikularki Monsieur Haranchipy aphezak
osabari eta zuei, eta ni gelditzen naiz zuen aita
ona.
Piarres d'Etcheverry.

2r:18 *appeçac* : aieruzko osaketa. Lehen eta azken hizkiak kasik ongi ikusten dira. Monsieur Haranchipy Saran izkribatu beste gutun batzuetan ageri da (7, 25), eta oso egiantzekoa da bertako apez izatea.

24

Data: 1757/3/15

Non idatzia: Senpere

Igorlea: Betri d'Etcheberry

Hartzailea: Joannes Etcheberri

Lotura: aita- semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<24.2v> 46

La presente soit rendüe / a joannes hxxx etçheberri / çhanpartier et menuisier / A Louis bourg

<24.1r> À St pée le 15 mars 1757

/ Ene semea

/ Ohore dugu curi presenteco hunen jgortceas / Ceinetan hirur garren aldia baitugu hau /^ß Bainan adituac gare errencurac eguin / tutçula, estuçulla gure berriric batere / jaquiten, gure ustes esta bada gure falta / çuc es errecibitcea hirur garren aldia denas / gueros hau, bada egundaino beçain u^ogui /¹⁰ desiratcen guindue gure famillaco berriac / jaquin bacintça osasuna dugu presentean / familla guciac jaincoari esquerrac bainan / aitaso eritasun luce baten ondoan jaincoac / mundu huntaric erretiratu darocu eta hainits / behartu gare harequin eta badaquiçu lehen /¹⁵ ere aphur bat gora behera gure etçheco / miseriaren berria

<24.1v> aditu dugu nola etçaren oraino plaçatua / eta desiratcen guindue niholare posible bada / plaça bacinteci asqueneco letran gure ustes / ungui gomendatu çaitugu Çure famillari eta /^ß Çuc ere Çure eguin ahal gucia eguiçu, ene semea / errecibitu dugu predoeneco semearequin jgorri / hirur liberacoa eta orai egorceco desiraric / hartcen baduçu ungui seguraturic jgoraçu / ecen badaquiçu cer jrrisquden orai, esta deus ere /¹⁰ berriric hemen Curi marquatceco guerla eta / miseria baicen desiratcen darotçu osasun / on bat guc presentean dugun beçala baldin / conbeni baçao jaincoari haren gloriarençat / eta Çure eta gure arimaren salbamenduarençat /¹⁵ Cure serbitçari Ni aita Bihots samurtasunes / bethea

B bertsioa

<24.2v> 46

La presente soit rendue a Joannes Etcheberri, chanpartier et menuisier. A Louisbourg.

<24.1r> À St. Pée, le 15 mars 1757.

Ene semea,

Ohore dugu zuri presenteko hunen igortzeaz, zeinetan hirurgarren aldia baitugu hau. Bainan adituak gare errenkurak egin tutzula, eztuzula gure berririk batere jakiten. Gure ustez ezta, bada, gure falta zuk ez errezibitzea, hirurgarren aldia denaz geroz hau. Bada, egundaino bezain ungi desiratzen ginduke gure famillako berriak jakin bazintza. Osasuna dugu presentean familla guziak Jainkoari eskerrak, bainan aitaso eritasun luze baten ondoan Jainkoak mundu huntarik erretiratu daroku eta hainitz behartu gare harekin; eta badakizu lehen ere aphur bat gorabehera gure etxeko miseriaren berria.

<24.1v> Aditu dugu nola etzaren oraino plazatua, eta desiratzen ginduke niholare, posible bada, plaza bazintezi. Azkeneko letran, gure ustez, ungi gomendatu zaitugu zure famillari, eta zuk ere zure eginahal guzia egizu, ene semea. Errezibitu dugu Predoeneko semearekin igorri hirur liberakoa, eta orai egortzeko desirarik hartzen baduzu ungi seguraturik igorrazu, ezen badakizu zer irrisku den orai. Ezta deus ere berririk hemen zuri markatzezo, gerla eta miseria baizen. Desiratzen darotzugu osasun on bat, guk presentean dugun bezala, baldin konbeni bazaio Jainkoari, haren gloriarentzat eta zure eta gure arimaren salbamenduarentzat. Zure zerbitzari, ni,

eta ama orobat / Besarcatcen çaituellaric bere
bihots gucias / haurride guciec eta bai ahaide
eta adisquide / guciec Betri d'etçheberry /²⁰
cure anaia goan da donibanerat ofizioaren
jkhasterat <24.2r> aditcea badugu nola egorri
Cintuben hogoi eta / hemerezi libera bainan
guc estugu deus ere hetas / funsic eta Cerrorrec
eguiçu Cerbait funs

aita bihotz samurtasunez bethea, eta ama
orobat, besarkatzen zaituelarik bere bihotz
guziaz haurride guziek eta bai ahaide eta
adiskide guziek. Betri d'Etçheberry. Zure
anaia goan da Donibanerat ofizioaren
ikhasterat. <24.2r> Aditzea badugu nola
egorri zintuben hemeretzi libera, bainan guk
eztugu deus ere hetaz funsik, eta zerrorek
egizu zerbait funs.

25

Data: 1757/3/15

Non idatzia: Sara

Igorlea: Martin d'Etchart *Saindua*

Hartzailea: Joannes d'Etcheverry

Lotura: osaba-ilobak

Helmuga: Niganiche

A bertsioa

<25.1r> 66

La Presente / Lettre soit rendüe à joannes / D'Etcheverry, neveu de / martin saindua / a niganisch.

<25.2r> Saran Eguina marçhoaren 15.^{am} 1757.

/ Ene jloba maitea

/ Escribatçen darotçut lettra hau çuri ene eta gure / familia guçiaren ossassunaren berri onac gastigatçea /⁹ gatic, dessiratçen nuque çuc ere hor ossassuna / on bat baçindu; gure ere jaincoari esquer salboric / eta fichoric arribatu guinen; behinçat goardia / emoçu denboran lettra çhanjaric egorçera heldu / baçara, ea noren ganat, eta nortas tiratuac /¹⁰ eguinen tutçun; aurthen gou hemen chagrinateuac / gabilça nihorc ez sinatu nahis; oray bada Esperança / eman darocute pagatuac içanen garela. Eztarotçugu / deus egorçen guerla dela caussa, harçaçu paçientia / eta horco berriac gastiga datçu lehenbicio komoditatean, /¹⁵ gorainci gure gende guciec, eta particularrean çure / arreba Estebenic; Bai eta monsieur haranchipic eta / bere familiac; guelditçen nais çure ossaba ona / Martin D'Etchart.

<25.2v> monsieur haranchipic othoisten çaitu erraiteas / samatchico semeari eztuela horren letratic batere / içan, lettra çhanja bat içan duela horren partes, / bainan ezdela oraino pagatua, harçen baitu /⁹ ungui goardatuco tuela, harceco esperanca oray / baduela, ezdaquiela cer guethatuco den. monsieur / Beauvassin arracholacoac oray esperanca emaiten / duela. gauça bera erranen dioçu martin canderatzi / çhotilen semeari ezduela monsieur haranchipic /¹⁰ erreçibitu oraino diruric oray esparançan dagoela.

2v:6 *guethatuco* : horrela.

B bertsioa

<25.1r> 66

La presente lettre soit rendue à Joannes d'Etcheverry, neveu de Martin Saindua. A Niganisch.

<25.2r> Saran egina, martxoaren 15.^{am} 1757.

Ene iloba maitea,

Eskribatzen darotzut lettra hau zuri ene eta gure familia guziaren osasunaren berri onak gaztigatzeagatik. Desiratzen nuke zuk ere hor osasuna on bat bazindu. Gu ere, Jainkoari esker, salborik eta fixorik arribatu ginen, behintzat. Goardia emozu denboran lettra xanjarik egortzera heldu bazara, ea norenganat, eta nortaz tiratuak eginen tutzun. Aurthen gu hemen xagrinateuak gabiltza nihork ez sinatu nahiz; orai bada esperantza eman darokute pagatuak izanen garela. Eztarotçugu deus egortzen gerla dela kausa; hartzazu pazientzia, eta horko berriak gaztigadatu lehenbiziko komoditatean. Goraintzi gure jende guziek, eta partikularrean zure arreba Estebenic, bai eta Monsieur Haranchipik eta bere familiak. Gelditzen naiz zure osaba ona, Martin d'Etchart.

<25.2v> Monsieur Haranchipik othoizten zaitu erraiteaz Samatxiko semeari eztuela horren letrarik batere izan, lettra xanja bat izan duela horren partez, bainan ez dela oraino pagatua, hartzten baitu ungi goardatuco tuela, hartzeko esperantza orai baduela, ez dakiela zer gerthatuko den, Monsieur Beauvassin Arraxolakoak orai esperantza emaiten duela. Gauza bera erranen diozu Martin Canderatzi, Xotilen semeari, ez duela Monsieur Haranchipik erreçibitu oraino dirurik, orai esparantzan dagoela.

26

Data: 1757/3/15

Non idatzia: Baiona

Igorlea: Cathalin Marie Berrogain

Hartzailea: Catherine Laborde, veuve de Jelos

Lotura: adiskideak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<26.1r> 128

A mademoiselle / mademoiselle catherine / laborde veuve de jellos / a louis bour

<26.2r> abayonne 15 avril dije mars 1757

/ cathalina eta / ene adiscidea desiratcen dut presentecoac / causi çaitçan osasuna perfet batean / çure familia guçiarecin, enea esta ona / aspaldico demboran: çhagriñac eta / persequioneac içatu tut famillarecin / non hauçitan hari bainais: egiada / presentean aphur bat osasuna piçca /¹⁰ bat. badudala suçhar langitac qitatu / nau. ene edaria da tiçana: arno batere / gabe. bors illabete huntan; alaba / gastia esconduda giçon prestubatecin / çerbaites fagoråtzen nau. baita ene /¹⁵ seme caharrenac ere, jencoac içan / deçala nitas pietate, badaciçu hemen / ascen içatu çifnean fornitutu içan nosci / qitçula boticatic escatu çifnoscidanac / contuan tut, luçe liteqe chehetasuna /²⁰ esplicatçea. liburuan diren arren, baita / arançazura guan çifnean içan çintuen / sosac; hala munta dute: guciec: berrogoi / libera eta hamairu sos. badu çembait / dembora escribatu notçula. estut çure /²⁵ errepustaric içatu, etçaçula pensa / lehenagoco contua; hemen ematen dudala / eçen jacube agerretaren ecutic içatu / nituen. baita çure letra ere, ene adiscide / erraten dotçut egias çorrac egintuteta /³⁰ bihar handitan nais. estimatuco dut / prestatçen baçiñot beçala, es bada othoi / falta, eçagutu duçu ene bihoxa çure / ocasionetan. hala oroit çaitte ene bihar / handias. jencoac laudatçen dut eta othoisten /³⁵ esnaçan arren abandona munduan biçi / gareiño asco icus deçaqegu. cembat icusi dut. guti iguriqiric / axegiñago

B bertsioa

<26.1r> 128

A Mademoiselle Mademoiselle Catherine Laborde, veuve de Jellos. A Louisbourc.

<26.2r> A Bayonne, 15 avril, dis-je mars 1757.

Cathalina eta ene adiskidea, desiratzen dut presentekoak kausi zaitzan osasuna perfet batean zure familia guziarekin. Enea ezta ona aspaldiko denboran: xagriñak eta persekuzioeak izatu tut famillarekin, non hauçitan hari bainaz. Egia da presentean aphur bat osasuna pixka bat badudala: suçhar lanjitak kitatu nau. Ene edaria da tizana, arno batere gabe. Bortz illabete huntan alaba gaztia ezkondu da gizon prestu batekin. Zerbaitez fagoråtzen nau, baita ene seme zaharrenak ere; Jenkoak izan dezala nitaz pietate. Badakizu hemen azken izatu ziñean fornitutu izan nozkitzula botikatik eskatu ziñozkidanak. Kontuan tut, luze liteke xehetasuna esplikatzea, liburuan diren arren. Baita Aranzazura guan ziñean izan zintuen sosak; hala munta dute: guziek berrogoi libera eta hamairu sos. Badu zenbait denbora eskribatu notzula; ez tut zure errepustaric izatu. Etzazula pensa lehenagoko kontua hemen ematen dudala, ezen Jakube Agerretaren eskutik izatu nituen, baita zure letra ere. Ene adiskide, erraten dotzutu egiaz: zorrak egin tut eta bihar handitan nais. Estimatuco dut prestatzen baçiñot bezala, ez bada othoi falta. Ezagutu duzu ene bihotza zure ocasionetan; hala oroit zaitte ene bihar handiaz. Jenkoa laudatzen dut eta othoizten ez nazan arren abandona. Munduan bizi gareiño asko ikus dezakegu; zenbat ikusi dut guti iguririk. Atsegiñago egiñen dotazu

egiñen dotaçu diruba egorçea. eçen: bacalluba / jencoari. gomenda naçaçu ene othoixian etçare ahançia;

<26.2v> letrapresentecoa ematen dotçuna, deitçenda / monsieur martin larmet capitaiña, egor datçu / horrecin othoisten çaitut: esparança hortan / gelditçen nais çure çervitçary afligitua /⁵ ene adiscide cathalin marie berrogain / veuve Detçheto, salutatçendut çure familia

diruba egortzea ezen bakalluba. Jenkoari gomenda nazazu, ene othoitziaren etzare ahantzia.

<26.2v> Letra presentekoa ematen dotzuna deitzen da Monsieur Martin Larmet kapitaiña. Egordatzu horrekin, othoizten zaitut esparantza hortan. Gelditzen naiz zure zerbitzari afligitua, ene adiskide. Cathalin Marie Berrogain, veuve d'Etçheto. Salututzen dut zure familia.

2r:27 *ecutic* : menturaz *escutic* irakurri behar da; ala *ecutic* 'dirutik' ote?

27

Data: 1757/3/16

Non idatzia: Azkaine

Igorlea: Marittipo de Subiet

Hartzailea: Laurens Perusqui

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<27.1r> 4

A Monsieur / Monsieur Laurens Perusqui, /
Marinier, / A Louisbourg

<27.2r> Laurenz

/ Asco denbraz egon gara zure letraren
esparantzan / bainan batere ezdugu izatu;
zure orde cenbait / saratarrec ceinec ikussi
baitzaituzte errandaucute /¹³ ossaassun on bat
cinduela, baetare cerbait irabaci / duzula. Guc
gure berriac gaztigatcen ganaizkquitzuun /
Gabriel Lecunberricoarequin eta guero Ciburu
Pattineneco / semearequin, bainan biac elga
anglesez hartuac / izandira, eta Lecunberricoa
han hilda. Belchagno ere /¹⁰ oraino Anglaterran
da. Zure semea eta alaba aguitz / ungui dira, bie
mila gorainci egortzen dautzute, baetare / bere
anayari ere, bertce garaitico zure ahaide guciac
ere / ungui dire; Nausianeco apheza hilda orai
duela sei edo / za'pi ilhabete. Hasi naiz zure
zorren pagatcen eta /¹⁵ zure ontassuna asqui
estatu onean da. Hemen ezda / Guerla hotsic
baicin, baitugu herriico soldadoac / Bayonan, eta
marinelac cortsuan dabilza eta / cerbait eguiten
dute, eta bertce cenbait erregueren / cerbitzuan
dire. M^r Bidartec gorainci zuri eta /²⁰ Martin
chumeari. Jaincoac dizula ossaassun on bat / eta
fortuna eguitico Gracia; zure cerbitzari.

/ Marittipo de Subiet.

/ aascain le 16 mars 1757.

/ tournés s'il vous plait.

<27.2v> zuc egorri terciua hutza errecibitu
dut, ceren / urina uncian issuri cen; pastillaco
macaillauac / erremetitu daitazte, bainan zure
harbi pastea / ez daut oraino eman Sansonec, eta
manta ere /¹ ez da oraino egin.

2r:24 *ournés s'il vous plait* : orriaren beste aldera pasatzeko kortesiazko gaztigua da, frantses tradizioan
TSVP akronimoan ager daitekeena.

B bertsioa

<27.1r> 4

A Monsieur Monsieur Laurens Perusqui,
marinier a Louisbourg

<27.2r> Laurenz,

Asko denbraz egon gara zure letraren
esparantzan, bainan bat ere ez dugu izatu.
Zure orde, zenbait saratarrek, zeinek ikusi
baitzaituzte, erran daukute osasun on bat
zinduela, baetare zerbait irabazi duzula.
Guc gure berriac gaztigatzen ganaizkitzun
Gabriel Lekunberricoarekin, eta gero Ziburu
Pattineneco semearekin, bainan biac elga
anglesez hartuac izan dira, eta Lekunberricoa
han hil da. Beltxano ere oraino Anglaterran da.
Zure semea eta alaba agitz ungi dira. Biek mila
goraintzi egortzen dautzute, baetare bere anaiari
ere, bertce garaitico zure ahaide guziac ere
ungui dire. Nausianeco apheza hil da orai duela
sei edo zazpi ilhabete. Hasi naiz zure zorren
pagatzen, eta zure ontasuna aski estatu onean
da. Hemen ez da gerla hotsik baizin: baitugu
herriico soldadoac Baionan, eta marinelac
kortsuan dabilza eta zerbait egiten dute, eta
bertce zenbait Erregeren zerbitzuan dire. M^r
Bidartec goraintzi zuri eta Martin xumeari.
Jainkoac dizula osasun on bat eta fortuna
egiteko grazia.

Zure zerbitzari, Marittipo de Subiet.

A Ascain, le 16 mars 1757.

Tournés, s'il vous plait.

<27.2v> Zuk egorri tertzioa hutza errezibitu
dut, zeren urina untzian isuri zen. Pastillako
makaillauak erremetitu daitazte, bainan zure
harbi pastea ez daut oraino eman Sansonec, eta
manta ere ez da oraino egin.

28

Data: 1757/3/16

Non idatzia: Ziburu

Igorlea: Cathalina Ithurriague

Hartzailea: Gabriel Ithurriague, *marinier de Sare*

Lotura: anai-arrebak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<28.1r> 57

A Monsieur / Monsieur Gabriel ithurriague /
marinier dulieu deSare / à Louisbourg,

<28.2r> Cibourun marchoareen 16^{an}. 1757

/ Ene anaya maitea

/ Escribatcen dausquitçut presenteco bi lerro
hauc çuri ene / ossassunaren marcatceco
ceiña haguitz baita perfeta /⁹ Jaincoari esquer,
desiratcen nuque ene bihotz guciaz çurea
/ hala balitz halaber ossaba franchiscuc eta
matanta / Cathalinec ossasuna dute, çure
aitac eta ama maiteec ^{etc} / erranen dautçut
haguitz direla offensatuac goanden / urthean
es escribatceaz, Escribatcen dautçute, Egorcen
/¹⁰ dausquitçut ene partes Cibouruco martin
filissen semearequin / attorra çuri bat,
galcerdi firlango pare bat eta çapata / handi
pare bat guciac berriac, hala othoizten çaitut /
haurten etcherat erretira çaitecen hori da çure
bourassoen / desira gucia, gure berce ahaide
eta adisquideguciec /¹⁵ ossassuna dute, estut
deus ere çuri marcatceco baicic / naicela çure
icusteco desira handian / Ene anaya maitea /
Çure arreba fidela
/ Cathalina ithurriague

B bertsioa

<28.1r> 57

A Monsieur Monsieur Gabriel Ithurriague,
marinier du lieu de Sare, à Louisbourg.

<28.2r> Ziburun, martxoaren 16an, 1757.

Ene anaia maitea,

Eskribatzen dauzquitzut presenteko bi lerro
hauc zuri ene osasunaren markatzeko, zeïña
hagitz baita perfeta Jainkoari esker. Desiratzen
nuke ene bihotz guziaz zurea hala balitz.
Halaber, osaba Franchiskuk eta matanta
Cathalinec osasuna dute; zure aita eta ama
maiteek ere. Erranen dautzut hagitz direla
ofentsatuak goan den urthean ez eskribatzeaz;
eskribatzen dautzute. Egortzen dauzkitzut ene
partez Ziburuko Martin Filisen semearekin
athorra xuri bat, galtzerdi firlango pare bat
eta zapata handi pare bat, guziak berriak.
Hala, othoizten zaitut haurten etxerat erretira
zaitezen, hori da zure burasoen desira guzia.
Gure bertze ahaide eta adiskide guziek
osasuna dute. Eztut deus ere zuri markatzeko,
baizik naizela zure ikusteko desira handian,
ene anaia maitea. Zure arreba fidela,

Cathalina Ithurriague.

29

Data: 1757/3/16

Non idatzia: Ziburu

Igorlea: Pierre d'Etchevers

Hartzailea: Pierre Detchevers

Lotura: anaiak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<29.1r> 64

A Monsieur / Monsieur Pierre detchevers /
M^{re} charpantie de navire / A Lisbourg

<29.2r> Fait a Siboure le 16 mars 1757

/ Ene anaya maitea harcen dut libertate
Çury / by leroren Escribatçeco Eta denbora
berean / gure osasunaren beria gastiatceco
osasuna /⁵ dugu familia Çureac Eta Eneac
Ceinac baitire / Çure Eta Ene aita Eta ama
Eta areba / ganeracoan Ene familan Ere
osasuna dugu / gustiec Eta Jaincoac Eman
daucu fruitu bat / bainan satifationecoa
jcatecotx semebat /¹⁰ galdeguiten nuben
bainan aguery de Eçela / Conbeny alababat
Eman dautçu Jaincoac / bainan hura asquy
perfesyonatuba / Causitcen Caicu Jaincoary
Esquerac / anaya Ercibitu ditut by letra
oray /¹⁵ bat Eta lehenago berçe bat Ceinac
/ axeguín eguín baitçaucun Çure berien
/ aditçeaq osasunaren partetic Eta uste /
nuben asqueneco letra beraren plaçan /
Çerory jchusico Cintudala hemen /²⁰ bainan
aguery da Eçela Conbeny

<29.2v> hanitx dire trabailu handiac
francian / vncy Eguiten particularquy
bayonan / Eta donibanen Ere bay Ecen
donbanen / Eguin ditut nic neronec
Corduçaleac /⁵ nere planarecin bat bayonaco
Eta / berçeric hirur Edo lau asquy uncy
galantac / Eregeren Constricturaren
planaren ganean / Eta oray Ere baditut hirur
Chume / chantierean hasiac Eta handibat
badut /¹⁰ hasibehara Ene Contuco Eguiteco
Ceinac / 18 peça muntatuco baicitu / anaya
desiratu Jcatu dut hanitxetan / Çuben byen
hemen Jçatea Çeren / Çerbaiten Jrabasteco

B bertsioa

<29.1r> 64

A Monsieur Monsieur Pierre d'Etchevers,
maitre charpantie de navire a Lisbourg.

<29.2r> Fait a Ciboure le 16 mars 1757.

Ene anaia maitea, hartzen dut libertate
zuri bi lerroren eskribatzeko, eta denbora
berean gure osasunaren berria gaztiazeko.
Osasuna dugu familia zureak eta eneak,
zeinak baitire zure eta ene aita eta ama
eta arreba. Ganerakoan, ene familan ere
osasuna dugu guztiak. Eta Jainkoak eman
dauku fruitu bat, bainan satifationekoa
izatekotz seme bat galdegiten nuben,
bainan ageri de etzela konbeni: alaba bat
eman dautzu Jainkoak, bainan hura aski
perfezjonatuba kausitzen zaiku Jainkoari
eskerrak. Anaia, erzibitu ditut bi letra: orai
bat eta lehenago bertze bat, zeinak atsegin
egin baitzaukun zure berrien aditzeak
osasunaren partetik. Eta uste nuben
azkeneko letra beraren plazan zerori
ikhusiko zintudala hemen, bainan ageri
da etzela konbeni.

<29.2v> Hanitz dire trabailu handiak
Frantzian, untzi egiten, partikularki
Baionan, eta Donibanen ere bai, ezen
Donibanen egin ditut nik neronek
korsuzaleak nere planarekin, bat Baionako
eta bertzerik hirur edo lau aski untzi
galantak, Erregeren konstrukturaren
planaren ganean. Eta orai ere baditut hirur
xume xantierean hasiak, eta handi bat
badut hasi beharra ene kontuko egiteko,
zeinak 18 peza muntatuko baikitu. Anaia,
desiratu izatu dut hanitzetan zuben bien
hemen izatea, zeren zerbaiten irabazteko

bide onac baitire /¹⁵ Eta Esparanca dut
Estucula horco / amodioric Çaren guehiago
Eta / Eretiratuco Çarela ahalic lasterena / Çure
familiarat ganeracoan Estautcut / berceric
gomendatcen Çure Jaincoary /²⁰ Jaraiquitcea
baicic Eta harc / lagunduco Çaitu

<29.3r> anaya Egorcen dautcute aitac Eta /
amac picunen semiarequin Çerbait / aldateco
galca maripolisa athora mara / galcerdy Eta
Çapata Eta Ene partes Emanen /⁵ dauçu
martin filisen semeac Cintal / Erdico baril
bat nafar Eta tulicunec / emaanen dausquitcu
baril Çhume bat / agorient Eta urdajaspibat
Ene Esposaren / partes Eta estucu gutci
plenytu behar /¹⁰ Ceren Cerory hanat
galdeguiten baitcaitug^u / Eta hala Eregusituco
duçu Eretiratcea / Çure familiarat Eta haynitx
axeguín / Eguinen duçu horen Eguitea /
ganeracoan salutatcen Çaitu aitas /¹⁵ amas
arebas Eta Çure ahaide gusties / Eta Ene
Emasteac hanitx desira handia / du Çure
Jchusteco ganeracoan guelditcen / nais Çure
Cerbitcary bihotx ones / Çure anaya pierre
Detchevers /²⁰ tulicunequin Erecebituco ducu
berce / letra bat Enea Eta hartan / Escribatuco
dauquitcut berce / Chehetasunac

bide onak baitire. Eta esparantza dut
etzuzula horko amodiorik izaren gehiago,
eta erretiratuko zarela ahalic lasterrena zure
familiarat. Ganerakoan eztautzut bertzerik
gomendatzen, zure Jainkoari jarraitzea
baizik, eta hark lagunduko zaitu.

<29.3r> Anaia, egortzen dautzute aitak eta
amak Picunen semiarekin zerbait aldatzeko:
galtza, maripolisa, athorra, marra, galtzerdi
eta zapata. Eta ene partez emanen dautzu
Martin Filisen semeak kintal erdiko barril
bat nafar, eta Tulikunec emanen dauzkitzu
barril xume bat agorient eta urdaiazpi bat,
ene esposaren partez. Eta eztuzu gutzi
plenitu behar, zeren zerori honat galdegiten
baitzaitugu, eta hala erregusituko duzu
erretiratzea zure familiarat, eta hainitz atsegin
eginen duzu horren egitea. Ganerakoan,
salutatzen zaitut aitaz, amaz, arrebaz eta
zure ahaide gustiez. Eta ene emazteak
hanitz desira handia du zure ikhusteko.
Ganerakoan, gelditzen naiz zure zerbitzari.
Bihotz onez, zure anaia Pierre d'Etchevers.
Tulikunekin errezebituko duzu bertze letra
bat enea, eta hartan eskribatuko dauzkitzut
bertze xehetasunak.

2r:11 *dauçu* : *daucu* espero dugu; bestenez *dautzu* forma inplikatio edo besarkatzaile gisa interpreta liteke. 2v:3 *donbanen* : horrela. 2v:11 *baicitu* : *baikitu* irakurri behar da, eta *baititu* ulertu; cf. *baiqitu* (15, 2v). 3r:3 *aldateco* : irakur *aldateco*. 3r:9 *gutci* : posible da *gutci*, zentzurik ez duena, zein *gucti* 'guztiz' irakurtzea; bigarrena hobesten dugu. 3v:10 *hanat* : irakur *honat*. 3v:22 *dauquitcut* : horrela.

30

Data: 1757/3/16

Non idatzia: Senpere

Igorlea: Martin Larralde, sieur de Bastidaguerre

Hartzailea: M^r Saint Martin de Duronia Mirande

Lotura: osaba-ilobak

Helmuga: Louisbourg

A bertsoia

<30.1r> 68

A Monsieur / Monsieur Sⁱ martin de / Duronia
mirande, Maitre / Capitaine de navires de / a
Louisbourct

<30.1v> Ene jloba jauna

/ plaçer handirequin aditu ditut Çure /
fortunaren berri onac, nahis Esconçaren /
partetic, eta Corsuco partetic, felicitaçen /
Çaitut guçies, Çeren on desiratçen bait- /
tarotçut neure bihots guçias; eta / Erranen
darotçut Çure ontassuna guibe- / lat
haridella, Çure ama andrea gai / jçan gabes;
eta asqueneco sasoina /¹⁰ galdu du, harrias
porrocaturic, horti- / c jujatuco duçu, Çure
ahalaz lagundu / Behar duçulla Çure ama
andrea; / Baldin nahi Baduçu Çure ontasun^a /
Conserbatua jçan dadin, jauna ene /¹⁵ Jloba.
Çure Çerbitçari nais neure / Bihots guçias. /
Martin Larralde / Sieur de Bastidaguerre

/ à Sⁱ pe / le 16^e de mars 1757

B bertsoia

<30.1r> 68

A Monsieur Monsieur Saint Martin de
Duronia Mirande, maitre capitaine de
navires de. A Louisbourct.

<30.1v> Ene iloba jauna,

Plazer handirekin aditu ditut zure
fortunaren berri onak, nahiz ezkontzaren
partetik, eta korsuko partetik. Felizitatzen
zaitut guziez, zeren on desiratzen
baitarotzut neure bihotz guziaz. Eta
erranen darotzut zure ontasuna gibelat
hari dela, zure ama andrea gai izan gabez.
Eta azkeneko sasoina galdu du, harriaz
porrokaturik. Hortik jujatuko duzu zure
ahalaz lagundu behar duzula zure ama
andrea, baldin nahi baduzu zure ontasuna
konserbatua izan dadin, jauna ene iloba.
Zure zerbitzari naiz neure bihotz guziaz.
Martin Larralde, Sieur de Bastidaguerre.

À St. Pée, le 16^e de mars 1757.

31

Data: 1757/3/17

Non idatzia: Bidart

Igorlea: Katalin Duat [Oyer Diratçabal idazlari]

Hartzailea: Pierre Latiga

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<31.1r> [160.11]

Lapresent Letre soit / Rendue apierre Latiga / de Louis bourc / a Louis Bourc

<31.2r> Bydarten eguina Mars 17 1757

/ Ene esposmaitea estu faltatu nahiican /
 Lehen bicico ocasionehuntan Curi ene eta
 / ene famillaren beriac gastiatu gabe /⁵ ama
 jaincoac ereman daut eta aita hartan / Candelas
 Ceinataba dut bertce familla / gucia Vngui gare
 presentean desiratcennuque / halabacine Cuc
 egori letra gainda eta belanais (†) / eta bi letra
 erecebitutut behar orduban /¹⁰ eguin dautcut
 anitz Letra eta Cuc esbatere / erecebitu esta ene
 falta hanitz penadut / Cuc prometatu Mecac
 emandut eta orai / hanitz pena dut deusic
 ecin egoria nihorc / esdaut hartunahi berdin
 galdubac direla /¹⁵ berac dohacila salba edo
 Damna eguitentut / Biltra bentan bat espada
 bertcea aguiian

<31.2v> aribatucodela gelditcennais Cure
 espos / fidel maite Katalin Duat nic oyerec
 / eta aitac eta Cusinac Milla ama / cahara
 Cure jcaba jaincoac hautatudu /⁵ piarres estut
 hemen ematen deus / gehetasunic batere
 Berdin Letrahauc / aribatcen badire guconec
 eraredautcute / jaincoac Dicula fin ona Cure
 ahaide / eta hauco eta adisqueide guciec Milla /¹⁰
 gorainci oyer Dyratcabal

2r:9 *belanais* : menturaz *be(i)la nais* 'haiduru naiz', bainan ez da testuinguruarekin ezkontzen. 2r:16 *biltra*: *bi letra* irakur bedi. *bentan bat* : horrela ikusten dugu, baina zentzua 'bietan bat' da. 2v:3 *Milla* : zerbaiten falta da, seguruenik *goraintci*. 2v:7 *guconec* : irakur *guiçonec*. 2v:10 *Dyratcaba* : irakur *Dyratçabal*.

B bertsioa

<31.1r> [160.11]

La present letre soit rendue a Pierre Latiga, de Louisbourg. A Louisbourg.

<31.2r> Bidarten egina, mars 17, 1757.

Ene espos maitea, eztut faltatu nahi izan
 lehenbiziko okasione huntan zuri ene eta
 ene famillaren berriak gaztiatu gabe. Ama
 Jainkoak ereman daut, eta aita hartan kandelaz
 zeinatuba dut. Bertze familla guzia ungi gare
 presentean; desiratzen nuke hala bazine. Zuk
 egorri letra gain da, eta belanais (†). Eta bi letra
 errezebitu tut behar orduban. Egin dautzut
 anitz letra eta zuk ez batere errezebitu. Ezta
 ene falta, hanitz pena dut. Zuk prometatu
 mezak eman dut, eta orai hanitz pena dut
 deusik ezin egorria. Nihork ez daut hartu nahi,
 berdin galdubak direla; berac dohazila salba
 edo damna. Egiten tut bi letra, bentan bat
 ezpada bertzea agijan

<31.2v> arribatuko dela. Gelditzen naiz zure
 espos fidel maite, Katalin Duat. Nik, Oierek, eta
 aitak eta kusinak milla goraintzi. Ama zaharra,
 zure izaba, Jainkoak hautatu du. Piarres, eztut
 hemen ematen deus xehetasunik batere, berdin
 letra hauk arribatzen badire gizonek errare
 dautzute. Jainkoak dizula fin ona. Zure ahaide
 eta hauzo eta adiskide guziek milla goraintzi.
 Oier Dyratçabal.

32

Data: 1757/3/19

Non idatzia: Ziburu

Igorlea: Maria de Saint Martin

Hartzailea: Joanis Diharce, de Charlesenea *du lieu d'Ascain*

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<32.1r> 83

Lapresente serarendue / aJoanis Diharce, fils
/ de Charlesenea, dulieudascaïn / marinier
apresent / A Louisbourg

<32.2r> sibourelle 19 mars 1757.

/ Ene seme Maitea

/ Errecibitu nuben çuc egorri dautaçun
Letra de / Changea, non demboraberean,
Dirubac errecibitu /⁸ bainituben, milla
Esquer Darotçut, Jaincoa / otoistucodut Cure
ossasunarençat, aítac etanic / ossasun onbat
dugu Jaincoari Esquer, haurideec / ere bay,
anaya premua, erregueren servitsuan / da
vrte huntan, aditu dugu, Monsieur fagosse
/¹⁰ requin partitcera dohala, Louisbourquera
goateco / aguian hor Elkar batuco duçube,
Joaniz Eta / putico, Corsurat goanat dire,
ahaide eta / etcheco adisqueideac, ungui dire,
milla gorainci / dautçugu aítac Eta nic, nais
Çure ama /¹⁵ samurra
/ Maria de Saint martin

/ aítac otoisten çaitu / ahalic Lasterrena
vnat ethorceas, alabaiñan / sahartuda, bota
saharpare bat, Eta athorra bat egorcen /²⁰
dausquičut Raimond Eistoquenecoarequin

B bertsioa

<32.1r> 83

La presente sera rendue a Joanis Diharce, fils
de Charlesenea, du lieu d'Ascain, marinier a
present a Louisbourg.

<32.2r> Ciboure, le 19 mars 1757.

Ene seme maitea,

Errezibitu nuben zuk egorri dautazun letra
de xanjea, non denbora berean dirubak
errezibitu bainituben. Milla esker darotzut;
Jainkoa otoiztuko dut zure osasunarentzat.
Aítac eta nik osasun on bat dugu Jaincoari
esker, haurridek ere bai. Anaia premua
Erregeren zerbitzuan da urte huntan. Aditu
dugu Monsieur Fagosserekin partitzera dohala
Louisbourquera goateko, agian hor elkar
batuko duzube. Joaniz eta putiko korsurat
goanat dire. Ahaide eta etxeko adiskideak
ungi dire. Milla goraintzi dautzugu aítac eta
nik. Naiz zure ama samurra,

Maria de Saint Martin.

Aítac otoizten zaitu ahalik lasterrena unat
ethortzeas, alabaiñan zahartu da. Bota zahar
pare bat eta athorra bat egortzen daukitzut
Raimond Eistokenekoarekin.

33

Data: 1757/3/20

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Betry Daguerre

Hartzailea: Martincho Daguerre

Lotura: anaiak

Helmuga: Percibiatic (= Paspébiatic)

A bertsioa

<33.1r> 70

A Monsieur / Monsieur Le fevre Belle fille /
Consul de france a Pavo pres / bonnaventure
pour La remitte a / Martincho Daguerre
marinier /⁹ faisant Lapeche de la morue En /
terreneuve a / Percibiatic a / Pavo

<33.2r> fait a guethary le 20 ... mars
1757an

/ Enne annaia maitia Escribatcen darosquicut
bi Lero hauq Curi neure / ossasunaren beria
adicerat Emaitequo ossasunadut jainquoari
Escer Ceinetan desira / tcen bainuque Cure
hala balis Cure compainiarequin baitean
gorainci gastiaticen /⁹ darocut hailaber aitaq
Eta amaq Eta domindinaq Eta gurehaureq
Emastia bedera / ci jlabetehuntan Eri dut
Eritasun serios batequin semebait jcatu dugu
hura uni / detan Emanadugu 74 10s pagacen
dugula Eran darosquicut heimengo beriaq /
Nola Esten untchiriq hourat heldu hautaquo
jende gucia Corsurait ganci / niere Corsurait
nindoan Lotinent Eta Monsieur Detçheverri
ondoquo /¹⁰ haumalau pecetaquo Corsusale
baitean Monsieur harismendirequin
parti / cequo prest guinen hemendiq Lau
jlabeteren buruquo uste dut jcaren / direla
40 Corsusale Canpoan Eranendarocut
Cure Letra sainderi / q nola Esten niondiq
Ethorri Es Ethorcequo aparanciarig Ere
Eta Estaquigu / nori adreca Cergatig
espaitauqucu jaunharen jcaniq gastiati
Etaneure /¹⁵ jdurian hoube Cinduque
Cegoreq jaun hairen atçamatea Eta denbora
berian / tresorerait Letra dasainden tirace
Luceago jcaniq Ere Lehen ere Escriba
/ tudarocut Monsieur Daguerrerequin
Letrabait hartan barna nola tu- / dan gure

B bertsioa

<33.1r> 70

A Monsieur Monsieur Le Fevre Belle
Ville, consul de France a Pavo, pres
Bonnaventure, pour la remitte a
Martincho Daguerre, marinier faisant
la peche de la morue en Terreneuve, a
Percibiatic. A Pavo.

<33.2r> Fait a Guethary le 20 mars 1757an.

Ene anaia maitia, eskribatzen darozkitzut
bi lerro hauk zuri neure osasunaren berria
aditzerat emaiteko. Osasuna dut Jainkoari
esker, zeinetan desiratzen bainuke zure
hala balitz zure konpainiarekin batean.
Goraintzi gaztiazten darozut, halaber
aitak eta amak eta Domindinak eta gure
haurrek. Emaztia bederatzi ilabete huntan
eri dut eritasun serios batekin. Seme bat
izatu dugu; hura unidetan emana dugu, 74
libera eta 10 sos pagatzen dugula. Erran
darozkitzut hemengo berriak. Nola ezten
untzirik hurat heldu, hautako jende guzia
korsurat ganki, ni ere korsurat nindoan
lotinent, eta Monsieur Detçheverri ondoko
hamalau pezetako korsuzale batean;
Monsieur Harismendirekin partitzeko
prest ginen hemendik lau ilabeteren
buruko. Uste dut izaren direla 40 korsuzale
kanpoan. Erranen darotzut zure letra
sandderik nola ezten niondik ethorri, ez
ethortzeko aparantziarik ere, eta eztakigu
nori adreza, zergatik epzaitaukuzu jaun
haren izenik gastiati. Eta neure idurian
hobe zinduke zegorrek jaun haren
atzamatea, eta denbora berian tresorerat
letra da sandden tiratze luzeago izanik ere.
Lehen ere eskribatu darotzut Monsieur
Daguerrekin letra bat, hartan barna nola

Letra dasaindequo sopra baçubeq Monsieur Felefeilenaq / 142tt 10s justuban gantiquox guri Eguin behar Lauquegu Cerbeites on /²⁰ Cergatiq asco galdu baitugu guq hourien ondoan berarein gainerat / usten dut niq asco urax Eguin dut Eta othois Eguiten darocut niere / hourietas desquargacequox Çu hourequin antolacias hour Etaniq / heimen Emanen diosqu tet Cure Etchequori suma houri bera nola Ere gastiatcenbaitucu / Eta hala horeun beraren Escuquo senalearequin Cegoreq jkusiquo ducu nola /²⁵ Eguin neure gorainciaq Emaren diosqucu familia guciari Eta jaun sapa / dori eta duqeren familia guciari Eta seinaren semeari Eta denbora / berean Monsieur lefefeili Escibatcen diot Egitequo hours gorainci Castiluri / familiaq ossasunadubela hailaber despaldari eta Chanini Eta troubari / Eta neure jlobari Eta pumaderi Eta miselli funsean guciari piales /³⁰ piter tiro baiteq Eremandu Corsuban mastrucen bera

<33.2v> curefamiliaq ossasuna du jainquoari Escer Cure Esposa salutacen / caitu hailaber amaguinarebaq Eta Cure haureq Eta katuruq / et Detcheveriq Estut presentean Curi Cer gastia beiciq / gueldicen naicela Cure anaia fidela

^f Betry Daguerre

/ ohoui Eguiten darocut niq hordudan harcequoas contu / eguin darotacu sapado

1r *Belle Fille* : *Belle Ville*. 2r:4 *cure* : *çurea* irakurri behar da. 2r:8 *ganci* : irakur bedi *ganki*; cf. *joaki*. 2r:25 *diosqucu* : testuinguruak *diozkazu* eskatzen du. 2r:27 *Castiluri* : irakur *Çastiluri*; cf. *Sastiluri* < *Sagastiluri* (20, 3v). 2v:6 *ohoui* : *othoi* irakurri behar da.

tudan gure letra da sanddeko sopra batzubek: Monsieur Felefeilenak 142 libera eta 10 sos justuban gantikotz guri egin behar lauquegu zerbeitez on, zergatik asko galdu baitugu guk horien ondoan. Beraren gainerat uzten dut; nik asko urrats egin dut, eta othoitz egiten darotzut ni ere horietaz deskargatzekotz, zu horrekin antolatziar hor, eta nik hemen emanen diozkatet zure etxekori suma hori bera nola ere gaziatzzen baituzu, eta hala horren beraren eskuko senalearekin zegorrek ikhusiko duzu nola egin. Neure goraintziak emaren diozkazu familia guziari eta jaun Sapadori eta Dukeren familia guziari, eta Seinaren semeari, eta denbora berean Monsieur Lefeifeili eskribatzen diot egiteko huraz. Goraintzi Zastiluri, familak osasuna dubela; halaber Despaldari eta Chanini eta Trubari eta neure ilobari eta Pumaderi eta Miselli, funtsean guziari. Piarres Piter tiro batek ereman du, korsuban mastru zen bera.

<33.2v> Zure familak osasuna du Jainkoari esker. Zure esposak salututzen zaitu, halaber amaginarrebak eta zure haurrek eta Katuruk eta Detcheverrik. Eztut presentean zuri zer gaztia, beizik gelditzen naizela zure anaia fidela,

Betry Daguerre.

Othoi egiten darotzut nik hor dudan hartzekoaz kontu egin darotazu Sapado.

34

Data: 1757/3/21

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Terecha Labadija

Hartzailea: Joanis Dupui

Lotura: ama-emeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<34.1r> 129

La present soit rendu / a joanis dupuj
mattalot / a louis bourqç<34.2r> donibanen martçhoaren 21inan
egiñgña 1757.

/ Ene seme maitia jscibatçen / dausqitçut
bi lero hauc çuri ene eta familla / gusijaren
ossasuna marqatçeco ossasuna dugu /^ß
jainquari esqer desiratçen nuqe çuria hala
/ balixs ene bijoxs gusijas badaqisu ene
estatuba / çein pobreaden eta ene ahalak çein
çhumiac / diren ungi mortifiqatuba gelditçen
nais / segurqi çuri ene amudijuaren marqa
/¹⁰ egori nahija egortçen dautçudan baingno
/ nobleqijago egortçen dautçut beras ahal /
dagidana ustaritçhen semiareqin qapote bat /
eta athora bat çhurija eta çhano bat qopotiac
/ horadura gorijadu esin hedatu nais gehijago
/¹⁵ egortçerat martçhoaren 9an eresibitu /
dut çuq lehenbisi egin çinduben letra / eta
bigarena estut jsatu salutatçen çaitu_{te} / çure bi
arebe eta osaba çhopitec eta matanta / gusijec
eta gaingñeraco ahaide gusijec

<34.2v> eranen dijosu çure qusiñgña bernat
dupujri / amac eta arebac goraintçj ossasun
dutela / gaingneraquan gomendatçen dautçut
orhoit / çaitesen bethi jainquas eta bisi
çaitesen /^ß jainquaren beldurtasunian esen
jainquari / daraijonac jainquabain atçematentu
bere / contcolasijone gusijac eta jainco
handijac / estijotça haquori faltatçen bere
grasija eta / benedisijone seindubac jsan çait
beras bethi /¹⁰ jainquas orhoituba eta gero çure
ama / gaçhuac duben dessira çure jqustequas
/ othoisten çaitut jsan desaçun amarentçat /
behar dusun atentçijoni eta amaren sthifatceco

B bertsioa

<34.1r> 129

La present soit rendu a Joanis Dupui,
mattalot a Louisbourgç.<34.2r> Donibanen, martxoaren 21inan
egiña, 1757.

Ene seme maitia, iskribatzen dauzkitzut
bi lerro hauk zuri ene eta familla guzijaren
osasuna markatzeko. Osasuna dugu Jainkuari
esker; desiratzen nuke zuria hala balitz ene
bijotz guzijaz. Badakizu ene estatuba zein
pobrea den eta ene ahalak zein xumiak diren.
Ungi mortifikatuba gelditzen naiz segurki,
zuri ene amudijuaren marka egorri nahija,
egortzen dautzudan baiño noblekijago
egortzen dautzut, beraz, ahal dagidana:
Uztaritzen semiarekin kapote bat eta athorra
bat, xurija, eta txano bat. Kopotiak horradura
gorrija du. Ezin hedatu naiz gehijago
egortzerat. Martxoaren 9an errezibitu dut zuk
lehenbizi egin zinduben letra, eta bigarena
eztut izatu. Salututzen zaituzte zure bi arrebek
eta osaba Xopitek eta matanta guzijek, eta
gainerako ahaide guzijek.

<34.2v> Erranen dijozu zure kusiña Bernat
Dupuiri amak eta arrebak goraintzi, osasun
dutela. Gainerakuan, gomendatzen dautzut
orhoit zaitezen bethi Jainkuaz eta bizi zaitezen
Jainkuaren beldurtasunian, ezen Jainkuari
darraiJonak Jainkuabain atzematent tu bere
kantsolazijone guzijak, eta Jainko handijak
eztjotza halakoari faltatzen bere grazija eta
benedisijone seindubak. Izan zaitte, beraz,
bethi Jainkuaz orhoituba, eta gero zure
ama gaxuak duben desira zure ikustekuaz.
Othoizten zaitut izan dezazun amarentzat
behar duzun atentzijaonia, eta amaren

/ duçun borondatia ahal dagiçun besain /¹⁵
labursqi çure batistijo seinduba hartu / duçun
leqhurat eretiratçeco çure amari / sathifassijone
ematerat jainquaren / grasijareqin batian
gomendijo huntan usten / çaitut esparantcan
sathifasijone emanen /²⁰ dautasula / cure
çerbitcari gelditçen / nais cure ama tereçha
labadija

<34.1r> laregi çuben lijhenequori emastiac
goraintçi

sathifatzeke duzun borondatia ahal dagizun
bezain laburzki zure batistijo seinduba hartu
duzun lekhurat eretiratzeke zure amari
sathifazijone ematerat. Jainkuaren grazijarekin
batian, gomendijo huntan uzten zaitut,
esparantzan sathifazijone emanen dautazula.
Zure zerbitzari gelditzen naiz. Zure ama,
Tereçha Labadija.

<34.1r> Larregi zuben lijhenekori (+)
emaztiak goraintzi.

2r:18 *arebe* : irakur *arrebec*. 2v:8 *haquori* : *halaquoari* proposatzen dugu. 2v:13 *atentçijoni* : irakur
atentçionia. *sthifatceco* : horrela.

35

Data: 1757/3/22

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Catharine Desclaus

Hartzailea: Martin de Heuty, sieur de Mariltchenea

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<35.1r> 63

Lapresente Lettre soite / Reandeu a Martin de / heuty sieur de mariltchene / apresente Reste a / Louisbourq de Louisbourq

<35.2r> fait aguethary cé 22 marz 1757

/ Enne seme Maitea Estut faltatunay / jçatu presenteqo oqasione huntan çury By Lero / Esqribatu gabe Eta Cury Ene ossasuna Beria /¹⁵ gastiatu gabe çein^atan Baita ona jainqoary / Esquer desiraxen nuque çureahalla Balix / Çure companiarequin Batean Enne seme / Maitea sallutaxen Çaitut Bihox Çamur / Batequin jainqo handiaren partes othois /¹⁰ othoisten Çaitut Ethor çaquisquiq Etçherat / Estut vrrieriq Eta Es çilariq galdexen niq / Çubaiçiq çhutiç nagollariq hiraxen hary / nais cu jqusinais çu çare Enne Erreçurxagusi⁹ / othoisten Çaitut Esnaçaçula aqabaras

/¹⁵ Estut presentean Çury Çer gastia / Baiçiq naicella Cure Cerbixari Cure / ama orai Eta Bethiere qatarine / desclaus

B bertsioa

<35.1r> 63

La presente lettre soite reandeu a Martin de Heuty, sieur de Mariltchenea. A presente reste a Louisbourq, de Louisbourq.

<35.2r> Fait a Guethary ce 22 mars 1757.

Ene seme maitea, eztut faltatu nai izatu presenteko okasione huntan zuri bi lerro eskribatu gabe eta zuri ene osasuna berria gaztiatu gabe, zeinetan baita ona Jainkoari esker. Desiratzen nuke zurea hala balitz zure konpaniarekin batean. Ene seme maitea, salutaten zaitut bihotz samur batekin. Jainko handiaren partez othoizten zaitut: ethor zakizkik etxerat. Eztut urrerik eta ez zilarrik galdetzen nik, zu baizik xutik nagolarik; hiratzen hari naiz zu ikusi naiz. Zu zare ene errezurtza guzia; othoizten zaitut ez nazazula akabaraz.

Eztut presentean zuri zer gaztia, baizik naizela zure zerbitzari. Zure ama, orai eta bethiere, Qatarine Desclaus.

36a

Data: 1757/3/22

Non idatzia: Azkaine

Igorlea: Gachina S' Pée

Hartzailea: Catherine (veuve de) Gelos

Lotura: koinatak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<36a.1r> 9

A Mademoiselle mademoiselle / Catherine gelos / Veuve / a Louisbourg / founs de labay

<36a.2r> Ascainen Eguina marsoaren 22an 1757

/ Ene coinata maitea harcendut Libertate sury by / Leroren Escribatçeco osasuna dugula familia gusiak / Eta desiratcen nuce surea osasuna puerfet bat familia /⁵ gustiarecien batean. Cuc hortic Egori presentac Eresibitua / ditut picunecin hamabi Libera Eta michelecin berse / hamabi Libera Eta nic suri Egortcen darotçut Esagutça / chume bat /^{picunecin} urdai aspibat Eta [barratua] 2 harilco jostal hary / eta baratçeco hasiac Eta sansun hiriart sure osabaren /¹⁰ Bateleco harotcarecin urdai aspi bat Eta bi jostal / hari harilco eta baratceco hasiac amac goraintçi Eta / gure semeac Eta alabac Eta Coinata piarresec Eta / gachinac Eta haren amac Coinata piarres herianda Eta / trabailuban harida bere ofisioan oraino Esta isatu Corsuan /¹⁵ sure sapata Eguileac ni presatcen nau Eta gastia dasu ser / Eguin ahal desacedan lehenbisico Comoitatean Eta / Egori nahi narotçun serbait guehiago bainan denborac / Causatu baitu oraino guerlaren aparantcia handia da / Baionan Eta donibanen badire hemesorsi Corsucale untçy /²⁰ istilerioan Eta Corsurat goanac guehiago Esta hemen / Berse negosiori Corsua Eta Corsua basic Eta bisia / garastia oguia asci arasoinda bainan arnoa eta gacia dira / garastia. Estut presentean guehiago suri declaratçeco / Ene Coinata maitea basic naisela sur serbitcary /²⁵ Bihotz gustias / gachina S'pe

B bertsioa

<36a.1r> 9

A Mademoiselle Mademoiselle Catherine Gelos, veuve. A Louisbourg, founs de la bay.

<36a.2r> Azkainen egina, marsoaren 22an, 1757.

Ene koinata maitea, hartzen dut libertate zuri bi lerroren eskribatzeko. Osasuna dugula familia guziak, eta desiratzen nuke zurea osasuna puerfet bat familia guziarekin batean. Zuk hortik egorri presentak errezibituak ditut: Picunekin hamabi libera, eta Michelekin bertze hamabi libera. Eta nik zuri egortzen darotzut ezagutza xume bat: Picunekin urdaiazpi bat eta 2 harilko jostal hari eta baratzeo hasiak, eta Sansun Hiriart zure osabaren bateleko harotzarekin urdaiazpi bat eta bi jostal hari harilko eta baratzeo hasiak. Amak goraintçi, eta gure semeak eta alabak eta koinata Piarresek, eta Gachinak eta haren amak. Koinata Piarres herrian da eta trabailuban hari da bere ofizioan; oraino ezta izatu korsuan. Zure zapata egileak ni presatzen nau, eta gaztiadazu zer egin ahal dezakedan lehenbiziko komoitatean. Eta egorri nahi narotzun zerbait gehiago, bainan denborak kausatu baitu. Oraino gerlaren aparantzia handia da Baionan, eta Donibanen badire hemezortzi korsuzale untzi istilerioan, eta korsurat goanak gehiago; ezta hemen bertze negoziarik korsua eta korsua baizik. Eta bizia garastia: ogia aski arrazoin da, bainan arnoa eta gazia dira garastia. Eztut presentean gehiago zuri deklaratzeko, ene koinata maitea, baizik naizela zure zerbitzari. Bihotz guztiaz,

Gachina St. Pe.

2r:5 *Eresibitua* : testuinguruak plurala eskatzen du. 2r:24 *sur* : *sure* irakur.

36b

Data: 1757/3/22

Non idatzia: Azkaine

Igorlea: Pierre Etchegaray

Hartzailea: Catherine (veuve de) Gelos

Lotura: koinatak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<36b.2v> Ene Coinata maitea osasunadut Eta
desiratcen nuce surea / osasuna puerfet bat
jsatea familia gustiarecin batean herenegun
/ Ethori nais baionnatic trabailuan harituric
sure osaba / monsieur Labordaren batelean Eta
goletan Etaoray /⁵ donibanerat noha trabailurat
semea baionan dugu / Escolan Eta osasunadu
Eta guc Ere osasunadugu familia / gustiac
salutatçen dut sure ama Eta betrico Eta / sure
aispa Eta apa Eta Louisa Eta hordiren Ene /
adiscide gustiac Eta guelditcen nais sure /¹⁰
serbitcari Bihotz ones Cure Coinata maitea
/ pierre Etchegaray

B bertsioa

<36b.2v> Ene koinata maitea, osasuna dut
eta desiratzen nuke zurea osasuna puerfet bat
izatea familia guztiarekin batean. Herenegun
ethorri naiz Baionatik, trabailuan hariturik
zure osaba Monsieur Labordaren batelean eta
goletan, eta orai Donibanerat noha trabailurat.
Semea Baionan dugu eskolan eta osasuna
du, eta guc ere osasuna dugu familia guztiak.
Salutatzen dut zure ama eta Betriko eta zure
aizpa eta apa eta Luisa, eta hor diren ene
adiskide guztiak. Eta gelditzen naiz zure
zerbitzari. Bihotz onez, zure koinata maitea,

Pierre Etchegaray.

37

Data: 1757/3/22

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Gana Haurra de Fumat

Hartzailea: Adrien Salla

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<37.1r> 99

La presente letre / soit Rendüe a Monsier / adrien de salla marini / er presentement / A Louisbourq

<37.2r> Donibanen marz 22^{am} 1757

/ Nere seme maitia

/ presenteco ocasionias baliatuba / jsan nadintçat hartudut moment /⁵ bat sury by Lerro hauquietan Gure / ossassuna onas partialier eguiteco / deliberacionia desiratcen nuque suria / presentecoan Gauça berian Causi baleça / eranen dautçut nola erecibitu Guin /¹⁰ duben Letrade Chanjaren diruba / eta deliberacionetan Gare diru hura / berry baten Gagnian emateco, eta / esin ausa sartatu Gare sury deuser[e] / egortçerat sergatic pena handia /¹⁵ dela jdouritçen sait horat sal / boric ethortcia, asa (+) sure / serbitcary Guelditcen nais

<37.2v> sure ama fidela Ganahau / ra de fumat / Aitac eta familia Guiciac / milla Goraintcy dautcu /⁵ sure adisquide guciec ere / bay, adrien angueletarandela / adituric milla doloretan gare / jaincoary othoitz eginendiogu / salboric ossassunan jdouc sait /¹⁰ çatela

2r:16 *asa* : horrela; *eta* espero genezake.

B bertsioa

<37.1r> 99

La presente letre soit rendüe a Monsier Adrien de Salla, marinier presentement a Louisbourq.

<37.2r> Donibanen, marz 22an 1757.

Nere seme maitia,

Presenteko okhasioniaz baliatuba izan nadintzat, hartu dut moment bat zuri bi lerro haukietan gure osasuna onaz partialier egiteko deliberazionia. Desiratzen nuke zuria presentekoan gauza berian kausi baleza. Erranen dautzut nola errezibitu ginduben letra de xanjaren diruba, eta deliberazionetan gare diru hura berri baten gañian emateko, eta ezin ausartatu gare zuri deusere egortzerat, zergatik pena handia dela iduritzen zait horrat salborik ethortzia, asa (+) zure zerbitzari gelditzen naiz.

<37.2v> Zure ama fidela, Gana Haurra de Fumat. Aitak eta familia guziak milla goraintzi dautzu; zure adiskide guziek ere bai. Adrien Angeletarran dela aditurik, milla doloretan gare; Jainkoari othoitz eginen diogu salborik osasunan iduk zaitzatela.

38

Data: 1757/3/23

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Joana Duhalde

Hartzailea: Janne Castillou

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<38.1r> 20

A Monsieur / Monsieur / janne qastillou metre / de Grabe pour mosieur / Laborde / a Louis bourq

<38.2r> Getharian Egina marschoaren 23 1757

/ Ene / Espos maitia Estut faltatu nahi jcan presenteko oqhasione hau / Curi aditcerat Eman gabe ene Estatubaren beria Ceinetan /⁵ presentian hanis miserable baiqare ni Eta alaba / goanahaura chumia bainen desiratcen nuque handisqi / Letra huneq Curia disposicione hobian qausitcia sallutatcen / Caitut ene bihotc gucias Eta halaber salutatcen Caituste / Cure haur gucieq Eta partiqularqi alaba Caharenaq /¹⁰ salutatcen Caituste Eta Cure hauco ahaideadisqide / gucieq mila gorainci hachareneqo jauna partituda / qorsurat masans harismendireqin Egun Erecebitudugu / Cure letra francian gairidi letra sangia barnian bainaⁿ / aurthen Estugu jçatu Cure letrariq batere bia baiciq /¹⁵ Eta heq letra sanjaq barnian Eta guq Egiten ditugu / qomoditate gucietan letraq marqatcen darotacu / Estucula qanigonequin jçatu Letrariq bainen egin / gintuben Ceinetan aispá nana miaristcen baitugu / nesqato bodrireqin Eta bodriri Eman gindiotcan /²⁰ letraq Eta nola Choraqoan presabat egin baitcuten / hartan bodri Ethoricen Eta Eran Caroqun jtsasoan / jtsasorat Etchatu citustela letraq angelesen / beldures Eta oai ere horat particerat doha

<38.2v> tuliquneqin jçatu ditugu qutchá chumia Eta qartbat / Eta baqalu paqabat Eta muchil informatu dugu / Eja Ceren Esqasa ducun Eta Eran daroqu Estucula / deusen

B bertsioa

<38.1r> 20

A Monsieur Monsieur Janne Qastillou, metre de grabe pour mosieur Laborde. A Louisbourg.

<38.2r> Getharian egina, martxoaren 23, 1757.

Ene espos maitia, eztut faltatu nahi izan presenteko okhasione hau zuri aditcerat eman gabe ene estatubaren berria, zeinetan presentian hanitz miserable baikare ni eta alaba Goana Haurra xumia, bainen desiratzen nuke handizki letra hunek zuria disposicione hobian kausitzia. Salututzen zaitut ene bihotz guziaz, eta halaber salututzen zaituzte zure haur guziek, eta partikularki alaba zaharrenak; salututzen zaituzte eta zure auzo, ahaide, adiskide guziek mila goraintzi. Hachareneko jauna partitu da korsurat Masans Harismendirekin. Egun errezebitu dugu zure letra Frantzian gairidi, letra sanjia barnian. Bainen aurthen eztugu izatu zure letrarik batere, bia baizik; eta hek letra sanjak barnian. Eta guk egiten ditugu komoditate guzietan letrak. Markatzen darotazu eztuzula Qanigonekin izatu letrarik, bainen egin gintuben, zeinetan aizpa Nana Miarritzen baitugu neskato Bodrireqin, eta Bodriri eman gindiotzan letrak, eta nola Chorakoan presa bat egin baitzuten, hartan Bodri ethorri zen eta erran zarokun itsasoan itsasorat etxatu zituztela letrak, angelesen beldurrez. Eta oai ere horrat partitzerat doha.

<38.2v> Tuliqunekin izatu ditugu kutxa xumia eta kart bat, eta bakalu paka bat. Eta Muxil informatu dugu eia zeren eskasa duzun, eta erran daroku eztuzula deusen

Esqasiq jcateqos capata parebat egorceqo
 /⁸ mehiac bainan Egortcen ditugu Curetcat
 / tuliquenequin barril bat nafar eta capata
 parebat / Eta Larmeteqin haren hardeareqin
 athora bat / Eta capata parebat jnqoaq dicula
 Erecebitceqo gracia / Cure jqusteqo desira
 handian gare guciaq afligitubaq /¹⁰ handisqi
 qanigonon uncian marqatu narotcun / gure
 seme maitiaren doloria eta migel harismendiq
 / gastiati caroqun granbitatiq nola miliq
 Eman / Ciotcan anaiari Eta belatcen semeari
 berehun / Eta hirur hogoi libera bainan gure
 semiaq /¹⁵ Esomen du Erecebitu batere haren
 qonpaniatiq / Ethori diren giconeq Eran
 daroqute Eta hor / hartubaq ditubelaqoan
 paga Estetcacun / gastiacten darotcugu
 gelditcen nais cure / Cerbitcari Cure Espos
 fidela orai Eta bethi /²⁰ Cure aldera bihotc
 ones bethia

/ Joana duhallde

eskasik; izatekoz zapata pare bat egortzeko,
 mehiak. Bainan egortzen ditugu zureztat
 Tuliquenekin barril bat nafar eta zapata pare
 bat, eta Larmetekin, haren hardearekin,
 athorra bat eta zapata pare bat; Jinkoak
 dizula errezebitzeko grazia. Zure ikusteko
 desira handian gare guziak, aflijitubak
 handizki. Qanigonon untzian markatu
 narotzun gure seme maitiaren doloria,
 eta Migel Harismendik gaztiatu zarokun
 Granbitatik nola Milik eman ziotzan anaiari
 eta Belatzen semeari berrehun eta hirur
 hogoi libera, bainan gure semiak ez omen
 du errezebitu batere. Haren konpaniatik
 ethorri diren gizonek erran darokute, eta
 hor hartubak ditubelakoan, paga ezetzazun
 gaztiatzen darotzugu. Gelditzen naiz zure
 zerbitzari. Zure espos fidela, orai eta bethi,
 zure aldera bihotz onez bethia,

Joana Duhalde.

39

Data: 1757/3/23

Non idatzia: Urruña

Igorlea: Haraneder apeza

Hartzailea: Pierre Echegoyen

Lotura: osaba-ilobak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<39.2v> 112

La presente soit rendue / a pierre echegoyen
demeurant / a louis bourc.
/ A Louisbourg.

<39.1r> Ene hilloba maitea

/ uste nuben aditu dembora gucietan Çutaz /
guicon beharden becalaco bat hicaren ciñela.
/ bizquitartean kontrarioa aditçen dut; ainitç
/ gare doloratuac; Çutazco gaucen aditçiaz
/ ez dut dudatçen Compania gaistoen effetu
batçuec / direla horiec Çorigaitçez hiçan Çarela
herri / hortan bainen Cer eguin prentian?
errepa / ratçerat enxaiaitu behar da iraganaren
/¹⁰ oraino gastea Çare hortaracotc en haur /
maitea, moyenic hoberena Çait alde hunta
/ rat passatçea; ethortcen baçare borondate
/ on batez betea; enxaiaituco gare Gaucen
/ erremediatçerat; eta guc hiçaren dugu /¹⁵
çure alderaco bihotç eçagutu dauçuçuna / ez
deçaçula beraz falta ethortcetic çure

<39.1v> anaiarequin bertçe alde salvamenduaz
/ çinçinez pensatu beharda. ez dut uste hor /
hambat ongui eguin ahal deitequen; M / iriberri
amaren diosatçu ene errespetuac. /¹⁰ eta hiçatu
nituela hirur ogoi libera mar / çans çenarenac;
bainan aditu nuela / oraino gueiago ere
baçela; othoisten dudala / deusic baldin badu
egortçeaç çerbait funx / oneco guiconequin;
lehen bai lehen. erranden /¹⁰ marçans çenaren
humeren alchatceco. egui / tçu gauca Guçiac
funx onez; horren desira / eta esparantçarequin
guelditçen naiz. / considerationerequin / ene
hilloba maitea. /¹⁵ çure cervitçari humilla / eta
obedienta. / Haraneder apeça

/ A Urrugne / le 23 mars 1757 /²⁰ çure
amarochi handisqui hicustea desiratçen /
caituenac eta gure haurra mariac eguiten daus
<39.2r> quitçute bere complimenduac

B bertsioa

<39.2v> 112

La presente soit rendue a Pierre Echegoyen,
demeurant a Louisbourg.
A Louisbourg.

<39.1r> Ene hilloba maitea,

Uste nuben aditu denbora guzietan zutaz
gizon behar den bezalaco bat hizaren ziñela.
Bizkitartean kontrarioa aditzen dut; ainitz
gare doloratuak zutazko gauzen aditçiaz.
Ez dut dudatzen konpania gaiztoen efetu
batzuek direla horiek; zorigaitzez hizan zarella
herri hortan. Bainen zer egin presentian?
Erreparatzerat entsaiatu behar da iraganaren,
oraino gaztea zare. Hortarakotz, ene haur
maitea, moienik hoberena zait alde huntarat
pasatzea. Ethortzen bazare borondate on batez
betea, entsaiatuko gare gauzen erremediatzerat,
eta guk hizaren dugu zure alderako bihotz
ezagutu daukuzuna. Ez dezazula, beraz, falta
ethortzetik zure

<39.1v> anaiarekin. Bertze alde, salbamenduaz
zin-zinez pentsatu behar da: ez dut uste hor
hanbat ongi egin ahal deiteken. M. Iriberriri
emaren diozkatzu ene errespetuak, eta hizatu
nituela hirurogoi libera Marçans zenarenak,
bainan aditu nuela oraino geiago ere bazela;
othoizten dudala, deusik baldin badu, egortzeaz
zerbait funts oneko gizonekin, lehenbailehen,
erran den Marçans zenaren humeren altxatzeko.
Egitzu gauza guziak funts onez. Horren
desira eta esparantzarekin gelditzen naiz,
konsiderationerekin, ene hilloba maitea, zure
zerbitzari humilla eta obedienta,
Haraneder apeça.

A Urrugne, le 23 mars 1757. Zure amarotxi
handizki hikustea desiratzen zaituenak eta gure
Haurra Mariak egiten daukitzute <39.2r> bere
komplimenduak.

40

Data: 1757/3/23

Non idatzia: Ahetze

Igorlea: David Borrotra

Hartzailea: Martin Borrotra

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<40.1r> 17

La presente soit Rendüe à / Monsieur De
Lalongue / Bourgois, pour Remettre à /
martin Borrotra son garson / sil Lui plait, de
Louisbourt / a Louisbourct

<40.2r> ahetze le 24^{me} de mars 1757

/ Ene seme maitea Erreçevitu dut Çure / letra
joanden abendoaren 5^m eguina, / Çeinetan
plazer eta axeguïn jçan /⁸ Baitut Çure berri
onen aditçecas, eta / Estut berçe lettraric batere
erreçevitu / Çu horras gerostic, Bainan hitçes
Çure / Berriac aditçen nituen urtheguçian,
/ eta ossasuna dut jaincoari esquer, eta /¹⁰
desiratçen darotçut Çuri ere gauça / Bera,
fortuna onbatequin neure bihots / guçias, baita
Çure aitabitçhic, eta Çure / amibitçhic, Bere
fillequin ossasuna / dute eta dugu, eta milla
gorainçi dauçute /¹⁵ Eta bay ene esposac, eta
Çure ahaide eta / adisquide guçiec, eta Çuri
hemengo berri- / en adiarasteco, segurda aditu
içan tucula / hemengo Berri tristiciac, ehaile
gaisçoa preso / harturic jondone laurendy
egunian, 1755.⁶⁰

<40.2v> urthean, parisat eramadute, Sabat
dorrecko / Çena norbaitec hilçea delamedio, eta
by / hilabete badu jendec daraçatela, bidean
/ heldu dela libro bere etcherat, Baignan /⁸
oraino esta agueri gaisçoa, eta ostaleriaco /
premuia urthe berian jondoni jauni ingu- /
ruan presso harturic toulon nen da condena- /
turic galleretarat seculacots, adisquideac /
ongui mellaturic Es urcaççeco. eta diote /¹⁰
denbora bates harequin jbili Çen guiçon
bat / orobat hura beçalla jujamendu beras /
condenatua della, amicolla ohiaren ^{colpatçea} eta
/ seroraren leiho hausteco sujeta delamedio,
/ eta itxasoan beçala leihorrean ere fortunac

B bertsioa

<40.1r> 17

La presente soit rendüe à Monsieur de
Lalongue, bourgeois, pour remettre à Martin
Borrotra, son garson, s'il lui plait, de
Louisbourt. A Louisbourct.

<40.2r> Ahetze, le 24^{me} de mars 1757.

Ene seme maitea, errezebitu dut zure letra,
joan den abendoaren 5an egina, zeinetan
plazer eta atsegin izan baitut zure berri onen
aditzeaz. Eta eztut bertze letrarik batere
errezebitu zu horraz geroztik, bainan hitzez
zure berriak aditzen nituen urthe guzian. Eta
osasuna dut Jainkoari esker, eta desiratzen
darotzut zuri ere gauza bera fortuna on
batekin neure bihotz guziaz, baita zure
aitabitxik eta zure amabitxik bere famillekin
osasuna dute eta dugu, eta milla goraintzi
dautzute. Eta bai ene esposak, eta zure
ahaide eta adiskide guziek. Eta zuri hemengo
berrien adiarazteko, segur da aditu izan
tuzula hemengo berri tristiciac. Ehaile gaixoa
preso harturic Jondone Laurendi egunian,
1755eko

<40.2v> urthean, Parisat erama dute, Sabat
dorrecko zena norbaitek hiltzea dela medio,
eta bi hilabete badu jendek darazatela
bidean heldu dela libro bere etxerat, baiñan
oraino ezta ageri gaixoa. Eta Ostaleriako
premuia, urthe berian Jondoni Jauni inguruan
preso harturik, Toulonen da kondenaturik
galeretarat sekulakotz, adiskideak ongi
melaturik ez urkatzeko. Eta diote denbora
batez harekin ibili zen gizon bat, orobat, hura
bezala jujamendu beraz kondenatua dela,
Amikola ohiaren kolpatçea eta Seroraren leiho
hausteko sujeta dela medio. Eta, itsasoan
bezala, leihorrean ere fortunak arribatzen dire:

^{/15} arribatçen dire, Betrieneco jaungaiscoa / malobran hari dela lur peçabat gainera / Eroriric lehertu jçanda joanden udan, / Eta oren baten buruco hil Confesaturic, / Çure Çervitçari guelditçen nais ene seme ^{/20} maitea david Borrotra, Çure aita guçis / fidella eta obedienta,

Betrieneko jaun gaixoa, malobran hari dela, lur peza bat gainera eroririk lehertu izan da joan den udan, eta oren baten buruko hil konfesaturik. Zure zerbitzari gelditzen naiz, ene seme maitea. David Borrotra, zure aita guziz fidela eta obedienta.

2r:13 *amibitchic* : irakur bedi *amabitchic*.

41

Data: 1757/3/24

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Machume Basterreche

Hartzailea: Esteben Lafontaine

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<41.1r> 74

La Presante soit rendue / A. Estében Lafontaine / fils deSt. Jean deLuz / aLouïis Bourg

<41.2r> A Saint Jean de Luz le 24. mars 1757

/ Neuré semé maitia

/ Satis fatuba Jçan ondoan çuc asquén Eguin letras / nolha sindoasen Louis bourquerat partitcerat ^{/5} occasionnia favorable atcemanic Escribatcen / darosquit çut Bilerro hauc cury satisfatcerat Emaiteco / neuré ossasuna çuré ahaide guciequin batian ceinac / Desirat cen Bainuqué presenteco huneq hala aurqhy / Bacintça; othoistén saïtut hortic lastér Jlquitcerat ^{/10} Eguiçu Ecén Badaquit lechou horrec cér ondorïo duben / Eta nic Esdut Bertéc Errecurtçanic Baicq curé Espanança / Jaincoa othoïstucodut arren Eman diesaçun hunat / Ethortécoco chedia Eta Exajetatic Libraturic didan / Cure Jcusteco axeguina Guelditcenais cure amá ^{/15} Machumé Bastereche

/ Cure ahaidé amatchic Eta guciec milla goraintcy / halaber Danchohouric Eta cure adisquidé guciec

B bertsioa

<41.1r> 74

La presante soit rendue a Estében Lafontaine, fils de Saint Jean de Luz. A Louïisbourg.

<41.2r> A Saint Jean de Luz, le 24 mars 1757.

Neure seme maitia,

Satisfatuba izan ondoan zuk azken egin letraz, nolha zindoazen Louisbourqerat partitzerat, okasionia laborable atzemanik, eskribatzen darozkitzut bi lerro hauk zuri satisfatzerat emaiteko neure osasuna zure ahaide guziekin batian, zeinak desiratzen bainuke presenteko hunek hala aurkhi bazintza. Othoizten zaitut, hortik laster ilkhitzerat egizu, ezen badakit lekhu horrek zer ondorïo duben, eta nik ez dut bertze errezurtzarik baizik zure esparantza. Jainkoa othoiztuko dut, arren eman diezazun hunat ethortzeko xedia eta, etsaïetarik libratuik, didan zure ikusteko atsegina. Gelditzen naiz zure ama,

Machume Basterreche.

Zure ahaide, amatxik eta guziek milla goraintzi; halaber Dantxoxurik eta zure adiskide guziek.

42

Data: 1757/3/26

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Sabadina de Clauset

Hartzailea: Martin de Darango, sieur de Piarrenea

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<42.1r> [160.10]

Lapresente lettre soite / Reandeu aMartin de / Darango sieure de pirraenea / apresente Reste aLouisbour[g] / De Louisbourg

<42.2r> fait aguethary çé 26 Marz 1757

/ Enne seme maitea Estut faltatu / nahy jcatu presenteqo oqasione huntan / çury Enne Eta Enne familla gusiaren ossasu /⁸ na Beria gastiatu gabe ossasunadugu / jainqoary Esquer desiratzen guinduce Çurea / halla Balix, Çure konpaniarequin batean / sallutaxen caitugu familla gusiaq / generalean gaineraqo cure aide adisquide /¹⁰ gusieq Milla gorainxy Enne seme maitea / çure jjusteqo desirahandibat dut Eta / othoisten çaitut jçan sasu Cuq Ere gauça / Bera Estut presentean Cury Cer gastia / Baiçiq naicella cure cerbitxari cureama /¹⁵ fidella Eta Leialla Sabadinade / Clauset

B bertsioa

<42.1r> [160.10]

La presente lettre soite reandeu a Martin de Darango, sieure de Pirraenea, a presente reste a Louisbourg. De Louisbourg.

<42.2r> Fait a Guethary ce 26 marz 1757.

Ene seme maitea, eztut faltatu nahi izatu presenteko okasione huntan zuri ene eta ene familla guziaren osasuna berria gaziatu gabe. Osasuna dugu Jainkoari esker; desiratzen ginduke zurea hala balitz zure konpaniarekin batean. Salutatzen zaitugu familla guziak jeneralean; gainerako zure aide-adiskide guziek milla goraintzi. Ene seme maitea, zure ikusteko desira handi bat dut, eta othoizten zaitut, izan zazu zuk ere gauza bera. Eztut presentean zuri zer gaztia, baizik naizela zure zerbitzari. Zure ama fidela eta leiala, Sabadina de Clauset.

43

Data: 1757/3/26

Non idatzia: Getaria

Igorlea: Joana Aprendisdeguy

Hartzailea: Martin de Darango, sieur de Piarrenea

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<43.2v> 33

Lapresente Lettre soite / Reandeue aMartin de / darango sieure de pirraenea / apresente Reste a Louisbourq / De Louisbourg

<43.1r> fait aguethary çé 26 Marz 1757

/ Enne Espos Bihox Maitea

/ Estut faltatu nahy jçatu presenteko oqasione / hau Çury Enne Eta famillaren ossassuna Beria /^β çury aditçerat Eman gabe çeinetan Baita onna / jainqoary Esquer Desiratçen Baiquindue Çurea / halla Balix cure kompaniarequin Batean Enne / Espos Bihox Maitea sallutaxen caitut Bihox / samur Batequin semeaq Eta aitaq Eta amaq /¹⁰ annaia arreqa gauça Bera maulioneqo Eta / mutçurdineneqo famillaq gauça Bera Enne / Espos Bihox Maitea segurqui Esnuben Vste / aurtengo huntan Eçintudalla jqusiçq Erran nahy / gure jainqoary Eçixaiolla comeny jqusiada /¹⁵ gure gastetasuna hulla pasatu Behar dugulla / jainqoaq digulla grasia çaharxea harenglorian / Eremaiteq Enne Espos Bihox Maitea horay artean / Egotu nais segurquy hunguy hagoranduriq Eta / Bisquitartean satifatu nais Eçarella heldu /²⁰ Enne Espos Bihox maitea jainqoaq nahy badu / Es dieçaçudala guehiago hunelaqo Bihox miniq / Eman othoisten Çaitut Eguiada partitu Bacine / patraqanequin Eta horay angueletan daire

<43.1v> halleriqere jqusiada Eçarella Errisqu hartan / Enne Espos Maitea hanix changrinetan nais / presentean nahy nauxuque çerbeit Egorry Eta / Bisquitartean nihorq Estautaut Emaiten conselluriq /^β Emaiten jrisqu handibat della Enne Espos Maitea / Esparanxadut gure jainqoaq Emaren

B bertsioa

<43.2v> 33

La presente lettre soite reandeue a Martin de Darango, sieure de Pirraenea, a presente reste a Louisbourq. De Louisbourq.

<43.1r> Fait a Guethary ce 26 marz 1757.

Ene espos bihotz maitea,

Eztut faltatu nahi izatu presenteko okasione hau zuri ene eta famillaren osasuna berria zuri aditzerat eman gabe, zeinetan baita ona Jainkoari esker; desiratzen baikinduke zurea hala balitz zure kompaniarekin batean. Ene espos bihotz maitea, salutaten zaitut bihotz samur batekin; semeak eta aita eta amak, anaia-arrebak gauza bera; Maulioneko eta Mutxurdineneko famillak gauza bera. Ene espos bihotz maitea, segurki ez nuben uste aurtengo huntan ez zintudala ikusiko, erran nahi gure Jainkoari ez zitzaiola komeni. Ikusia da gure gaztetasuna hula pasatu behar dugula; Jainkoak digula grazia zahartzea haren glorian eremaiteko. Ene espos bihotz maitea, horai artean egotu naiz segurki hungi hagorandurik, eta bizkitartean satifatu naiz ez zarela heldu. Ene espos bihotz maitea, Jainkoak nahi badu ez diezazudala gehiago hunelako bihotz minik eman, othoizten zaitut. Egia da partitu bazine Patraqanekin eta horai Angeleterran dire.

<43.1v> Halerik ere, ikusia da ez zarela errisku hartan. Ene espos maitea, hanitz xangrinetan naiz. Presentean nahi nautzuke zerbeit egorri, eta bizkitartean nihorq eztaut konsellurik emaiten, irrisku handi bat dela. Ene espos maitea, esparantza dut gure Jainkoak emaren darozkitzula zeinbeit ispirazione on hunat lehenbiziko

darosquixula / çeinbeit jspirasione on
 hunat Lehenbiciqo qomodit_{ean} / Ethorxeqo
 segurquy ninere partetiç hunguy adresa /
 tuqo naxaio hothoy conply decalla çer Ere
 baixaio /¹⁰ comeny Eta hura.

/ Enne Espos Maitea / Estut presentean
 Çury / çergastia alefin Çure / jqusteçqo
 çangrines /¹⁵ Vrxen hary naicella / Çure
 Çerbixary çure / Espos fidela horay eta /
 Bethiere joannade / Aprendisdeguy

komoditatean ethortzeko segurki. Ni, nire
 partetik, hungi adrezatuko natzaio, hothoi
 konpli dezala zer ere baitzaio komeni, eta
 hura.

Ene espos maitea, ezttut presentean zuri
 zer gaztia, alefin zure ikusteko xangrinez
 urtzen hari naizela. Zure zerbitzari, zure
 espos fidela horai eta bethiere, Joanna de
 Aprendisdeguy.

1r:17 *Eremaiteq* : irakur bedi *Eremaiteqo*. 1r:23 *angueletan* : *Angueleterran*. 1v:4–5 *Eztautaut* : irakur
eztaut. Aditz nagusia bi aldiz emana da; bigarrena ematea proposatzen dugu: *estaut conselluriq emaiten*.
 1v:7 *qomodit_{ean}* : irakur *qomoditatean*.

44

Data: 1757/3/26

Non idatzia: Bidart

Igorlea: ? (arriba)

Hartzailea: Gracian Goute

Lotura: anai-arrebak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<44.1r> 48

A Monsieur / Dominique goute / apresant a
Lussiburc / a Lissiburc

<44.2r> Bidartten Egina martçoaren 26 1757

/ Ene anaia maitea hartçen dut libertad çuri
bilerroren / Escribatcequo Eta famlilaquo
berrien curi aditçerat / Ematequo ossasuna
dugu jainquoari Esquer ceinetan /^f Desiratcen
baiquindue curea halla ballis / hirur letra
jçatu ditugu Eta nic Egorridut lehen / bat amac
biia eta connatac bat Eta orai hirur bat / banna
bat marsañ handiarequin Eta bertçe bat /
larrametequin Eta bertçebat tulliqunnequin
/¹⁰ asquenequo letran Escribaturic helduçarela
Etcherat / Vda hastean possiblebada hargatic
Cerbeit Egorriçoço gindubenaç / Ecin
irisquatugare Egortçerat chasquanarenequo
jaunna / Eta hartubac dire garnesein Eta
deussic ballin baduçu / Eseiia çaita letra
chaniac ahallic hobekiena Eguinnic /¹⁵ bei
untcitan Egortcerat Eta niholere possiblebada
Cato / Etcherat gure jçusterat anac Eta
cunnatac milla / gorrantci Eta connatac othoi
catoçela Etcherat

<44.2v> Etçhortçerat possiblebada
niholere hemenere badela jnobres f...
go (†) / nahidubenac chortçurat Eta
nahidubenac marchantean ... 60 tt /
jlabetean Eta chortçurat hilabetenentça
... 150 tt / nahidutena Eguiten dute cato
ahal badguiçu Etcherat cureama /^f maitea
lehennic Eta gerogu hurren çuc aditcerat
Emandaroquigutçun / berriac aditu Eta
ondoban cu horquo miserietaric Etoria
jcusinahis / Etcherat cato Etcherat bi seme
jcatutugu lehen biççua hil chen sortuta /
cortçigarren Egunean Eta bertçea haur gallant
bat dugu Elqaarri Eguinen / diogu beguitarte

B bertsioa

<44.1r> 48

A Monsieur Dominique Goute, a presant a
Lussiburc. A Lissiburc.

<44.2r> Bidarten egina, martzoaren 26, 1757.

Ene anaia maitea, hartzen dut libertad
zuri bi lerroren eskribatzeko eta famillako
berrien zuri aditzerat emateko. Osasuna
dugu Jainkoari esker, zeinetan desiratzen
baikinduke zurea hala balitz. Hirur letra
izatu ditugu, eta nik egorri dut lehen bat,
amak bija eta koñatak bat, eta orai hirur,
bana bat Marsañ handiarekin, eta bertze bat
Larrametekin, eta bertze bat Tulliqunekin.
Azkeneko letran eskribaturik heldu zarela
etxerat, uda hastean posible bada, hargatik
zerbeit egorriko gindubenez ezin irriskatu
gare egortzerat. Xaskanareneko jauna eta
hartubak dire Garnesein. Eta deusik balin
baduzu, eseiia zaite letra xaniak ahalik
hobekiena egiñik bi untzitan egortzerat,
eta niholere posible bada zato etxerat gure
ikusterat. Amak eta kuñatak milla gorantzi,
eta koñatak othoi zatozela etxerat,

<44.2v> ethortzerat posible bada niholere,
hemen ere badela inobres f...go (†), nahi
dubenak khortsurat eta nahi dubenak
martxantean 60 libera ilabetean, eta
khortsurat hilabetentzat 150 libera; nahi
dutena egiten dute. Zato ahal badagizu
etxerat. Zure ama maitea lehenik eta gero gu
hurren, zuk aditzerat eman darokigutzun
berriak aditu eta, ondoban zu horko
miserietaric etorria ikusi nahiz etxerat; zato
etxerat. Bi seme izatu tugu; lehenbizkoa hil
tzen sortu ta zortzigarren egunean, eta bertzea
haur galant bat dugu. Elkarri eginen diogu
begitarte. Zato etxerat. Presentian ez dut

cato Etçherat /¹⁰ presseintian Eçdut curi
ceraditçera Eman guelditçeinais cure
cerbitçari / fidel bihosones cure arebamaitea
/ Eta bertçe fammilla gucia orobat. / piarre
hiribarren graçian goute maria bastres
/ othoi cato Etçherat

zuri zer aditzera eman; gelditzen naiz zure
zerbitzari fidel. Bihotz onez, zure arreba
maitea, eta bertze familia guzia orobat: Piarre
Hiribarren, Graçian Goute, Maria Bastres.
Othoi zato etxerat.

45

Data: 1757/3/26

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Estonta Durquiet

Hartzailea: Martin Durquiet

Lotura: anai-arrebak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<45.1r> 123

A Monsieur / Monsieur martin durquie /
Durquiet / A Louis burq

<45.2r> marchoareen 26an donibanen Eguina
1757

/ Ene anaja maitea

/ iscribatcen dausquitçut bi Lerro hauc curi /
gure osasunaren marcatceco ceinetan /⁵ hanits
on baita jaincoari esquerrac desiratcen / nuque
çuria hala balits hanits pena sofritu / dut çuc
amari Causatu dioçun changrinaz / Çure eta
ene ganic esdut mereci changrinic / icatea
exenplu harçaçu eta icus açu nola /¹⁰ jaincoac
Cuc haren aldera iduqui duçun / Conduita bera
çure aldera iduqui duen / othoisten çaitut beras
horiec guciac / ahanciric jaincoas orroitcea eta
amari / eta guri çure icusteco atceguina laster
/¹⁵ ematea ecen ama gaichoa çure icus minac
/ beldur nais mundutic eraman decan / esdu
cutasco aiphamenic eta suspiraric / baicen eta
othoy haren amudiori / ihardets diocaçu anaja
ganistoc gorainci /²⁰ gure burasoa uste dut
haren aldetic hanits / icanen den consolatua
ecen halaco manerac / ditu guelditcen nais xxx
çure cerbitçari çure / arreba estonta durquiet

bertsioa

<45.1r> 123

A Monsieur Monsieur Martin Durquiet. A
Louisburq.

<45.2r> Martxoaren 26an, Donibanen egina,
1757.

Ene anaia maitea,

Iskribatzen daukitzut bi lerro hauc zuri gure
osasunaren markatzeko, zeinetan hanitz on
baita Jainkoari eskerrak; desiratzen nuke zuria
hala balitz. Hanitz pena sofritu dut zuk amari
kausatu diozun xangrinaz. Zure eta eneganik ez
du merezi xangrinik izatea. Etsenplu hartazazu,
eta ikusazu nola Jainkoak zuk haren aldera
iduki duzun konduita bera zure aldera iduki
duen. Othoizten zaitut, beraz, horiek guziak
ahantzirik, Jainkoaz oroitzea eta amari eta guri
zure ikusteko atsegina laster ematea, ezen ama
gaixoa zure ikusminak beldur naiz mundutik
eraman dezan. Ez du zutazko aiphamenik eta
suspirarik baizen, eta othoi haren amudiori
ihardets diozazu. Anaia Ganistok goraintzi.
Gure burasoa uste dut haren aldetik hanitz
izanen den konsolatua, ezen halako manerak
ditu. Gelditzen naiz zure zerbitzari. Zure arreba,
Estonta Durquiet.

1r *durquie Durquiet* : duplografia. Bigarrena hautatu behar da.

46

Data: 1757/3/28

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Maria de Bordachipi

Hartzailea: Pierre Lahitun

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<46.1r> 90

A Monsieur / Monsieur pier / Lahitun den la navire / leroia / A louisbourque

<46.2r> Donibanen Eguina marchoaren 28ean 1757ean

/ Ene ceme maitea esctjbacen dausquicut / bj lero curj marquaceco gure osasunaren berjjac / ossasundugu jancoary esqer ceinetan deçiratcen /⁵ baiquindueque curja halabalix abustinneç çalu / tacen çaitu bere bijox gusijas eta enbarqadanda / [co]rxurat lixardj baitaco jaunarequin baiionaco / barandire denbora onarenbeiradaude ene haur / maitea harcasu quraiie egundaino baino boronda /¹⁰ te onetan da cure ossaba cure alderat jancoac / eman dauqu gero obligacjjonon pagatcecoa / salutacen çaitu gallantac ossasunadu bere / familla gusijarequin jdurjquicen nuben brestetic / cure partjadaco letra çeinetan axequin hartuco /¹⁵ bainuben gasina chipjtonecoa enequindago / nescato lafontenj emanen diioxoxu ene eta chjppj / toren gorainxjjac estebenj adjararacico diiosu / jthurbouruco nescachac gastiac haren diruben / beira daudeçela esconçeco eguindeçala fortu /²⁰ hainix emastequi alargun batec gastigacendu

<46.2v> ceina baita marja hirj berj eta quraiie har / deçala amac horj ethorj orduco emastegaiia / billatuco diioela ene ceme maite othoisten / çaitut hor abuçatugabe lehen bai lehen /⁵ etcherat ethocias cure eguin ahalac eguixu / jancoa çalborj ekarçen çaitubenian chanja / tubac gare moicoerenrat estut berçeric curj / marçaçeco deçjracen dauçut ossasuna perfet / bat eta gueldjçen nais cure cerbjcarj çure /¹⁰ ama fidela / marja de bordachipi

B bertsioa

<46.1r> 90

A Monsieur Monsieur Pier Lahitun, de la navire Le Roia. A Louisbourque.

<46.2r> Donibanen egina, martxoaren 28ean, 1757ean.

Ene seme maitea, eskribatzen daukitzud bi lerro zuri markatzeko gure osasunaren berriak. Osasun dugu Jankoari esker, zeinetan deziratzen baikinduke zuria hala balitz. Abustinek salutatzon zaitu bere bihotz guzijaz, eta enbarkadan da kortsurat Lizardibaitako jaunarekin. Baijonako barran dire, denbora onaren beira daude. Ene haur maitea, hartazazu kuraije, egundaino baino borondate onetan da zure osaba zure alderat. Jankoak eman dauku gero obligazijonen pagatzekoa. Salutatzon zaitu Gallantak, osasuna du bere familla guzijarekin. Idurikitzen nuben Brestetik zure partjadako letra, zeinetan ategin hartuko bainuben. Gasina Chipitonekoa enekin diago neskato. Lafonteni emanen dijotzotu ene eta Chipitoren goraintzijak. Estebeni adjaraziko dijozu Ithurburuko neskatzak gastiak haren diruben beira daudezela, ezkontzeko egin dezala fortuna hainitz. Emazteki alargun batek gatzigatzen du,

<46.2v> zeina baita Maria Hiriberri, eta kuraije har dezala, amak hori ethorri orduko emaztegaija billatuko dijoela. Ene seme maite, othoizten zaitut hor abuzatu gabe lehenbailehen etxerat ethortziaz; zure eginahalac egitzu. Jankoa salbori ekhartzen zaitubenian xanjatubak gare Moikorenerat. Eztut bertzerik zuri markatzeko. Deziratzen dautzut osasuna perfet bat, eta gelditzen naiz zure zerbitzari. Zure ama fidela, Maria de Bordachipi.

2r:19 *fortu* : irakur bedi *fortuna*. 2v:5 *ethocias* : horrela. 2v:7 *moicoerenrat* : irakur *Moikorenerat* (etxe-izena da).

47

Data: 1757/3/29

Non idatzia: Donibane Lohizune

Igorlea: Marie Diturriague

Hartzailea: Estebe de Echegaray

Lotura: ama-semeak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<47.2v> 96

La presante ce sera / randue a estebe / de
echegaray de sare / a presant aloisbourq / a
Louis bourq

<47.2r> A sare ce 29 de mars 1757

/ ene seme maitia

/ escribacendarocout letra hau couri nere
/ osasunarern marqaceqo ceinetan ona /^β
baitout nere familia gouciareqin bati[an] /
desiracennouque couria hala balix / aita
maitiareqin batian erecibi[tou] / tout coubeq
egori gouciaq couben erep[ousta] / batian
oungi pena senticendout coubeq ene /¹⁰
letrariq es erecibiceas estaene falta / haur
maitia esta ouciriq partitou non / estoudan
escribatou ene familaren / beriaq damou dout
ceren estoucoun / erecibitou coure letren
erepoustaq /¹⁵ aditou dout ene seme maitia
aitaq eman <47.1r> caitoubela toqi onbatian
otoy obediacou / coure aita marqatou darot
asqo gauca / behar cindouqiela eta ecin
fagoreriq / egin ene haur maitia penca cacoube
/^β couq eta aitaq cerpenetan ahal naitequen
/ nahi coubei palacer egin gauca goucies /
eta ecin egin oray marqacen toudan nex /
baiciq egorcen dar[ocou]t baril bat ceinetan
/ betri harispeqoareqin labordaregoleta /¹⁰
ceinetan baitire ourdaiaspibat louqainqa /
pagabat gasnabat belhar goutibat marsans /
handiareqin gorcen darosqicout aitarencant
/ eta courecat galcerdi parebana athorabat /
courecat capata pare bana christoa hadiqo_{sep}
(†) /¹⁵ chanichonenen coletan bayonatiq aitari
erocou / nola marqa carotanegorceqo 12 libera
/ cholat ene oustes hiriarteqin egori ouste /
nitouben bainan bordelen gelditou da

B bertsioa

<47.2v> 96

La presante ce sera randue a Estebe de
Echegaray de Sare, a presant a Loishourq. A
Louisbourq.

<47.2r> A Sare, ce 29 de mars 1757.

Ene seme maitia,

Eskribatzen darozut letra hau zuri nere
osasunaren markatzeko, zeinetan ona baitut
nere familia guziarekin batian; desirutzen
nake zuria hala balitz aita maitiarekin batian.
Errezibitu tut zubeq egorri guziak, zuben
errepusta batian ungi pena sentitzen dut
zubeq ene letrarik ez errezibitzeaz. Ezta ene
falta, haur maitia: ezta untzirik partitu, non ez
tudan eskribatu ene familaren berriak. Damu
dut, zeren eztuzun errezibitu zure letren
errepustak. Aditu dut, ene seme maitia, aitaq
eman <47.1r> zaitubela toki on batian. Otoi,
obedizazu zure aita. Markatu darot asko gauza
behar zindukiela, eta ezin fagorerik egin. Ene
haur maitia, pentsa zazube zuk eta aitaq zer
penetan ahal naiteken, nahi zubei palazer egin
gauza guziez, eta ezin egin orai markatzen
tudanetz baizik. Egortzen darozut barril bat,
zeinetan Betri Harispekoarekin Labordaren
goleta, zeinetan baitire urdaiazpi bat, lukainka
paga bat, gazna bat, belhar guti bat. Marsans
handiarekin gortzen darozkitzut aitarencat
eta zuretzat galtzerdi pare bana, athorra bat
zuretzat, zapata pare bana, Kristoa hadiko_{sep}
(†) Chanichonenen koletan Baionatik. Aitari
erroz nola marka zarotan egortzeko 12 libera
xokolat; ene ustez Hiriartekin egorri uste
nituben, bainan Bordelen gelditu da,

<47.lv> hortaraqox egorcen diosqat
 ganisoneqin / bayonatiq oungi precotioniaq
 hartouriq / parti caistecte ene maitiaq
 gerla handi / baten aparanciaq dire hemen
 angelesq /⁵ hartou touste saratarceinbait oray
 ere / goudia emocoube coben boro^ubei
 eichoqoq / aitarochiq mila goraici mondou
 huntouariq / goaten caigou coure aitarochiq
 elordiqoq / mila gorainci coure anaja
 mastaneq goraicic /¹⁰ bayonan da canonier
 bethi galdiareqin / coure anaya arebeq
 milagorainci geldicen / naic coure ama maitia
 / Marie ditouriage

/ besarqacacou coure aita ene /¹⁵ partes milia
 gorainci diodala

2r:11 *ouciriq* : irakur bedi *ounciriq*. 1r:9 *labordaregoleta* : *Labordaren goleta* (untzi mota bat). 1r:12
aitarencant : irakur bedi *aitarentçat*. 1r:17 *cholât* : *chocolat*. 1v:6 eichoqoq : *eicheqoq* 'etxeko(e)'
 proposatzen dugu.

<47.lv> hortarakotz egortzen diozkat
 Ganisonekin Baionatik, ungi prekozioniak
 harturik. Parti zaiztezte, ene maitiak,
 gerla handi baten aparantziak dire hemen.
 Angelesek hartu tuzte saratar zeinbait;
 orai ere guardia emozube zuben burubei.
 Etxekok, aitarotxik mila goraintzi, mundu
 huntarik goaten zaigu. Zure aitarotxik
 Elordikok mila goraintzi. Zure anaia
 Mastanek goraintzik; Baionan da kanonier,
 bethi galdiarekin. Zure anaia-arrebek mila
 goraintzi. Gelditzen naiz zure ama maitia,

Marie Ditourriague.

Besarkazazu zure aita ene partez, milia
 goraintzi diodala.

48

Data: 1757/4/1

Non idatzia: Ahetze

Igorlea: Joannes Larralde

Hartzailea: Betry Larralde

Lotura: aita-semeak

Helmuga: Iganis (= Niganiche)

A bertsioa

<48.1r> 87

Lapresente Lettre / soit Rendue A / Monsieur Betry / Larralde qui lest / apresent Jganis a terneube / Á Jnanis

<48.2r> Fait ahetz le 1 avril 1757

/ Enez semaiz maitea harcendout libertatez / souri by Leroren Jscibatceco Eta denbora berean / henbego berrien gastiacequo ossasounadougou /⁶ Jaincoary Esquer desiratcen guidouque sourez / hala balis gourez besala / ounguida arebca domins senara corsoubandou / Eguintoutez hirour presa serbaiten Espanança / Doutez anaya biác Espaniandirez. /¹⁰ ossasounarequin direz areba mariatoac / mila goraincy gousien partes ossasounadougou / amac milla goraincy sou Jqusy nahis / sangrigneau dagoela / ahaidez Eta adisquedez gousiez goraincy /¹⁵ aguereco semeary mila goraincy berez familac / amac Eta ahaidez gousiec. / aguereco bianayac corsuban direz / Corsouçalec serbait Eguiten doutez / sourez servitçari guelditcen nais /²⁰ Enez semay maitéa sou Jcusiateragnoco / chagriñian Joannez Larralde

B bertsioa

<48.1r> 87

La presente lettre soit rendue a Monsieur Betry Larralde, qui lest a present Iganis, a Terneube. Á Inanis.

<48.2r> Fait a Ahetz, le 1 avril 1757.

Ene seme maitea, hartzen dut libertate zuri bi lerroren iskribatzeko, eta denbora berean hebengo berrien gaztatzeko. Osasuna dugu Jainkoari esker; desiratzen ginduke zure hala balitz, gurea bezala. Ungi da, arrebak Domins senarra korsuban du. Egin tute hirur presa, zerbaiten esparantza dute. Anaia biak Espanian dire, osasunarekin dire. Arreba Mariatoak mila goraintzi, guzien partez osasuna dugu. Amak milla goraintzi, zu ikusi nahiz sangriñean dagoela. Ahaide eta adiskide guziek goraintzi. Agerreko semeari mila goraintzi bere familak, amak eta ahaide guziek. Agerreko bi anaiak korsuban dire; korsuzalek zerbait egiten dute.

Zure zerbitzari gelditzen naiz, ene seme maitea, zu ikusi arterañoکو xagriñian. Joannez Larralde.

2r:4 *henbego* : irakur bedi *hebengo*. 2r:7 *arebca* : irakur *arrebac*.

49

Data: ?

Non idatzia: ?

Igorlea: Francha Barrere

Hartzailea: Pierre Hayete

Lotura: senar-emazteak

Helmuga: Louisbourg

A bertsioa

<49.1r> 117

Monsieur / Monsieur Pierre hayete / maitre
cordonné apresante / A Louisbourg

<49.2r> Ene Espoz maitia =

/ Baliatzen nais Presenteco Comoitate hunaz
Çuri / satisfazione emateco Çenbat consolasiene
eta boscario / requin Causitcen naisen aditcias
Çure ossasunaren /^f berriac seiña satifatu
bainaute çure ganic ereçibitu / ditudan bortz
Letretec, arosoiñeiquin diot haiñitz Conzo /
laziiones bethia Causitçen naizela Çure ossasuna
onar / en berrien aditçia Çeren presentian
ÇurePresentiaz / Landan ez bainuen desiratçen
bertçe ontaçunic eta abe /¹⁰ aberastasunic
baizen çure ossasunaren satisfazionia^s / bada
nic ere satifatçen Çaitut gurias = seiña baitugu
/ haiñitz perfecta Jaincoary esquer eta hala
desira / tçen nuque ene bihotz guçias çuria
hala balix eta / horen konserbasioniaren
intencionetara Jaincoa /¹⁵ Erequedituco dut
eguin ahaldeçaquedan molde diferent / Guçies
diçula Lehenic ossasuna izpirituala eta gue /
ro) temporal bay diot. / Lehenic izpirituala
eta Guero temporal Çergatic / hura gabe
ez baicare arbola idor fruituric ecars /²⁰ en)
ezduen bat baizen seiña arbola fruituric ecars- /
en) ezduena Condenatua baita picatçerat eta
Çurat / hartiquitçerat eta idia Justu huntas
seguratçen Gaitu

<49.2v> Jesus Christoc bere Evangeliguan;
Comprendiarasten / dauquaric hitz Labur
hautas gugarela arbola hura / eta esbaitugu
Fruitu onac ecartçen Condenatuac izaren
/ izaren garela; eta nola Fruitu on-hequin
ecarseco /^f ez-baitugu deuseure inportantago;
ossasuna izpiritu / ala baiño hargatic desiratçen
dautçut Lehenic eta / Guçien gaiñetic;

B bertsioa

<49.1r> 117

Monsieur Monsieur Pierre Hayete, maitre
cordonné, a presante a Louisbourg.

<49.2r> Ene espoz maitia,

Baliatzen naiz presenteko komoitate hunaz
zuri satisfazione emateko, zenbat consolazione
eta bozkariorekin kausitzen naizen aditziak
zure osasunaren berriak, zeïña satifatu
bainaute zureganik errezibitu ditudan
bortz letrek. Arrozoïneikin diot haiñitz
konsolazionez bethia kausitzen naizela
zure osasuna onaren berrien aditziak, zeren
presentian zure presentiaz landan ez bainuen
desiratzen bertze ontasunik eta aberastasunik
baizen zure osasunaren satisfazioniaz. Bada,
nik ere satifatzen zaitut guriaz, zeïña baitugu
haiñitz perfekta Jainkoari esker, eta hala
desiratzen nuke ene bihotz guziak zuria
hala balitz. Eta horren konserbazioren
intenzionetara Jainkoa errecredituko dut, egin
ahal dezakedan molde diferent guziez, dizula
lehenik osasuna izpirituala, eta gero temporal.

Bai, diot lehenik izpirituala eta gero temporal,
zergatik hura gabe ez baikare arbola idor
fruiturik ekartzen ez duen bat baizen, zeïña
arbola fruiturik ekartzen ez duena kondenatua
baita pikatçerat eta zurat hartikitçerat. Eta idia
justu huntaz segurutzen gaitu

<49.2v> Jesus Kristok bere Ebanjeliguan,
konprendiarazten daukularik hitz labur
hautaz gu garela arbola hura, eta ez baitugu
fruitu onak ekartzen kondenatuak izaren
garela; eta nola fruitu on hekin ekartzeko
ez baitugu deuseren inportantago, osasuna
izpirituala baiño hargatik desiratzen dautçut
lehenik eta guzien gaiñetic, osasuna ezin aski

ossasuna ezin asqui presadaitequen / hura;
 seiña gabe ez baicare deusic nic baiño /
 hobequidaquiçun beçala gauça guçiac
 harequin badi /¹⁰ tugula ez bedi beras secular
 aparta gure ganic gure / tçat haiñ inportant
 de perla presiatu hura biçia / galduco badugu
 ere haren sustengutan eta çhedehori / ec)
 gure bihotzetan Vngui fincatuac baitugu,
 seguratuac / izan bihardugu temporalian ere
 nola ezdaquiçula /¹⁵ abantçatuaz garen garela
 eta ezparantça dut eguia / inportant horiec
 Çure bihotzian hobequi imprimatuac / eta
 seguituac direla enian nic baiño =

/ Guçia suprenitua nais çuc ez markhatçia
 deuz / Etcherat etorseco Conturic non
 haiñitz afligitçen /²⁰ bainau gauça horec;
 eta othoisten çaitut eguidaçun / haren
 bertçe Atçeguìn haurten etcherat etorsia
 / Erregueren Vntcy batian munduan
 Posible bada = Çure / Letretan markhatçen
 dauquidatçun Letrade çchange / eta bacaillau
 guçiac ereçibitutum eta othoisten çaitut /²⁵
 comoitate guçietan egorsias posible bada
 qintal bana / ezen hemen ere gauça guçiac
 Garastia dire

<49.3r> Ezdut bada ene Vstes çu hemen
 çineinian baiño Prodigali / tate gihiago
 eguiten baiñan den gutienetic ere famillac
 / asco bihardu çuc Vngui daquiçun beçala
 baiñan harçacu / Quraie haurre galant
 batçuen hasten hari çare eta /⁵ iqusten
 baçintu seurnais Content çintesquela
 Joanis / Galant Vngui eraçursen eta mesa
 Laguntçen ikasiric / Escribatçen harida seiña
 Letra hau hari sinarasten / diot eta nauçia
 haiñitz Content du; oyer guçia çure / Patroiña
 hemenda orobat alaba Çhumia =

/¹⁰ piarres millafrancarra ganic ereçibitutum
 80^{it} / Çuc martinican çalzeco emançoiñiscan
 15 sapata / pareren Alderat berogoy eta
 bortz nasos çaldu / omentu, eta haren
 ganic ereçibitu beçain Laster / Lapeirery
 emanioscan = harismendy ganic ereçi
 /¹⁵ bitututçun Çolac Gana Dargainganic
 Çiren seiña / Eman baitioscat 140tt Çhabat
 erotaçharecoary / Bertçe 140tt gaiñeiraco
 hehun eta / hogoi Liberequin guelditçen
 nais ene famillaireq / uin) etorquiçuneco
 Çure zocorriaren esparançan /²⁰ desiratçen

preza daiteken hura, zeña gabe ez baikare
 deusik, nik baiño hobeki dakizun bezala,
 gauza guziak harekin baditugula. Ez bedi,
 beraz, sekulan aparta gureganik guretzat
 haiñ inportant den perla preziatu hura, bizia
 galduko badugu ere haren sustengutan.
 Eta xede horiek gure bihotzetan ungi
 finkatuak baitugu, seguratuak izan bihar
 dugu tenporalian ere, nola ez dakigula
 abantzatuaz garen garela, eta ezparantza dut
 egia inportant horiek zure bihotzian hobeki
 inprimatuak eta segituak direla enian nik
 baiño.

Guzia suprenitua naiz çuc ez markhatzia
 deus etxerat etortzeko konturik, non haiñitz
 aflijitzen bainau gauza horrek; eta othoizten
 zaitut egidazun harenbertze atsegin haurten
 etxerat etortzia Erregeren unti batian,
 munduan posible bada. Zure letretan
 markhatzen daukidatzun *letra de change* eta
 bakaillau guziak erreçibitu tut, eta othoizten
 zaitut komoitate guzietan egortziaz, posible
 bada, kintal bana, ezen hemen ere gauza
 guziak garastia dire.

<49.3r> Ez dut, bada, ene ustez zu hemen
 ziñenian baiño prodigalitate gihiago egiten,
 baiñan den gutienetik ere famillac asko
 bihar du, çuk ungi dakizun bezala. Baiñan
 hartazau kuraie: haurre galant batzuen
 hazten hari zare, eta ikusten bazintu segur
 naiz kontent zintezkela. Joanis galant ungi
 erakurtzen eta meza laguntzen ikasirik,
 eskribatzen hari da, zeña letra hau hari
 sinarazten diot, eta nausia haiñitz kontent
 du. Oier guzia zure patroiña hemen da,
 orobat alaba xumia.

Piarres milafrankarraganik erreçibitu tut
 80 libera, çuk Martinikan saltzeko eman
 ziñoizkan 15 zapata pareren alderat.
 Berrogoi eta bortzina sos saldu omen tu,
 eta harenganik erreçibitu bezain laster
 Lapeireri eman niozkan. Harismendyganik
 erreçibitu tutzun zolak Gana Dargainganik
 ziren, zeña eman baitiozkat 140 libera.
 Xabat Errotaxarrekoari bertze 140 libera.
 Gaiñeirako ehun eta hogoi liberekin
 gelditzen naiz, ene famillarekin etorkizuneko
 zure sokorriaren esparantzian. Desiratzen

nuquen haren Çuri Çerbeit Laguntçen /
Eguitia famillairen hasteco deus ezqutan
izan / gabe ezda deuzere irabasteco molderic
eta othoisten / Çaitut egorçias Lehenbico
Comoitian 100 esqutuco / Letrade change bat
irabas deçadan nic ere bi illaibeteta^{co} /²⁵ oguia
ezparança dut orai artian beçala
hemendic / harat ere fagoratuco nauçula =

<49.3v> Egotçen dausquitçut masans
handiarequin barille / bat nafar Vrday
aspi 2 galtçardy pare belar / piscabat eta
biper pisca bat = Toliqunequin / Vrday
aspi bat eltçe handy bat zahesqui horen
/⁵ contra maistruarequin 30 Laurdeneco
baril bat / agorient eta galtçardy pare bat
= martin Larumen / tequin urday aspi
bat eta 30 laurdeneco barril / bat agorient
= Mr Daguerrieri escribatçerat nua / hia
plaser dautçun eguin atçequin ekarçia 40
/¹⁰ Laurdeneco barril bat Arno çuc hor
pagatçeco / edo nic hemen ezdaquit azetatuco
duen azetatçen / badarot emaren dautçu
salbamendua duelaric = / ene Letra batequin
=

/ horiec dire nic Egor ahal dietçaquedatçun
guçiac /¹⁵ presentian desiratçen nuquen
harren haiñitz / ghiagoren egortçia ezin
ghiago egor dieçaçuet / eta Vste dut
Çeronec ere comprenitçenduçula / ene ahala
Çenbatetaraïnoçaden Atorrac / hemen
dauscat ezin hiriscatus baiñan halere /²⁰
banaqui etçintesquela haurten etcherat etorr
/ egor çinçasquet baiñan esparança horec
gibelaxen / nau = hemen Guelditçen nais Çu
helduden Vrtian / iqusteco ezparança, Çure
servitçary humilla ene / bihotz guçiaz Çure
ezpos fidela = /²⁵ Francha / Barere

/ milla goraintcy harismendic / eta Gure
Familla Guçiac Amen

<49.4r> Memorio hau Egotçen dautçut
çuri satifaçione / Emateco oray arteraiñoco
gure eguitecoac nola duazen / edo
nola guelditçendiren gana dargain Çor
guelditçenda / Gatian eman Çausquitçun
eta Guerostic egorri Çausquitçun /³ en)
Alderat Çure ordenas 600^u emanic arastatçen
da / hartçeco ... 113^u / harismendic Ecari
Çausquitçun zoletaric ... 031 / saraco

nuken harren zuri zerbeit laguntzen egitia,
famillaren hazteko deus eskutan izan gabe ez
da deusere irabazteko molderik. Eta othoizten
zaitut egortziaz lehenbiziko komoitian 100
ezkutuko *letra de change* bat, irabaz dezadan
nik ere bi illabetetako ogia. Ezparantza
dut, orai artian bezala, hemendik harat ere
fagoratuko nauzula.

<49.3v> Egotzen dauzkitzut Masans
handiarekin barril bat nafar, urdaiazpi, 2
galtzardi pare, belar piska bat eta biper piska
bat. Toliqunekin urdaiazpi bat, eltçe handi
bat saheski horren kontra. Maistruarekin 30
laurdeneko barril bat agorient eta galtzardi
pare bat. Martin Larumentekin urdaiazpi
bat eta 30 laurdeneko barril bat agorient. M^r
Daguerrieri eskribatzerat nua, ia plazer dautzun
egin atsegin ekhartzia 40 laurdeneko barril
bat arno, zuk hor pagatzeko edo nik hemen.
Ez dakit azetatuko duen; azetatzen badarot
emaren dautzu salbamendua duelarik ene letra
batekin.

Horiek dire nik egor ahal dietzakedatzun
guziak presentian. Desiratzen nuken
harren haiñitz ghiagoren egortzia, ezin
ghiago egor diezazuket, eta uste dut
zeronek ere konprenitzen duzula ene ahala
zenbatetaraïnoçkoa den. Atorrak hemen
dauzkat, ezin hirriskatuz. Baiñan halere,
banaki etzintezkela haurten etxerat etor, egor
zintzaket, baiñan esparantza horrek gibelatzen
nau. Hemen gelditzen naiz, zu heldu den
urtian ikusteko esparantzan, zure zerbitzari
humilla. Ene bihotz guçiaz, zure espos fidela.
Francha Barrere.

Milla goraintzi Harismendik eta gure familla
guziak. Amen.

<49.4r> Memorio hau egortzen dautzut zuri
satifaçione emateko, orai arteraiñoko gure
egitekoak nola duazen edo nola gelditzen
diren. Gana Dargain zor gelditzen da,
gatian eman zauzkitzun eta geroztik egorri
zauzkitzunen alderat. Zure ordenaz 600 libera
emanik arrastatzen da. Hartzeko: 113 libera.
Harismendik ekarri zauzkitzun zoletarik: 031.
Sarako Cristuali eman diozkat, zuk ordenatu

Cristuali emandioscat çuc ordenatu beçala) / 300^u eta haren marçhandizec balio 334^u arasta zor ... 34 /¹⁰ ezdu onic eguin nahi batere haren añaiary eman / Çinioscan hemesorçy Liberaric = Plaçhançhary eman / nioscan çuc haren semiari Fornitu çñoiscanen / Gaiñeira 555^u Liberaco letradeçchange hura / Contu harturic Çorda ... 100 /¹⁵ eta bertçe Alde Ganden Vrtian biçitçeço) idequiac) 200 / Presenteco hauc dire Çure eta ene obligaçioniac ... 478^u

Casanab Chumiary. / Emaniguen 1500 Liberaco Letrade çchange hura eguia / da çure ganic ordena nuen emateco 1400^u baiñan /²⁰ nola nerorec Eguin bainuen 100 Liberaren obligaçionia / Garniçione bat harturic eta dirubatçuec idequiric semper / tarraren hauçiaren seguitçeço hargatic emanioscan 1500^u

/ Digo Leheneco haren marçhandiseticaric oraiño baduela / hor Çenbeit zaltçeço = haurten Egorçten dautçu toliquneq /²⁵ uin) barica bat Çare çenbeit tresnequin eta bertçe bat / Larumentequin. <49.4v> Marçhandiçac Çuri ene Gaiñian seguraturic egorçeço / Eguindut eguin ahala baiñan ezin progoiçchatu naiz / çergatic mr. Laraldec ez baitarot permetitu nahiçatu / digoelaric bere gaiñian nahituela hiriscatu seguraturigabe /³ Çure Ezquetara, haguien Jaincoac permetitçendu gu / malur handiogo batetaric beiraitçeço Jaincoac hala / permeti ditçala =

bezala, 300 libera, eta haren marxandizek balio 334 libera. Arrasta zor: 34. Ez du onik egin nahi batere. Haren añaiari eman ziniozkan hemezortzi liberarik Plachanchari eman niozkan, zuk haren semiari fornituziñoizkanen gaiñeira. 555 liberako *letra de change* hura kontu harturik, zor da: 100. Eta bertze alde, gan den urtian bizitzeko idekiak: 200. Presenteko hauk dire zure eta ene obligazioniak: 478 libera.

Casanab Xumiari eman niguen 1.500 liberako *letra de change* hura. Egia da zureganik ordena nuen emateko 1.400 libera, baiñan nola nerorrek egin bainuen 100 liberaren obligacionia, garniçione bat harturik eta diru batzuek idekirik senpertarraren hauziaren getitzeko, hargatik eman niozkan 1.500 libera.

Digo leheneko haren marxandizetarik oraiño baduela hor zenbeit saltzeko. Haurten egorçten dautzu Toliqunekin barrika bat zare zenbeit tresnekin, eta bertze bat Larumentekin. <49.4v> Marxandizak zuri ene gaiñian seguraturik egorçzeko egin dut eginahala, baiñan ezin progoiçxatu naiz, zergatik M^r Laraldek ez baitarot permetitu nahi izatu, digoelarik bere gaiñian nahi tuela hirriskatu, seguratu gabe, zure eskuetara. Hagien Jainkoak permetitzen du, gu malur handiogo batetarik beiratzeko; Jainkoak hala permeti ditzala.

2r:6 *Letretec* : irakur bedi *letrec*. 2v:11 *de* : den behar luke. 3r:23 *Comoitian* : irakur *comoditatian*.

